

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

**3 URTE BETETZERAKO MOTXILADUN.
KARTZELAKO HAURRAK "JENDARTERATZEKO"
PROTOKOLO-PROPOSAMENA
GRADU AMAIERAKO LANA**

EGILEA: Riol Izagirre, Ainhoa.

ZUZENDARIA: Alvarez Uria, Amaia.

2019/20

LABURPENA:

Gradu Amaierako Lan honetan espetxean haien amekin batera bizi diren haurren egoerak azaldu eta hiru urte betetzearekin batera kaleratzean egin behar duten dolua azalduko da. Horrez gain, kaleratze honetan laguntzeko hainbat gomendio ematen saiatuko gara protokolo proposamen baten bidez. Ezer gutxi daki gizarteak ume hauetaz, normalean espetxean bizi diren haurren gaia ez baita jorratzen, hala ere lan honekin haien egoera ahalik eta hoberen jorratzen saiatu gara. Horretarako bi presorekin hitz egin dugu egungo kartzeletako egoeraren berri jasotzeko, haien haur txikiarekin kartzelan bizitako bi amei elkarrizketak egin dizkiegu, baita haur hauetako bati eta bere irakasleari ere. . Kontuan izan dugu hiru urte bete arte nola bizi diren barruan, hirugarren urtebetetzean nolakoa den kaleratze prozesua, eta irten osteko egokitzapena eta lehen bisitak zelakoak diren. Espetxetik ateratzean haien atxikimendu irudia denarengandik banatzen dira eta beste mundu eta harreman sare batzuk zerotik ikasi behar dituzte. Aldaketa horrek dakarren dolua eta bizitza berrira egokitzapena (kalea, familia, herria, eskola eta abar) ahalik eta erosoan bizi dezaten du xedea gure lanak.

Hitz gakoak: haurrak eta espetxea, egokitzapena, atxikimendua, dolua, giza-eskubideak, zeharkako presoak.

RESUMEN:

En este Trabajo de Fin de Grado se hablará de la situación de los niños y las niñas que viven en la cárcel junto a sus madres y del duelo que deben hacer al separarse cuando cumplen los tres años. Además, trataremos de dar una serie de recomendaciones para ayudar en esta separación, a través de un protocolo. La sociedad sabe poco de estos niños y niñas, ya que normalmente no se aborda el tema de los niños y niñas que viven en prisión, pero con este trabajo hemos tratado de retratar lo mejor posible su situación. Para ello, hemos hablado con dos presos para conocer la situación actual de las cárceles, hemos entrevistado a dos madres que estuvieron en prisión con sus hijas, a una de las niñas y su profesar con su bebé a dos madres que vivieron en la cárcel, a una de ellas y a su profesora. Hemos tenido en cuenta cómo viven internamente hasta los tres años, cómo es el proceso de despido en el tercer cumpleaños, la adaptación tras la salida y cómo son las primeras visitas. Cuando salen de la cárcel se separan de lo que es su imagen de apego y tienen que aprender de cero otros mundos y redes relacionales. Nuestro trabajo pretende que el duelo y la adaptación a la nueva vida que supone este cambio (calle, familia, pueblo, escuela, etc.) lo vivan lo más fácil posible.

Palabras clave: infancia y prisión, adaptación, apego, duelo, derechos humanos, recluso indirecto.

AURKIBIDEA

| | |
|--|----|
| Sarrera | 2 |
| 1. Marko teorikoa | 3 |
| 1.1. 0-3 urteko haurren garapena | 3 |
| 1.1.1. Atxikimendua | 4 |
| 1.1.2. Egokitzapena | 7 |
| 1.2. Aldaketa baten ostean: Dolua..... | 11 |
| 1.3. 0-3 urteko haurrak kartzelan..... | 12 |
| 1.3.1. Kartzela..... | 12 |
| 1.3.2. Emakumeak eta kartzela | 16 |
| 1.3.3. Amen moduluak | 19 |
| 1.3.4. 0-3 urteko haurren egunerokoa kartzelan | 20 |
| 1.3.5. Haurren eskubideak..... | 24 |
| 1.4. Helburuak..... | 27 |
| 2. Metodoa | 28 |
| 2.1 Prozedura..... | 28 |
| 2.2 Partaideak | 29 |
| 2.3 Tresnak | 30 |
| 2.3.1 Errebisio bibliografikoa..... | 30 |
| 2.3.2 Elkarrizketak..... | 30 |
| 2.3.3 Ikaskuntza-zerbitzua (I+Z) | 31 |
| 3. Emaitzak | 33 |
| 3.1.1. Elkarrizketak | 33 |
| 4. Protokolo proposamena | 42 |
| 5. Hausnarketa eta ondorioak | 48 |
| 6. Bibliografia | 51 |
| 7. Eranskinak | 56 |

Kartzelan dauden pertsonak burura etortzean, ezin dugu ukatu hainbat aurreiritzi ditugula. Ezjakintasunak bideratutakoak. Zer gertatzen da, ordea, espetxea eta haurrak lotzen ditugunean?

Lan hau egiteko gaia aukeratzean gizarteak ahaztuta dituen eta zeharkako presoak diren haurrak etorri zitzaizkidan burura. Haien hiru lehenengo urteetan zehar amarekin espetxean bizi diren eta bat-batean haien besoetatik alde egin behar duten haurrak. Oso zaila da atxikimendu irudia denarengandik banatu behar izatea. Sufrimendua saihestezina izango da, haien bizi duten egoeran are gehiago.

Egoera hori kontuan izanda, lan honen helburua espetxean bizi diren haurren egoera, baldintzak eta egunerokoa bistaratzea izango da. Horrez gain, haien bizitza berrira egin behar duten egokitzapenean laguntza emateko protokolo proposamen bat sortu da eta bertan kontuan hartzekoak zerrendatu dira.

Lana hainbat ataletan dago bananduta. Marko teorikoari dagokionez, haurren garapenaren, atxikimenduaren eta bere hirugarren urtea betetzearekin bizi behar duen dolua lantzeaz gain, espetxearen gaia jorratuko dugu, legeak eta dokumentu ofizialek diotenarekin batera, hainbat autorek eta presok horri buruz esateko dutena ere agertuz. Jarraian, haurren espetxeko bizitza ere landuko dugu. Azkenik, atal hau amaitzeko, lanaren helburuak azalduko dira.

Horren ondoren, metodoari erreparatuz, lanaren prozedura, partaideak, eta tresnak aletuko ditugu. Lan hau Ikaskuntza-Zerbitzua filosofia edo metodologia erabiliz gauzatu da. Beraz, horren azalpena ere egingo da. Egindako elkarrizketetatik hainbat emaitza atera ditugu, gure protokolo proposamena gauzatzeko ezinbestekoak izan direnak.

Protokolo proposamena, lanaren helburu nagusia izan da, beraz lan honetako atalik garrantzitsuenetarikoa da eta aurretik egindako testuinguraketa, gaiaren kokapena eta elementu teknikoak azaldu ostean agertuko da. Lana ixteko, erabilitako liburu, artikulua, edota bitarteko guztien bibliografia eta eranskinak aipatuko ditugu.

1. MARKO TEORIKOA

Hurrengo marko teorikoan lan honetarako kontzeptu gakoak aztertzeraz sartuko gara. Alde batetik, 0-3 urte bitarteko umeen garapena, atxikimendua, egokitzapena eta aldaketa handien osteko dolua aurkeztuko dira. Beste alde batetik, espetxearen gaia jorratuko dugu. Lan honekin, Euskal Herri osoko datuak bildu nahi nituen, baina, Estatu Frantseseko egoera eta datuak jasotzea zaila egin zait, beraz, Hego Euskal Herrian kokatuko da lana. Espetxearen funtzionamendua azaldu ostean, emakumeak han barruan duen egoera jorratuko da. Zehazki, kartzelan ama izateak dakartzan zailtasunak edota bertan bizi diren hurrek dituzten bizi baldintzak aipatuko dira.

1.1.0-3 URTEKO HAURREN GARAPENA

Haurra jaiotzen den momentutik, biologikoki, psikologikoki eta sozialki garatzen hasten da. Heziketa eta garapen prozesuan, norberak bere erritmoa dauka, eta ondoren azalduko dena, umeen gehiengoari erantzuten dio (Etxague, Martinez eta Mazkarian, 2000).

Haur Hezkuntzako curriculumaren eremu eta gaitasunak erreparatuz, hurrengoak diote alderdi ezberdinetan:

- *Nortasunaren eraikuntzaren eta ingurune fisiko eta sozialaren ezagueraren eremua.*

Eremu honetan, pertsona-nortasunaren gainean eta ingurune natural, fisiko eta sozialaren gainean gero eta ezagutza doituago bat eraikitze bidea lantzen da. Bide honetan, haurrak bere buruaren gaineko irudi bat osatzen doa. Era berean, ingurunearekiko partaidetza-sentimenduak, errespetua, balioespeneko jarrerak eta interesa presente izango dira.

Haurrak bere gorputza ezagutzuz doa, izan ere hura da bere burua ezagutzeko lehen erreferentzia. Gainera, "ni" nozioa eta bere buruaren gaineko irudia osatzeko balio du. Nortasuna eraikitze prozesu honetan, bere aukerak eta mugak ezagutu, kontrolatu eta menderatu behar ditu.

Etapan honetan, erreferentziazko pertsona helduekiko lotura afektiboek segurtasun afektiboa emango diote haurrari eta ondorioz, hartu-emanak izango ditu eta errealitateak nola funtzionatzen duen ezagutzeko jakin-mina adieraziko du.

Beraz, esan dezakegu eremu honetako eduki nabarmenak hurrengoak direla: nortasun propioaren eraikuntza, hurbileko ingurune natural eta sozialak, bertako elementu fisikoak, elementu horien arteko erlazioak eta ingurune horietan eratzen diren rolak eta harreman sozialak.

Ingurune soziokulturalak haurren arreta pizten du, beraz estimulu-iturri bat da berarentzako. Etapa honetan haurrak komunitate bateko partaide dela ikasten du.

- *Nortasunaren eraikuntzaren eta komunikazioaren eta adierazpenaren eremua.*

Pertsonaren eta ingurunearen arteko komunikazioa eta interakzioak lantzea da eremu honen xedea. Norberaren baitako eta kanpoko munduaren arteko lotura egiten dute hizkuntzek; izan ere, haien bidez, errealitatea adierazten dugu, portaerak erregulatzen ditugu, hartu-emanak izaten ditugu eta, besteak beste, pentsamenduak, sentimenduak eta bizipenak adierazten ditugu.

Haurrek, hasiera batean, gorputzaren eta keinuen bidezko komunikazio moduak baliatzen dituzte kontaktuko, afektuko eta orientazioko beharrian oinarritutakoak asetzeko; ondoren, hizkuntza guztiak, eta bereziki ahozko hizkuntza, lantzen dituzte pertsona helduekin izaten dituzten harremanetan.

Etapa horretan, handitu eta sakondu egiten da ingurunearekin duten harremana, adierazpide berriak eskuratzen dituzte, komunikazio-trukeak indartzen dituzte beraien adineko kideekin eta pertsona helduekin, eta, arian-arian, eduki landuagoak erabiltzen dituzte komunikazioetan; era berean, zenbait kontzeptu, trebetasun eta jarrera eskuratzen dituzte, gero eta adierazpen konplexuagoak egiteko.

Haurren eskolak komunikaziorako esparru bat izan behar du, topaleku bat, eta esparru horrek adiera aberatseko hizkuntza-eredu bat eskaini behar die haurrei, argia eta ongi egituratua.

Hizkuntzen bidezko komunikazioa kultura-aberastasunerako tresna da, eta haurrek, haren bidez, beraien inguruneko tradizioak eta adierazpen moduak ezagutzen dituzte, baita urrutiko kultura-adierazpen askotarikoak ere.

1.1.1. ATXIKIMENDUA

Atxikimendua haurra jaiotzen den unetik helduekiko sortzen doan lotura berezia da. Haurrak harremanak egiteko beharra dauka lotura afektibo-emozional orekatuak sortuz, hau izango baita bizitzan zehar munduarekiko segurtasuna emango dion lehenengo pausoa (Pardo, 2015).

Haurren eta bera zaintzen duen helduaren arteko atxikimendua denboran zehar mantenduko da, eta bi pertsona hauen elkarrekintzari esker garatzen joango da. Haurren kasuan, haien atxikimendu irudiarekin egon nahi izango dute, eta hauengandik banatzean, larritasuna sentituko dute. Atxikimendua, lehen aipatu bezala, jaiotzen denetik sortuko da, baina denbora pasa ahala garatzen joango da guraso edo zaintzaileekiko, hasieran inguruko

helduen beharra baitute. Atxikimendu irudia, haurarentzat, besarkatzean lasaitasuna transmitituko diona da, bere besoetan beldurra galduko du eta seguru eta babestuta sentituko da (Grossmann, 2004).

Haurren atxikimendu irudi nagusia bere zaintzaile nagusia izango da, eta atxikimendu edo lotura hau ez da jaiotzetik dagoen zerbait, prozesu baten ondorioz sortzen da eta landu eta zaindu beharko da. Gure bizitzan zehar pertsona bat baino gehiagorekin izango dugu lotura emozionala, baina gutxirekin izango dira bereziak lotura emozional hauek, hau da, gutxirekin sortuko dugu atxikimendua, eta pertsona horiek umearentzako oso bereziak izango dira, haien arteko harremana berezia eta lehentasunezkoa izanik. Atxikimendua, denboran zehar mantenduko den lotura emozionala da, iraunkorra. Lotura hau, bi pertsonen arteko interakzioari esker gertatuko da eta bi pertsonen inplikazioa beharrezkoa izango da, biek elkarrekin dituzten portaerei eta jarrereri esker, sendotuz joango da lotura emozional berezi hori. Atxikimenduaren portaera hainbat jokabiderek adieraziko da: elkarrekin egoteko nahia eta banatzean larritasun sentimendua (Jauregizar, 2013).

Atxikimenduaren inguruan hitz egiten dugunean, bi autore nagusi ditugu aipagai: John Bowlby eta Mary Ainsworth. Bowlby atxikimenduaren lehen teoria sortu zuen psikiatra eta psikoanalista britaniarra izan zen. Haurrak ikertu zituen, banatzeak haiengan zuen eragina aztertuz. Honen esanetan haurren garapena normaltasunez gauzatu dadin, atxikimendu-irudiarekiko hurbiltasuna izan behar du; komunikatzeko harreman sentsorial pribilegiatuak izan behar ditu; azkenik, ingurunearekiko harreman eraginkorrak eratu behar ditu. Hau dela medio, haurren esplorazioa errazagoa izango da (Lizaso eta Apodaka, 2008; Comino, 2016). Bowlbyk ikusi zuen haur baten biziraupenerako eta garapen osasungarrirako ezinbestekoa dela amarekin harreman beroa izatea, elikadura, zainketa, estimulazioa eta diziplina bezain beroa (Bowlby IN Lara, 2014).

Mary Ainsworthek, atxikimenduaren inguruko desberdintasunak aztertzeko lehen ikerketak egin zituen. Behaketa estandarizatu bat diseinatu zuen 12-18 hilabeteko haurrekin eta haien atxikimendu irudiekin. Hemen, haurra eta atxikimendu irudia gela batean egongo dira. Ezezagun bat sartu eta irudi honekin hitz egin ostean irudia gelatik irtengo da haurra ezezagunarekin utziz. Azkenik ama bueltatuko da eta haurra agurtu eta lasaituko du urduri balego. Haurren erreakzioei esker, Ainsworthek atxikimendu motak ikertu ahal izan zituen. Ikerketa honetan jasotako emaitzen interpretazioaren arabera hainbat atxikimendu mota daude: segurua (haurren %65-70ek dutena), antsioso-anbibalentea (haurren %10-15ek dutena), saiheskorra (%20k dutena), eta desantolatua (jokabide nahasi eta kontraesankorrak dituztenak) (Ainsworth eta Bell, 1970; Ainsworth, 1979).

Bizi garen gizarte kapitalista hetero-patriarkalean jakintzat ematen da haurrarekiko atxikimendu-irudia izan behar duen pertsona ama dela, emakumea izateagatik. Historikoki ezarri digute zaintzaren ardura rol femeninoagatik. Bularra emateak atxikimendu berezia ematen du, fisikoa, baina atxikimendu berezi hori elikatzearekin dago lotua, ez bakarrik bularra izateagatik. Gizonak ere atxikimendu-irudi nagusia dira, haurraren zaintzan irudi nagusia direnean, beraz, nahiz eta gizarteak emakumea irudikatu atxikimendu-irudi gisa, hori ez da zertan horrela izan behar (Fernández Pujana, 2014).

Haurra bere atxikimendu irudiarengandik banatzean, banatzeak eragindako antsietatea izango du. Hau, erantzun emozional bat da, eta haurrak larritasuna sentitzen du lotura duen pertsonarengandik (oro har ama) fisikoki banatzean. Hau, haurren garapenaren fenomeno normala, espero daitekeena eta nahitaezkoa da, eta 6 edo 8 hilabete inguruan hasten da adierazten. Banantzearen ondoriozko antsietateak aukera ematen dio haurrari bakarka egoteko gaitasuna pixkanaka garatzeko. Haurrak duen atxikimendu-figurak aktiboki eta nahitaez laguntzen dio prozesu horri (Pacheco eta Ventura, 2009).

Banatze hori ez bada era egokian egiten, banantzeak eragindako antsietate-nahasmendua agertu daiteke. Hau adierazpen psikopatologiko bat da, eta haurra bakarrik geratzeko eta egoteko gai ez izatea du ezaugarri. Kasu honetan, haurra ez da gai beretzat emozionalki esanguratsua den pertsonarengandik behar bezala banatzeko. Banantzeak eragindako antsietate-nahasmenduaren larritasuna ez da larritasun normatiboa. Zaila izan daiteke banantzeak eragindako antsietate-nahasmendu baten diagnostiko klinikoa egitea, askotan ez baita erraza izaten arauzko formak eta banantzeak eragindako antsietatearen forma patologikoak bereiztea (Pacheco eta Ventura, 2009).

Atxikimendu-jokabidea elkarrekintzan oinarritutako prozesua denez, prozesu hori beste zaintzaile bati transferi dakioke, behar bezala egiten bada (Muñiz, 2007).

Kartzelaren kasuan, ama eta haurraren arteko banaketa traumatikoa izan daiteke, eta honek epe luzean bere garapenean nahasmenduak ekar ditzake (Jiménez eta Palacios, 1998). Polo eta Alvarez Vasilef-en artikulua arabera, espetxeetan amekin bizi diren haurrekin lotutako neurriak birplanteatzeko beharra justifikatzen da; izan ere, hiru urte bete arte bakarrik daudenez, ama/semi-alaben arteko lotura berehala eta zorrotz hausten da, eta horrek eragin zuzena du haurraren garapen sozio-afektiboan. Aldi baterako edo behin betiko bereizketa horien eragina, Garelli eta Montuoriren arabera (1997 IN Polo eta Alvarez Vasilef, 2018), bi terminotan adierazten da, epe laburrera, hau da, berehala; edo epe luzera, hau da, etorkizuneko ondorioetan. Epe laburrean, haurrek kanpoko munduarekin duten esperientzian aldaketak ikusten dira. Garellik eta Montuorik (1997 IN Polo eta Alvarez Vasilef, 2018) adierazi dute hiru faseko sekuentzia bat dagoela amak modu eksklusiboan hazitako

haurren jokabideetan, eta lehen aldiz denbora-tarte jakin batez bereizi behar direla, denbora-tarte hori mugagabea izan baitaiteke; hiru fase horiek honako hauek dira: protesta-fasea, etsipen-fasea eta desatxikitze-fasea. Epe luzera, berriz, amaren eta seme-alaben arteko lotura haustea nahasmendu emozionalak eragiten ditu, eta horrek nortasunaren funtzionamendua asaldatzen du.

Normalean amarekiko atxikimendua berezia izateaz gain, zer esanik ez dago espetxean bizi diren hurrei buruz hitz egiterakoan. Ama izaten da haur hauentzako atxikimendu irudi ia bakarra, hiru urte osoz 24 ordu ematen baitute haiekin. Honexegatik, amaren faltak ezinegona eta ziurtasun falta eragiten dizkio umeari, bera baita segurtasuna, oreka eta lasaitasuna ematen dizkiona (Sare Elkarte, 2017).

Nabarmendu behar da, espetxearen kasu partikularrean, hurrek aukera dutela beren familiako beste kide batzuekin harremanak izateko denbora-tarte laburretan; hala ere, beren oinarritzko premiak etengabe ordezkatzeko dituztenak, jasaten duten espetxe-egoeraren ondorioz, amak dira. Beraz, haurra espetxetik erretiratzen dutenean eta amarengandik urruntzen dutenean, ez ditu ondorio onuragarriak izango bere nortasunaren eta pertsonen arteko harremanen garapenean (Polo eta Alvarez Vasilef, 2018).

Hiru urte bete ondoren, hurrek espetxea utzi eta amarengandik urrundu behar dute. Aldaketa horrek ondorio negatiboak ditu, amaren zaintza behar baitute. Banantzea prozesu gogorra eta zaila izaten da bai adingabearentzat bai amarentzat, lotura afektibo garrantzitsua ezartzen delako Hasiera batean, banaketa hori pixkanaka egitea lortu nahi da, beren ardurapean geratuko diren senitartekoekin kanpora irteten laguntzeko eta espetxean amarekin ematen duten denbora murrizteko (Gea, 2017). Haurarentzako aldaketa oso handia izaten da, eta nahiz eta kalean dagoen lagun eta senideen babesa handia izan, haurrak hutsune handia izango du, nahiz eta kartzela barruan gabeziak izan, askoz handiagoa baita behin aterata izaten duten gabezia, hau da, haien amarena (Sare Elkarte, 2017).

Baina, emakume presoek profil nagusia kontuan hartuta, egoera hori ez da ohikoena; izan ere, familia bertan behera uztea, joan-etorriei aurre egiteko baliabide ekonomikorik ez izatea edo beste herrialde batean egotea (atzerriko presoak) bat-bateko banaketa izan daiteke. Haurra lagun edo senide ezagunen (aukerarik onena) zaintzapean badago, leundu egin daiteke, edo baita aldi baterako harrera-etxe baten bidez ere, haiek ezagutzen eta joan-etorriak egiten behin betiko banaketa gertatu aurretik (Gea, 2017).

1.1.2. EGOKITZAPENA

Haurra jaiotzen denean ezagutzen duen lehen harreman sarea familia izan ohi da eta etxea izaten da bere lehen ingurune segurua, babeslekua. Egokitzapena haur bakoitzak haien

etxeko/familiako girotik era positiboan aldentzeko eta eskolan edota beste espazio batean sartzeko behar duen prozesua da. Ikuspegi emozionaletik familiarengandik aldentzeak dakarren galera eta irabazia onartzeko denbora da (Lopez, 2009).

12/2009 Dekretuak dion bezala, haurra pixkanaka sartuko da eskolara lehenengo aldian, egokitze aldia izango du. Honen xedea etxeko giroaren eta eskolaren giroaren artean jarraikotasuna izan dezan laguntzea da, haurra eskolara pixkanaka egokitzeko aukera emanaz. Prozesu honetan kontuan hartu behar dira haur bakoitzaren egoerak, baita aurretik bizitako esperientziak ere.

Egokitzapenaz hitz egiterakoan, alde guztientzako berria den egoera batez hitz egiten ari gara. Haurraren egunerokotasuneko pertsonak eta egunerokotasun berrian parte hartuko dutenek, elkarrekin egin beharko dute lan, zailtasun ugari aurkituko dutelako. Lopezek (2009) esaten duenaren arabera, bereziki haurrarentzat izango da aldaketa egoera bat, eta denbora edota espazioaren egituraketa faltagatik umeak abandonatuak direla sentitu dezakete. Haurrak eskolaratzeak ordutegi ezberdinetara egokitzea ekarriko du, baita espazio berri, material berri edota pertsona berrietara egokitzea ere. Maite dituzten pertsonengandik banaketa bat sufrituko dute, nahiz eta galera ez izan. Honez gain, oinarrizko bizikidetzaren trebetasunak aplikatuko dituzte eskolan hau ahalik eta ondoen bideratzeko: arauak jarraitu, errutinak ikasi, itxaroten ikasi...

Aldaketa hau gauzatzean, haurrak erritmo ezberdinak bizi beharko ditu. Maila somatikoan haurraren loan eta elikaduran asaldurak ekar ditzake; digestio nahasketak edo enuresia, besteak beste. Maila afektiboan, banaketaren aurrean antsietatea, jeloskortasuna, inbidia, edo agresibitatea erakutsi ditzake. Elkarrekintza sozialean, hainbat zailtasun aurkitu daitezke haurrengan. Lehenik, etsitutakoak, hau da, ez dute negarrik egiten, soilik gurasoen aginduak bete. Jarraituz, samindura fasean daudenak, laguntzarik nahi ez eta negar egiten dutenak. Eta azkenik, objektu bat tinko oratzen dutenak horren bidez segurtasuna sentitzeko (Lopez, 2009).

Haurraren egokitzapena ahalik eta egokien gauzatzeko, esan bezala, honen egunerokoaren eta espazio berrian egongo diren pertsonen arteko elkarlana garrantzitsua da. Horregatik, eskolaz hitz egiterako orduan, gurasoek, beldurra, antsietatea edota zalantzak erakutsi ditzakete, beraz, irakaslearekiko konfiantza eta honen antolakuntza eta jarraipena ezinbestekoak dira helburuak lortzeko. Elkarlana eta inplikazioa dira hitz gakoak (Palacios eta Paniagua, 1994).

Nahiz eta azken urteetan sistema pixka bat aldatu den, elkarlana guztiz artikulatzeko bideak zehazteke daude. Familia eta eskola hainbat puntutan ados daude, esaterako Haur Hezkuntzaren lehen helburua haurraren sozializazioa estimulatzea dela edota irudimena eta

sormena lantzea balore garrantzitsuak direla. Haur Hezkuntzan, hezitzaileek gurasoek baino garrantzi handiagoa ematen diote garapen motorrari eta gutxiago irakurmen-idazmen ikasketari. Maila sozio-ekonomiko baxuko familien kasuan eskolarekiko adostasuna txikiagoa da (Palacios eta Paniagua, 1994).

Sozializazioa

Sozializazioa kultura eskuratzeko prozesua da. Braldrigek hauxe dio: gizarteak sortzen du gizabanakoa, eratu eta moldatu egiten du, eta, aldi berean, bere banakoak sortu. Sozializazioaren bitartez, kultura bereganatzen da, kultura nortasunean integratzen da eta ingurune sozialera egokitzen da. "Gizakiak, bere bizitzan zehar, bere ingurumeneko elementu soziokulturalak ikasten eta barneratzen dituen prozesu gisa, bere nortasunaren egituran txertatzen ditu, esperientzia eta gizarte-eragile esanguratsuen eraginpean, eta gizarte-ingurune horretara egokitzen da" (Marín, 1986: 358).

Linguído eta Zorraindoren (1981) arabera, sozializazioa 1. Badirudi haurren adierazpen intelektual, emozional eta sozialak elkarrekin lotuta daudela, eta ezinezkoa litzateke adierazpen bat osorik ulertzea bestea kontuan hartu gabe.

Marínen (1986) lana oinarritzat hartuz, Piageten sozializazio etapak aztertuko ditugu, haur hezkuntzako adinean (0-6 urte). Hasieran egozentrismoa dugu, gero helduen imitazioa dator, eta berarekin harremanen hasiera, berdinen arteko lankidetzan amaitzeko. Ajuriaguerrak, garapenaren faseak aztertuz, Piagetek planteatutakoa lau alditan banatzera eraman zuen, haien artean bi haur hezkuntza aldikoak, afektibitatearen eta sozializazioaren garapenarekin estuki lotuta (Marín, 1986). Bi urte bete arte adimen sentsomotorra dago (norbera da ardatza), eta sei urte arteko epean berriz, prestaketa aldia dago (norberaren ikuspuntua da nagusi eta hizkuntza aurrera egiteko tresna). Emilio Durkheimek dio gizabanakoaren sozializazioa hezkuntzaren esparruan gertatzen dela eta nagusiek haurrei ematen dietela (Díaz Barón, 1988). Bestalde, Berger eta Luckman soziologo alemaniarrek sozializazio-prozesua kokatzen dute "gizabanakoa ez da gizarte bateko kide jaiotzen: sozializatzeko joera batekin jaiotzen da, eta gero gizarte bateko kide izatera iristen da. Gizabanako ororen bizitzan, beraz, badago benetan denbora-sekuentzia bat, zeinaren bidez gizabanakoa gizartearen dialektikan parte hartzera bultzatzen duen " (Berger eta Luckman, 1983 IN Díaz Barón, 1988:15-16).

Ikuspegi errealista ez litzateke egokia izango munduaren haurren kontzepturako, haurra ez baita gai ezagutzaren elementu asko integratzeko. Beraz, errealitatearen hurbilketa bere egitura osoaren arabera bideratu behar da, eta ez helduaren ikuspuntutik (Linguído eta Zorraindo, 1981).

Simkin eta Becerraren (2013) lanari jarraituz, sozializazio-eragileak aztertuko ditugu:

- Familia da eragile sozializatzaile nagusia egile askoren ustez (Grusec eta Hastings, 2007 IN Skimkin eta Becerra, 2013). Izan ere, gurasoek eta seme-alabek sistema biopsiko-sozial gisa funtzionatzen dute, eta haren helburua da familia bat eratzeko gizarte-eskaerei erantzutea, beste batzuekin erlazionatzeko giza premia dela eta. Gurasoen kasuan, seme-alabak babestu, elikatu eta afektatu egin behar dira. Ildo horretan, ikusten da gizarte gehienetan gurasoak formalki (legearen arabera) sozializazio-prozesuari esleituta daudela. Garrantzitsua da azpimarratzea familia-jarduerek kulturaren dauden eta eskuragarri dauden balioak islatzen eta transmititzen dituztela. Gurasoak ez dira "hutsetik" hazteko praktikak sortzera mugatzen; aitzitik, beren sozializazio-esperientzietatik abiatuta, "Guraso izatearen" rol soziala errepikatzen dute.
- Parekoen-taldea, Wolfen arabera, kategoria sozial komunak eta elkarrekintza-eremu jakin batzuk partekatzen dituen gizabanakoen multzo bat da. Horrela, haurtzaroan, parekoen taldeak batez ere ikaskideez osatzen dira. Parekoen taldeko sozializazioa eskolan izaten bada ere, maila sozioekonomikoaren arabera, haurrek denboraren zati handi bat auzoko kaleetan edo beste eremu publiko batzuetan inbertitu ohi dute, hala nola plazetan (De grande, 2013 IN Skimkin eta Becerra, 2013), bai eta beste alderdi batzuetan sozializatzen diharduten erakundeetan ere (elizak, merkataritza-zentroak, etab.). Arnetten arabera, espero da, sozializazio "estu" baten esparruan, parekoen taldeek murrizketa handiagoa izatea taldeko kideen hautaketan, adibidez, generoaren, klase sozialaren edo talde etnikoaren arabera (Skimkin eta Becerra, 2013).
- Eskola da hirugarren sozializazio-eragilea. Nahiz eta Hezkuntzaren ezaugarri bereziak eta eragin-maila aldatu egin daitezkeen gizarte eta kultura bakoitzaren arabera (Arnett, 1995 IN Skimkin eta Becerra, 2013). Sozializazio "estu" baten esparruan, ikasleek presio handiagoa dute irakasleei obeditzeko eta estandar akademikoekin bat etortzeko. Sozializazio "zabala" duten kulturetan, jokabide indibidualistak sustatzen dituzte, eta arreta handiagoa jartzen dute ikasle bakoitzaren garapenean, klasea osotasun gisa pentsatu beharrean. Hezkuntza-sistemaren helburua curriculum-edukietan oinarritutako prestakuntza akademikoa eta gizarte-ezagutzaren ikaskuntzari dagozkion eduki informalak bereganatzea da (Wentzel eta Looney, 2007 IN Skimkin eta Becerra, 2013). Adibidez, eskolan behar bezala jarduteko, trebetasun espezifikoak eskuratu behar dira, hala nola norberaren helburuak besteekin koordinatzeko gaitasuna, portaera arautzea besteekin elkarbitzeko, eta abar. Gainera, irakasleekiko tratua familiarekiko edo

parekoekiko tratua baino urrunagoa da. Eskolak honako helburu hauek ditu: erantzukizuna hartzeko eta taldeko helburuetara egokitzeko behar diren trebetasunak ikasten laguntzea, parekoekin modu kooperatibo eta pro-sozialean jokatzeko, aldi baterako lan-rolean jarduteko interesekoak diren arloetan akademikoki garatzea eta herritarren jardunerako sozialki espero diren zenbait balio eskuratzea.

- Azkenik, komunikabideak ere sozializazio-eragiletzat hartzen dira. Hemen, telebista eta Internet nabarmentzen dira.

Lehen Hezkuntzara egokitzeko, gaitasun intelektuala ez ezik, nortasunaren heldutasun-baldintzak ere behar dira. Horiek haurraren eguneroko esperientziaren araberakoak dira. Zaila da elkarrekin bizitzeko, jolasteko, errieta egiteko, lehiatzeko, ados jartzeko eta bere adineko beste batzuekin lankidetzan aritzeko aukerarik izan ez duenak berehala izatea. Ohikoagoa da haur horrek antsietatea sentitzea, edo beste guztiengandik arreta berezia itxarotea, etxean hartzen ohituta badago eta horregatik eskolara ondo egokitzen ez bada (Linguído eta Zorraindo, 1981).

1.2. ALDAKETA BATEN OSTEAN: DOLUA

Dolu hitza latinezko *dolus* hitzetik dator, mina esan nahi duena. Mina, galera edo banaketa bat gertatzean sortzen den ohiko erantzun gisa ulertuko dugu hau (Santamaría, 2013).

Dolua galera afektibo bati lotutako irudikapen mentalen eta jokabideen multzo gisa defini daiteke, zeinaren helburua galeraren errealitatea onartzea eta ingurune berrira egokitzea den. Umearen kasuan, dolua egiteko prozesua garapenaren eboluzio-etapak, izaerak, gizarte-inguruneak eta bereziki inguruan dituen helduen jarrerak zehaztuko dute. Helduengan baino aldizkakotasun handiagoan izaten da eta maiz hazkuntza aldi berean berpizten da galera hau, bereziki bizitzako momentu garrantzitsuetan (de Hoyos, 2015).

Bizitzan zehar gizakiak aldaketa edo galera ugari izaten ditu. Horietako bakoitzak intentsitate handiagoko edo txikiagoko mina darama hari lotuta. Horregatik, esan dezakegu dolu mota asko daudela, galera esanguratsuei erreferentzia egiten dietenak, hala nola; haurtzaroko dolu ebolutiboak, pubertaroa, nerabezaroa, emantzipazioa, etab. (Santamaría, 2013)

Dolu afektiboak dira banantzeetan, dibortzioetan, mespretxuetan eta abarretan sortutakoak. Haurrengan mina eragiteagatik bereizten dira, eta batzuetan, oso zaila izaten da horiek lantzea. Gizarte-doluak, aldiz, bakartzea edo taldetik baztertzea dira. Haurrarentzat garrantzi handikoak dira, min handia eragiten baitute eta autoestimua galtzea, eta amorrua

eta beldurra agertzea dakarte, beste emozio batzuen artean. Azkenik, dolu pertsonalak ditugu: gaixotasunak edo deserrotzeak; etorkinaren doluek, adibidez, segurtasun falta eta beldur handia sortzen dute (Santamaría, 2013).

1.3.0-3 URTEKO HAURRAK KARTZELAN

1.3.1. KARTZELA

Kartzela hitza entzuten dugunean ideia bat etortzen zaigu burura, normalean barruan daudenekiko aurreiritziz betetakoa. Hari horri jarraituz, kondenatutako pertsonak zigortzeko instituzio bat dela jakin badakigu, eta teorian pertsona horiek birgizarteratzea du helburu, behintzat legeak hori esaten du: "Lege honetan araututa dauden espetxeetako zuzendaritza nagusiek espetxeratuen bereizketa eta birgizarteratzea dute helburu. Baita espetxeratuen, atxilotuen eta presoek atxikitzea eta zainketa ere. Era berean, haien eskumena da espetxeratuei laguntza-asistentziala ematea ere" (1/1979 Lege organikoa).

Espainar estatuko Barne ministeritzak egindako txostenak (2010) Espainar estatuko espetxearen funtzionamendua azaltzen du pausoz pauso. Azalpen hau da legeak dioena, baina kontuan izan behar da kartzela barruan dagoen pertsonak ezberdin ikusten eta azaltzen dutela haren egoera (Secretaría General de Instituciones Penitenciarias, 2010).

Kartzelaren antolamendua

Espetxe bakoitza ezberdina da, baina guztiak daude moduluka antolatuta. Modulu bakoitzak bere zeldak ditu, eta normalean, patioa, ekonomatoa (kartzela barruko supermerkatu txikia), gimnasioa, ileapaindegia, tailerra, liburutegia, jantokia, mediku kontsulta eta hezitzaile, gizarte langile eta psikologoekin erabiltzeko gela bat egoten dira (Secretaría General de Instituciones Penitenciarias, 2010).

Antolaketarekin jarraituz, preso guztiek erabiltzen duten eta modulutik kanpo dagoen erizaindegia eta gune soziokulturala daude. Azken honetan, gimnasioa, eskola, liburutegia, aretoa eta erlijio ezberdinentzako erabilpena duen eliza daude. Espetxe batzuetan igerilekua ere aurki daiteke, nahiz eta erabilera arau eta tarteak oso zorrotzak izan (Secretaría General de Instituciones Penitenciarias, 2010).

Bisitak eta aurrez-aurrekoak egiteko eraikin bat dago, mintzatoki eta gela ezberdinekin. Horrez gain, arropa garbitegia, ekonomato zentrala, sukaldea, okindegia, mantentze-laneko biltegia eta administrazio bulegoak daude. Presoek aipatutako guneetako batzuetan lan egiteko aukera izaten dute. Hala ere, kartzelan dagoen edota egondako pertsonekin hitz egin eta gero, jakin izan dugu produkzioarako lan tailerren soldata oso baxua dela (Secretaría General de Instituciones Penitenciarias, 2010).

Kartzelara sartzea

Pertsona bat kartzelara sartzen denean, Onarpena ("ingresos") deitutako modulu batera joango da. Sartu bezain laster doako dei batekin bere familiari edo abokatuari abisatu ahalko die. Ostean, barneratutakoaren miatze prozesua gauzatuko da, hark daramatzen objektu guztien araketa eginez. Onartuta dauden objektuak presoarekin sartuko dira, eta onartu gabeak jasotze-agiri batean apuntatuko dira, preso ateratzen denean edo familia bera bisitatzera doanean eraman ahal izateko. Honen ostean, medikuarenetik pasatu beharko da presoaren osasun egoera zein den ezagutzeko, jakiteko zein egoeratan sartzen den espetxera. Azkenik talde teknikoarekin elkartuko da elkarrizketa batzuk egiteko (gizarte-langilea, psikologoak, hezitzailea, legelaria...). Elkarrizketa hauen ostean, erabakiko da preso zein modulutan bizi beharko den. Erabaki hau hartu bitartean, preso sartu berri den pertsonak gehienez bost egun pasako ditu Onarpeneko moduluko ziega batean (Secretaría General de Instituciones Penitenciarias, 2010).

Graduka antolatuta

Preso dagoen pertsona bakoitza gradu batean egongo da kokatuta, eta horren arabera bere bizitzeko baldintzak ezberdinak izango dira.

| 1.gradua. Lehenengo eta bigarren fasea daude. | 2. gradua. Erregimen arrunteko moduluetan egongo dira. | 3. gradua. Erregimen irekiko espazioetan egongo dira. |
|--|--|--|
| -Lehenengo fasea. Erregimen bereziko moduluetan egongo dira kokatuta. Espetxean baldintza zorrotzenak pairatzen dituzten presoak gradu honetan egongo dira, eta patiora hiru ordu bakarrik ateratzeaz gain, haiek bakarrik edo beste batekin atera beharko dira. Ziegetan bakarrik biziko dira (RP, ART 91.3 eta RP, ART 93). - Bigarren fasea. Erregimen itxiko moduluetan egongo dira kokatuta. Patiora joateko lau orduko minimoa daukate, gutxienez beste bost presorekin aterako dira. Nahiz eta lehenengo fasean daudenak baino erregimen malguagoa izan, gainontzeko presoak baino baldintza zorrotzagoak izango dituzte. Ziegetan haien bakarrik biziko dira (RP, ART 91.2 eta RP, ART 94). | -Bertako preso orok moduluko prestazio guztiak erabiltzeko baimena izango du (tailerra, gimnasioa...), baina zuzendaritzak jartzen duen ordutegira egokituko dira. Espetxearentzat lan egin ahalko dute, onurak jasoz horren truke. Jarduera ezberdinetan parte hartzeko aukera izango dute, zuzendaritzak proposatutakoak, edota hauek onartuz gero, presoek eskatutakoak izango direnak (RP, ART 76-79). -Gradu honetan soldatapeko lan bat eska ditzakete presoek, onartua izan behar dena, baita kalera ateratzeko baimenak ere (Preso bati eta preso ohi bati egindako elkarrizketatik aterata). | -Preso hauek, kartzelaren esanetan, haien bizitza sasi-askatasunean egiteko kapazak direnak izango dira. Gradu hau lortzeko, haien kondena bost urtetik gorakoa bada, erdia beteta izan beharko dute, lege organikoak esaten duen moduan (5/2010, ekainaren 22a). Gradu honetan kalera ateratzeko baimenak izango dituzte, espetxeak haien jokabideak zuzenak direla erabakitzen badu. Honez gain, kasuaren arabera, gradu honetan dauden preso batzuk bakarrik lo egitera bueltatu beharko dira kartzelara, kanpoan haien bizitza egin dezakete: lana, ikasketak... -Gradu hau kartzelara inola ere joateko aukerarekin bete daiteke, baldintzapeko askatasunean geratzen zaien kondena betez. |

3. graduan kondena betetzeko hainbat espazio daude:

- ISZ (integrazio sozialeko zentroa): zentro hauetan sistema progresibo bat aplikatzen da. Presoa heltzen denean, ez dauka kalera ateratzeko aukerarik; baina, pixkanaka erregimen irekira helduko da, non zentroak honen ekintzen jarraipena egingo duen, baina egun osoan ez da ISZan egon beharko.
- Atal irekia: Kartzela barruan dauden moduluak dira, bertan 3. graduan dauden pertsonak egongo dira bakarrik.
- Menpeko unitateak: Kartzelatik kanpo dauden unitateak dira. Egunerokotasuneko pisuak dira hauek, entitate pribatuek gestionatutakoak. Normalean preso dauden amak haien seme-alabekin bizitzeko, HIESa duten presoentzako, edota Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitatean ikasten duten presoentzako erabiltzen dira etxebizitza hauek.
- Kartzelaz kanpoko unitateak: 3. graduan dauden eta droga-menpekotasuna izan duten presoen mendekotasuna gainditzeko pentsatutako unitateak dira hauek.

Eskubideak eta betebeharrak

Presoak hurrengo eskubide eta betebeharrak dauzka:

| ESKUBIDEAK | BETEBEHARRAK |
|---|--|
| Espetxe administrazioak bere bizitza, osasun eta segurtasunagatik beila dezan eta eguneratutako haien egoeraren informazioa izatea. | Espetxeen zuzendaritza nagusiak ezarritako espazioan egotea haren askatasunera arte. |
| Espetxeen neurrietatik irten gabe, bere duintasuna eta intimitatea gordetzea eta espetxe-tratamendu egokia jasotzea. | Zentroko arau eta aginduak betetzea. |
| Bere kondena eta atxiloketaren arrazoiekin bateraezinak ez diren eskubide zibil, sozial, politiko, ekonomiko eta kulturalak betetzea. | Elkarbizitza egokia izatea. |
| Dagozkion laguntza publikoak jasotzea eta espetxe onurak jasotzea. | Espetxeko materiala eta espetxea bera zaindu eta errespetatzea. |
| Legearen eta espetxeak jartzen dituen arauen barruan, kanpokoekiko harremanak izatea. | Higiene eta garbiketa pertsonala izatea. |
| Espetxearen jardueretan parte-hartzea eta ahal den heinean, ordaindutako lanak egin ahal izatea. | Espetxeak agindutako prestazio pertsonalak egitea, hau garbi mantent dadin. |
| Kexa eta eskaerak egitea dagozkien autoritateei. | Lan aktibitate, ludiko eta formatiboetan parte hartzea. |

(Secretaría General de Instituciones Penitenciarias, 2010).

Kanpokoekiko harremanak

Legediak esaten duenaren arabera, presoak aldizka kanpokoekin komunikatzeko eskubidea dauka ahoz eta idatziz, bere hizkuntzan, familia, lagun eta autoritateekin.

Komunikazioek eta bisitek ere haien arauak dituzte. Komunikazioak mintzatokietan egingo dira, 20 minutuko bi edo pilatutako 40 minutuko bat izango da, gehienez 4 bisitari sartu ahalko dira. Mintzatokiek kristal bat daukate, presoak eta bisitariak banatzen dituenak. Abokatu eta prokuradoreekin bisitak mintzatoki berezietan egingo dira eta espetxe bakoitzak duen ordutegiaren barruan nahi beste denbora egon daitezke. Preso atzerritarrei dagokienez, haien herrialdeko ordezkari kontsular edo diplomatikoekin ere mintzatoki berezietan egongo dira (Secretaría General de Instituciones Penitenciarias, 2010).

Aurrez-aurreko komunikazio familiarrei dagokienez, hilabetean behin egin ahalko dira, eta ordubeteko eta hiru ordu arteko iraupena izango dute. Hauek familia edota gertukoek egin ahalko dituzte. Gela batean egingo dira, kristalik gabe, eta intimitatearekin. Berdina gertatzen da aurrez-aurreko intimoekin ("vis a vis"), baina gelan ohe bat egongo da eta bikotearekin bakarrik egin ahalko ditu topaketa hauek (Secretaría General de Instituciones Penitenciarias, 2010).

Elkarbizitzako bisitak bikote eta gehienez hamar urteko seme-alabekin (gehienez bost ume) egin ahal izango da. Beste senideekin konpartituko den espazio batean egingo da bisita hau, eta hiru eta sei ordu bitarteko iraupena izango du. Hiru-hilabetean behin egin ahal izango dituzte horrelako bisitak (Secretaría General de Instituciones Penitenciarias, 2010).

Telefono bidezko deiak gehienez hamar izango dira aste bakoitzean, bost minutuko iraupenekoak. Preso bakoitzak hamar pertsona izango ditu onartuta zerrenda digital batean, lehenago zuzendaritzari haien izen-abizenak, telefono zenbakiaren titularitatea eta ahaidetasuna zein den komunikatuko dio. Presoak ordaindu beharko du dei bakoitza. Komunikatzeko gutunak ere badaude. Nahi beste bidali ahalko dira, komunikazioak kontu-hartuta dituzten presoek izan ezik, hauek astean bi bakarrik bidali ahalko baititu (Secretaría General de Instituciones Penitenciarias, 2010).

Azkenik, kanpokoekiko harremanarekin eta presoaren beharrekin loturik dagoena dator, paketea. Hilabetean bi pakete jaso ahalko ditu presoak, eta hauek tokatzen zaien asteburuan sartu ahalko ditu komunikatzera doan pertsonak. Honetan arropa, liburuak edota espetxean onartuta dagoen edozein objektu sartu ahalko dute, esaterako: belarritakoak, higienarako produktuak, boligrafoak, papera, dirua, etab. Dirua ez da diru formatoan onartuko, kartzelako haien kontu pertsonalean sartuko diote, ekonomatoan erosi dezan. Ez dira kartzelan onartuak izango metalezko tresnak, balio handiko objektuak (erloju garestiak, bitxiak...) edota segurtasun arauak onartzen ez dituzten objektuak (Preso bati eta preso ohi

bati egindako elkarrizketatik aterata) (Secretaría General de Instituciones Penitenciarias, 2010).

1.3.2. EMAKUMEAK ETA KARTZELA

Emakumea kartzela barruan dagoenean, esan daiteke ez duela soilik askatasun galera edota gatibu egotearen zigorra pairatzen. Emakumea preso dagoenean zigor anizkoitza jasaten du.

Hainbat arrazoik ezinbestekoa egiten dute giltzapeko emakumeen egoera aztergai izatea. Batetik, kartzelatutako emakumeen egoeren inguruko ezjakintasuna gainditu behar dugu. Emakume presoak nahiko ezezagunak dira jendartearen zati handi batentzat. Bestetik, emakume atxiloiei buruz aurreiritzi ezegokiak eta irudi negatiboak gainditzeko berehalako beharra dago (Ruiz Torrado, 2016).

Gaur egun, legeak berberak dira gizonentzat eta emakumeentzat, aldiz, teorikoki balizko berdintasuna dagoen arren, nabaria da praktikan ezberdintasun eta desoreka nabarmenak gertatzen direla. Besteak beste, genero-eredu hegemonikoak direla eta arau haustek ez dira berdin antzematen edota ulertzen. Oraindik ere, jokaeren inguruko estereotipoen eragina eta delituaren ideia androzentrikoa dira nagusi.

Datuak begiratzuz gero, ikus dezakegu Espainiar Estatuak, Europako kopuru altuenetarikoa duela preso dauden emakume kantitateaz hitz egiterakoan (Ruiz Torrado, 2016).

Emakume presoak Europar Batasunean Espainiarekin alderatuta (gizonak eta emakumeak desberdinduz). 2015eko uztaila. Iturria: egileak egina, oinarria Walmsley (2015) (IN Ruiz Torrado, 2016)

| Herrialdea | % |
|----------------------------------|----------|
| Espainia | 7,7 |
| <i>Emakumeak</i> | 7,73 |
| <i>Gizonak</i> | 92,27 |
| Europar batasuneko batz bestekoa | 5,4 |

Hego Euskal Herriari dagokionez, preso totalaren %10,59 dira emakumezkoak; erkidegoka begiratuta: %11,01 Euskal Autonomia Erkidegoan eta %8,96 Nafarroan (Ruiz Torrado, 2016).

Presoak Hego Euskal Herrian (emakumeak eta gizonak desberdinduz). 2015eko uztaila. Iturria: egileak egina, oinarria Espetxe Erakundeen datuak (Ruiz Torrado, 2016).

| Presoak | Zenbatekoa (%) | | |
|-----------|----------------|-------------|--------------------|
| | EAE | Nafarroa | Hego Euskal Herria |
| Emakumeak | 146 (11,01) | 31 (8,96) | 180 (10,59) |
| Gizonak | 1204 (88,99) | 315 (91,04) | 1519 (89,41) |
| GUZTIRA | 1353 (100) | 346 (100) | 1699 (100) |

Azken urteotan, Hego Euskal Herriko batez bestekoak igotzeko joera izan du, EAEn bereziki, Nafarroan ez delako igoera nabaririk izan. Batez besteko hau Espainiar Estatukoa baino altuagoa da (Ruiz Torrado, 2016).

Presoak Hego Euskal Herrian azken urteetan. 2015eko uztaila. Iturria: egileak egina, oinarria Espetxe Erakundeen datuak (Ruiz Torrado, 2016)

| Urtea | Presoak | Zenbatekoa (%) | | | | | |
|-------|-----------|----------------|-------------|-------------|--------------|-------------|--------------|
| | | Araba | Bizkaia | Gipuzkoa | EAE | Nafarroa | Hego EH |
| 2011 | Emakumeak | 90 (12,36) | 16 (4,46) | 29 (8,19) | 135 (9,37) | 21 (8,37) | 156 (9,22) |
| | Gizonak | 638 (87,67) | 343 (95,54) | 325 (91,81) | 1306 (90,63) | 230 (91,63) | 1536 (90,78) |
| | GUZTIRA | 728 (100) | 359 (100) | 354 (100) | 1441 (100) | 251 (100) | 1692 (100) |
| 2012 | Emakumeak | 90 (12,40) | 13 (3,89) | 29 (8,43) | 132 (9,40) | 29 (9,15) | 161 (9,36) |
| | Gizonak | 636 (87,60) | 321 (96,11) | 315 (91,57) | 1272 (90,60) | 288 (90,85) | 1560 (90,64) |
| | GUZTIRA | 726 (100) | 334 (100) | 344 (100) | 1404 (100) | 317 (100) | 1721 (100) |
| 2013 | Emakumeak | 114 (16,31) | 14 (3,97) | 36 (11,08) | 164 (11,91) | 23 (7,35) | 187 (11,07) |
| | Gizonak | 585 (83,69) | 339 (96,03) | 289 (88,92) | 1213 (88,09) | 290 (92,65) | 1503 (88,93) |
| | GUZTIRA | 699 (100) | 353 (100) | 325 (100) | 1377 (100) | 313 (100) | 1690 (100) |
| 2014 | Emakumeak | 112 (16,12) | 16 (4,91) | 30 (9,23) | 158 (11,74) | 23 (6,78) | 181 (10,74) |
| | Gizonak | 583 (83,88) | 310 (95,09) | 295 (90,77) | 1188 (88,26) | 316 (93,22) | 1504 (89,26) |
| | GUZTIRA | 695 (100) | 326 (100) | 325 (100) | 1346 (100) | 339 (100) | 1685 (100) |

Espetxeak edo atxilo-guneak, XVII-XVIII. mendean sortu ziren emakumea kontuan hartu gabe, mendeetan zehar jasaten ari garen ikuspuntu patriarkaletatik eraikitako ereduak

sostengatuz. Nahiz eta espetxeak eraldatuz joan diren, daukagun sistema patriarkalak jarraitzen du emakume presoak gizonek jasaten ez duten eremu ezberdinetatik zigortzen (Euskal Herriko Bilgune Feminista, 2017).

Ezagutzen dugun espetxe eredura heldu baino lehen, emakumeentzako atxilo-guneak sortu ziren, baina horiek ez zuten delitua zigortzen, bekatua baizik, "emakume damutuak" bilatuz, bekatari ziren emakumeak berreskuratzea eta salbatzea zuten helburu. Giltzapeko zigorra betetzeko instituzio hauek, orientazio moralizatzailea zuten, eta emakumeen izate "biziataua" zuzentzea zuten helburu, konturaraziz bere jarrera kontziente hori ez zela zuzena. Delituaz hitz egiterakoan, ordea, kontzientziarik gabeko jarrerentzat diseinatu zen, gizonengan soilik pentsatuz. Estatu espainoleko 1978ko espetxe erreformara arte, adulterioa, prostituzioa edo abortua delitu femeninotzat hartzen ziren (Euskal Herriko Bilgune Feminista, 2017).

Preso dauden emakumeen bizitokiak ez dira haiengan pentsatuz eraikiak izan. Hiru kasu aurki ditzakegu. Lehenik, gizonezkoentzako espetheen barruan kokatutako modulu txiki, departamentu edota unitate batean daude, esaterako Martutenen (Donostia; lehen adin txikiko gizonezkoentzako modulua zena) edota Iruñan (espetxe arrunta). Bigarrenik, gizonezkoentzako "makro-kartzela" barruan dagoen emakumezkoentzako kartzela txiki batean egon daitezke, esaterako, Soto del Real (Madril V) edo Topas (Salamanca). Hirugarrenik eta azkenik, bakarrik emakumezkoentzat diren, baina gizonezkoentzat eraiki ziren kartzeletan egon daitezke, esaterako, Alcalá de Guadaira (Sevilla), Brieva (Ávila) eta Alcalá Meco (Madril I) (Sare Elkarte, 2018).

Horretaz gain, emakume presoak unitate familiarretan ere egon daitezke, horietan, bikotekide (hau preso egonez gero) eta 3 urte baino gutxiago duten seme-alabekin bizi dira. Horrelakoetan egon ahal izateko baldintzak oso zorrotzak dira, eta oso leku gutxi dago, beraz, zaila da bertan egotea. Hau, soilik Aranjuezen (Madrid VI) dagoen unitate bat da. Bestalde, haurrekin baina bikoterik gabeko amen moduluan ere bizi daitezke (Vara, 2011), aurrerago azalduko dena.

Emakumeentzat diseinatutako jarduerak aztertuz gero, ikus daiteke guztiz estereotipatuak daudela; ileapaindegia, josteta, sukaldea, etab. Lanei dagokienez, askotan, gogorrenak edota gizonek nahi ez dituztenak dira haienak, horregatik, ikus daiteke, gehienetan, amankomuneko eremu guztien garbiketa emakumeei dagokiela, eta mantentze lanak (igeltsero, iturgin...) gizonei. Emakumea indartu beharrean, ahul eta pasibo agertu nahi dute, jarrera zaintzailea sarituz (Euskal Herriko Bilgune Feminista, 2017; Sare Elkarte, 2018).

Osasunari dagokionez eta Cruells eta Igaredaren (2005) (IN Euskal Herriko Bilgune Feminista, 2017) Europako MIP (*Mujeres, Integración y Prisión* ikerketa-proiektua) ikerketa-

proiektuan erakutsi zen bezala, emakume eta gizonen beharrak ezberdinak dira eta behar espezifiko horiek ez dira asetzen. Hainbat espetxetan, emakume presoek protesta egin dute, esaterako, ginekologorik ez dagoelako, eta honengana joan behar izanez gero ospitalera atera behar izateagatik ere kexatu dira, horrek daraman guztiagatik: itxaronaldia, lekualdaketa, intimitate eza medikuarekin, eta beste hainbat eragozpen. Horrez gain, espetxeak banatzen dituen higienarako produktuak, esaterako tanpoiak, konpresak, etab. ez dira kalitate onekoak (Euskal Herriko Bilgune Feminista, 2017).

Presoekin edo preso ohiekin egin ditugun elkarrizketetan, jakin ahal izan dugu emakume guztiak elkarrekin daudela modulu berean nahiz eta drogen menpekoak izan, gaixotasun mentala izan, kartzelan lehen aldia izan, ikasleak izan... Gizonen kasuan gauza hauek guztiak kontuan izaten dituzte moduluka banatzean, baina emakumeen kasuan, gehenez modulu bat edo bi egongo direnez, ez dute horrelako banaketarik egiten.

Argi ikus daiteke emakumea eta presoak izatearren zigorra bikoizten dela, eta presoarekiko segurtasuna ez dela bermatzen. Hau ikus dezakegu, adibidez, 2009ko abenduko albiste batean. Langraitzeko kartzelako zuzendari orde ohia kondenatua izan zen preso batekiko sexu-abusuak direla eta. Preso ezberdinekin hitz egitean, emakumeekiko jarrera hauek kartzela barruan oso ohikoak direla jakin dugu, beraz, gizonen baino segurtasun falta eta zigor handiagoa dutela esan daiteke.

1.3.3. AMEN MODULUAK

Espainiar estatuko lege organikoak 38.2 artikuluan esaten duenaren arabera, preso dauden emakumeek, haiekin izan dezakete haurra 3 urte bete arte. Haurra haiekin izango duten emakumeak hiru leku ezberdinetan egon daitezke: unitate familiarretan, amen moduluetan edo amen kanpo moduluetan (ISZ).

Unitate familiarrak

Aurretiaz esan bezala, emakume presoak unitate familiarretan egon daitezke beti haien bikotea ere preso baldin badago eta elkarrekin duten haurrak 3 urte baino gutxiago baldin baditu (Vara, 2011).

Amen moduloak

Modulu hauek gizon edo emakumezko espetxeetan amak jasotzen dituzten moduluak dira. Hauetan, haiekin haurrak dituzten amak egongo dira soilik. Modulu espezifikoak dira espetxe arrunt baten barruan, gainontzeko eraikuntzatik arkitektonikoki banatutakoak. Estatu espainiarrean oso gutxi daude (Vara, 2011).

Amen kanpo moduloak (ISZ)

Amen kanpo moduloak sortu berriak dira umeak haien amarekin kartzela barruan egon ahal izateko. Espetxeetako zuzendaritza nagusiak dioenagatik, estruktura berri hauek espetxearen espazio hau besteetatik segregatzea du helburu, espetxeak autonomia lortuz erregimen espezifiko bat lortu ahal izateko. Honez gain, espetxeetako zuzendaritza nagusiak dionez, espazio hau ikuspuntu hezigarri batekin diseinatuak izan dira; segurtasun neurri diskretuetatik hasita, espazio intimo familiarra ematen duten apartamentu txikietaraino.

Unitate hauek amarekin dauden haurren garapen fisiko, psikologiko eta heldutzearen baldintzak hobetzea dute helburu. Modulu hauek ohiko karteletatik kanpo daude, eta profil jakin bat duten amak bakarrik egon ahal izango dira bertan. Ezin izango dute hemen egon prebentziozko espetxeratzea edo delitu sexual larriagatik zigorra dutenak. Kondena luze bat daukaten eta honen hasieran dauden emakume presoak ere ezingo dira hor egon (Secretaría General de Instituciones Penitenciarias, 2011).

1.3.4. 0-3 URTEKO HAURREN EGUNEROKOA KARTZELAN

Espetxe-araudia

Espainiako Konstituzioaren 39. artikulua araberan, "Haurrek beren eskubideak zaintzen dituzten nazioarteko akordioetan aurreikusitako babesak izango dute" (1978: 17). Espainiak sinatutako akordio horien artean dago 1952ko azaroaren 20ko "Haurren Eskubideen Adierazpena". 2. printzipioan honako hau ezartzen da: "Haurrak babes berezia izango du eta aukera eta zerbitzuak izango ditu fisikoki, mentalki, moralki, espiritualki eta sozialki modu osasuntsu eta normalean garatu ahal izateko, bai eta askatasun- eta segurtasun-baldintzetan ere. Legeak aldarrikatzean, haurraren interes gorena hartuko da kontuan" (1 eta 2. orrialdeak) (Aranjuezen preso dauden ama euskaldunak, 2016).

Espetxeetako Lege Organiko Orokorren 38.2 artikulua honako hau ezartzen du: "Preso dauden emakumeek hiru urte bete ez dituzten seme-alabak izan ditzakete euren konpainian, baldin eta behar bezala egiaztatzen badute seme-alabatasuna. Seme-alabak dituzten zentroetan, haurtzaindegirako egokitutako lokal bat egongo da" (12. orrialdea) (Aranjuezen preso dauden ama euskaldunak, 2016).

Espetxe-araudiaren 17. artikuluari erreparatuz (seme-alaba adingabeak dituzten emakume presoak), sei puntu har ditzakegu kontuan:

17.1 artikulua: Establezimenduko zuzendaritzak hiru urtetik beherako seme-alabak onartuko ditu, baldin eta amekin badaude espetxeratzean. Amek haurra espetxean haiekin mantentzeko eskatuz gero, behar bezala egiaztatu beharko da seme-alabatasuna eta egoera

horrek ez duela arriskurik haurrentzat. Fiskaltzari jakinaraziko zaio hartutako erabakia, dagozkion ondorioetarako.

17.2 artikulua: Hiru urtetik beherako seme-alabak kanpoan guraso-ahalean dituzten espetxeratuek, baimena eskatu ahal izango diote Zuzendaritza Kontseiluari, haurrak espetxe-barruan egon daitezen; baimen hori emango da seme-alabatasuna behar bezala egiaztatzen bada eta egoerak haurrentzako arriskurik ez baldin badu.

17.3 artikulua: Haurra espetxean sartzean, espetxeko medikuak aztertuko ditu, eta arazorik egon ezean, ama-unitatearen barruan esleitu zaie zelda bat, haien amarekin batera egongo direna.

17.4 artikulua: Espetxe barruan ama eta haurren eskubideen artean sortutako gatazken artean, beti haurrenak lehenetsi beharko dira, eta eskubide horiek, nolana ere, behar bezala gorde behar dira amarentzat diseinatzen den espetxeetako esku-hartzearen eredu indibidualizatuan.

17.5 artikulua: Espetxe Administrazioak ama-unitateak izango ditu haur eta haien amentzako. Unitate hauek haurtzaindegirako egokitutako lokala izango dute, eta gainerako sailetatik bereizita egongo dira arkitektonikoki, zentroan haurrak egoteak beharrezko egiten dituen espezifikotasun arauemaileak, mediko-sanitarioak eta irteeretakoak errazteko.

17.6 artikulua: Espetxe Administrazioak adingabeari laguntzeko erakunde publiko eta pribatuaren lankidetzaren eta parte-hartzea sustatuko du ama-unitateetan edo horretarako sortutako mendeko unitateetan, hirugarren graduan sailkatutako barneratuentzat, baldin eta hiru urtetik beherako seme-alabak badituzte haiekin. Horretarako, behar diren hitzarmenak egingo ditu, amaren eta seme-alaben arteko harremana eta haurren nortasunaren eraketa ahalik eta gehien garatzeko.

Atxilotuen seme-alaben eskubideak

Larak (2014) adierazten duen bezala, Kartzelan amarekin bizi diren hurrek lehentasuna izan behar dute, haien eskubideak bermatu behar dira, izan ere, nahiz eta deliturik ez egin, haien amen murrizketa berberetara kondenatuta daude. Horrez gain, hiru urtetik gorako hurrek amari egiten dioten bisitaldien denborak familia-unitatea hautsi dezake.

Hori dela eta, Indarkeriatik babestu ez ezik, horiek garatzeko baldintza ezin hobeak eman behar dira, eta eskubide guztiak bermatu behar dira: eremu fisiko egokia, hazteko eta elikadura-, osasun-, jolas- eta higiene-beharrak betetzeko. Espetxea uzteko eta bizitza arrunta harriesetatik kanpo esperimintatzeko aukera bermatu behar da.

Gaur eguneko datuak

Barne Arazoetako Ministerioaren datuen arabera, 2019. urtearen amaieran, Espainiar Estatuan, 87 haur zeuden haien amekin kartzelan, Alcalá de Guadaíra (Sevilla), Aranjuez (Madrid), Picassent (Valencia) eta ISZ ezberdinetan kokatuta. Gutxitan hartzen dira kontuan haur hauek estatistiketarako, beraz, oso zaila da zehatz-mehatz jakitea zenbat haur dauden presondegietan haien amekin momentu bakoitzean (Yagüe, 2007).

Kartzelan bizi diren haurren garapena eta jarrerak

Jiménez eta Palaciosen (1998 IN Boix eta Agirre, 2017) arabera, haur hauek guztiz normalak dira ezaugarri biomediko guztien arabera. Lejarraga, Berardi, Ortale, Contreras, Sanjurjo, Lejarraga, Martínez eta Rodríguez-en arabera ordea, (2011 IN Boix eta Agirre, 2017), altuera txikiagoa eta gorputz-masaren indize handiagoa duten haurrak dira, eta horien ehuneko handi batek (% 39) nahasmendu emozionalak ditu. Daniel de La Rosaren arabera, *Horizontez sin Fronteras* Gobernu Kanpoko Erankundeko koordinatzailea, haur hauen garapena motelagoa da: hezkuntza garapena motelagoa, ikusmena eta erreakzioa baxuagoa, etab. Egileak dio bakartiak izan ohi direla, independenteak, eta oharkabean pasatu nahi dutenak.

Espetxera egokitzapena

Haur hauen espetxeratzea ezberdina izaten denez, egokitzapena ere ezberdina da. Batzuk espetxetik kanpo jaiotzen dira, eta beste batzuk barruan. Bertan jaiotakoentzat ez da hain zaila espetxeko bizitza, ez dutelako besterik ezagutzen. Jaio eta gero sartutakoentzat, ordea, egokitzapen prozesua mingarria izaten da (Lorenzana, Rubio eta Candel, 2009 IN Boix eta Agirre, 2017).

Berdinen arteko harremanak

Familiako haurrekin dituzten harremanak aztertuta, esan beharra dago, espetxean haur bat duen ama berriro haurdun geratzen denean, familian sor daitezkeen gatazkak anitzak direla. Batik bat, espetxean jaiotako neba-arreben egoera adierazgarria da. Haur nagusiak hiru urte betetzen dituenean, neba-arrebak banatu behar izaten dira. Geroztik, bisiten bidez edota haur txikiak espetxetik kanpo ematen dituen egonaldietan bakarrik ikusiko dute elkar. Esperientzia gogor honi aurre egiteko, amaren eta haurren arteko komunikazioa ezinbestekoa da. (Gea, Domínguez eta Sádaba, 2014).

Amen moduluan dauden beste haurrekin "neba-arreba" harremana sortu ohi da. Elkarrekin egiten dute bizikidetzak (haurtzaindegira joan, irteerak, txangoak, jarduerak, etab.) eta horrek haien arteko lotura sendotzen du. **Espetxetik kanpo bizi diren umeekin dituzten harremanak** ere onak izaten dira, nahiz eta, amarengandik banatzen dituztenean okertu ahal diren. Horrez gain, banaketa gertatzen denean haurrak egokitze arazoak izan ditzake, egoera

ez ulertzea dela kausa. Adiskidetasunak eguneroko bizitzan duen zentraltasuna oso nabarmena da, haur hauek espetxetik kanpo dituzten harremanak positiboak eta naturalak izaten dira (Gea, Domínguez eta Sádaba, 2014).

Espetxe barruko egoera

Aranjuezen bizi ziren amek egindako dossierra (2016) jarraituz, eta kontuan izanda espetxe bakoitzeko egoera ezberdina dela, haurren egoera azalduko da.

Aranjuezeko espetxe barruko haurtzaindegiak **lorategia** dauka, eta espetxeko Tratamenduko Zuzendariordearen aginduak dionez, haurrak arratsaldero atera daitezke 17.30tik 18.30era. Espazio hau bertan dagoen "espazio normalizatu" bakarra da: zabala, berdea, zuhaitzekin, kolunpioekin... baina horra atera beharrean, normalean porlanezko patiora ateratzen dituzte, eragozpen handiak izaten baitituzte lorategira joateko.

Janaria nahiko eskasa izaten da. 18 hilabete baino gutxiago duten haurrei ez diete gosaririk ematen eta, esaten dutenagatik, besteek soberan dituzten *Maria* gaileta eta papilekin moldatu behar dira. Bazkarirako janaria izoztua eta kalitate txarrekoa izaten da.

Megafoniaren, miaketaren eta kontaketen inguruan hainbat kritika dituzte. Megafonia gauez ere erabiltzen da, nahiz eta umeak lotan egon. Miaketak haurren aurrean egiten dira beti eta kontaketek haurren lo orduetan egiten dituzte, bai goizez, bai gauez.

Kartzelan **haurren higiena beharrak** asetzeko oinarritzko produktuak eman ohi dituzte: pixoihalak, ama eta umearentzako lote bana (gela, txanpua, krema...), biberoi bat, sehaska, bainuontzia eta kotxetxoa. Aranjuezen hori aldatu egin da eta amaren higiene loteaz eta pixoihalez gain, bestea eskatu eta ordaindu egin behar da. Horrez gain, haurtzaindegiko materiala ez da berritzen, ezta jostailuak ere. Jostailuen harira, haurrak ezin ditu zeldara igo bereak ez direnak, eta gehienez hiru erosi daitezke urtean, bat urtebetetzean eta bi Gabonetan.

Haurrak amekin espetxean?

Bizitzako lehen urteak giltzarri dira garapenean. Estatuak haurren eskubideak babestu behar ditu jaiotzen den unetik bertatik. Funtsezko funtzioen garapena bermatzea, hurrek gurasoengandik, irakasleengandik eta zainzaileengandik jasotzen duten arretaren eta harremanaren mende dago.

Haur bat gurasoengandik bereizteak ondorio kaltegarriak ditu. Atxilotetaren ondorioz denean, inpaktu negatiboa handiagoa da beste arrazoi batzuegatik haiengandik bereizten direnean baino. Haurrari bere amaren ondoan edukitzeak, aitortua, maitatua eta zaindua izateko eskubidea bermatzen dio. Bizikidetzaren horri esker, hurrek autonomoagoak izateko gaitasunak garatu ditzakete.

Gainera, ez dago ikerketarik espetxeetan hazitako haur horien portaera antisoziala dela frogatzen duenik, amengandik bereizita hazi zirenekin alderatuta (Lara, 2014).

Umea kaleratu eta gero amaren falta

Haurra espetxetik kanpo bizi denean, amarekin izango duen harremana hilean ordu eta erdiko aurrez aurreko harreman bat eta elkarbizitzako komunikazioak (hiru hilean behin, gehienez sei ordukoak) izango dira (Secretaría General de Instituciones Penitenciarias, 2010). Legeak kristal bidezko bisitetan haurrak onartzen baditu ere, ez da gurasoek egiten duten hautua izaten, haurrarentzako bortitza izateaz gain, txikiak izanik haien harremanak jolas, mugimendu eta kontaktu fisikoan oinarritzen baitira (Sare Elkarte, 2017).

Umea eta ama elkarrekin kaleratu osteko haien arteko harremana

Oro har, preso dauden amak eta ama/semi-alaben arteko harremanak zuzenean behatzen dituzten agenteak bat datoz harreman hori hobetu egiten dela espetxetik ateratzen direnean. Hau, haien harremana esparru "normalizatu" batean garatu ahal delako gertatzen da, espetxeak ezartzen dituen interferentziak alde batera utzita. Ezin da ahaztu harreman hauek hobetu ohi direla gutxienez elkar harremanak jarraitu dezakelako, eta ez direlako haien arteko banaketa batek ekar ditzakeen oztopoak gainditu behar (Nicolás, Bodelón, Bergalli eta Rivera, 2009).

Dispertsioa

Espainiar Estatuko probintzia guztietan amen modulurik ez dagoenez, haur hauek kanpoko familiarekin doazenean dispertsioa pairatzen dute.

Ama dispertsatua dagoenez, hainbat kilometro egin behar ditu haurrak hau bisitatzeko, askotan beste gauza batzuk sakrifikatuz: familiarekin bizipen bat, ospakizun bat, etab. Haien haurtzaroa espetxeko atean uzten dute, askotan egoera hori ulertu ezinean (Sare Elkarte, 2017).

Hainbat dira haur eta nerabeengan dispertsioak eragiten dituen kalteak. Egungo psikologiaren inguruko ezagutza zientifikoaren arabera, dispertsioak haurren garapen indibidualeko eremu guztietan egiten du kalte: sozio-emozionalean, kognitibo-linguistikoan, psikomotorrean, egokitzapenaren eremuan, eta abar (Etxerat Elkarte, 2016).

1.3.5. HAURREN ESKUBIDEAK

Aranjuezen preso dauden ama euskaldunek egindako txostenean (2016) aurkitu dezakegu, Haurren eskubideen Nazioarteko Tratatuen arabera, Haurren eskubideak funtsezko lau printzipiotan oinarritzen direla, eta horietako bi honako hauek dira:

- Haurren interes gorena: haurtzaroan eragin dezakeen edozein erabaki, lege edo politikak haurrarentzat onena zer den kontuan hartu behar du.

- Bizitzeko, bizirauteko eta garatzeko eskubidea: haur guztiek dute bizitzeko eta garapen egokia izateko eskubidea.

Txosten honek Haurren eskubideen Nazioarteko Tratatuaren hainbat artikulua aipatzen dizkigu, kontuan izanda haien arabera momentuan kartzelan bizi ziren umeen oinarritzko printzipio eta eskubideak errespetatzen ez direla. Honez gain, Bilbatua eta Amenabarrok egindako txostenean (2019), tratatu honetako beste hainbat artikulua aipatzen dira. Txosten hauetan agertzen diren artikuluez gain, UNICEFek argitaratutako 1989ko eta 2015ean eguneratutako txosten osoa aztertuta, gaiarekin zerikusia duten hainbat artikulua aipatuko dira segidan.

1. Haurraren ongizaterako eskubidea (3. art): "Haurrari buruzko neurri guztiak haren interes gorena kontuan hartzean oinarritu behar dira. Estatuari dagokio babes eta zaintza egokia ziurtatzea, gurasoek, edo bestelako arduradunek, horretarako gaitasunik ez dutenean" (10. orrialdea).
 2. Bizitzeko eta garatzeko eskubidea (6. art): "Haur orok du bizitzeko berezko eskubidea, eta estatuaren betebeharra da haurraren biziraupena eta garapena bermatzea" (11. orrialdea).
 3. Gurasoekin bizitzeko eskubidea (9. art): "Haurraren eskubidea da gurasoekin bizitzea, haurraren beraren interes gorenerako banantzea beharrezkoa den kasuetan izan ezik. Haurraren eskubidea da biek harreman zuzena izatea, bietako batengandik edo biengandik bananduta badago. Estatuari dagokio alderdi horren ardura hartzea, banantzea estatuaren ekintzaren ondorioz gertatu bada" (12. orrialdea).
9. artikulua haurra familia-eremutik bereiztearen gaia jorratzen du, zehazki gurasoena. Kasu horretan, adingabea amarekin dagoen ala ez erabakitzea emakumearen eskubideari dagokio nagusiki, egoera hori arautzean haurraren interes gorenari erantzutea aipatzen baita. Baina etxeko eremuaz ari garenean kontuan hartu beharreko alderdiak askotarikoak dira; izan ere, artikulua honek aitaren eta amaren figuretan zentratzen du, ahaidetasun-forma berriak alde batera utziz eta zaintzaile gisa aritzen diren neba-arrebak edo beste senide batzuk baztertuz, kasu honetan, aitari ere dagokio, adibidez. Hori dela eta, egin duten azterketatik abiatuta, uste dute urratu egiten dela, nolabait, Espainiako Estatuak haurra ez banantzea zaintzeko duen betebeharra, bai eta, kasu honetan, aitaren figura ere, familia-eremutik zentzu zabalagoan, adingabea behar bezala eta osorik garatzeko beharrezkoa den zentzu batean (Gea, 2017).

Lan askok erakutsi dute aitzak garrantzi handia duela seme-alabaren garapenean, hala nola sozializazioan, ezagutzak eraikitzean, sexu-identitatean... Hala eta guztiz ere, eta haurraren interesagatik, espetxeko erakundeek ahalegin guztiak egin beharko lituzkete lotura hori ez hausteko, adibidez bisiten maiztasuna eta kalitatea handitzea, gurasoen eta seme-alaben arteko harremanetan intimitaterako eskubidea ahalbidetzea, etab. (Aranjuezen preso dauden ama euskaldunak, 2016).

4. Zerbitzu medikoetarako eta osasunerako eskubidea (24. art): "Haurrek ahalik eta osasun-mailarik altuenaz gozatzeko eta mediku-zerbitzuak eta errehabilitazio-zerbitzuak izateko eskubidea dute, eta arreta berezia jarriko zaie lehen mailako osasun-arreta behar duten haurrei, zainketa prebentiboekin eta haurren heriotza-tasa gutxitzearekin lotutako zerbitzuekin. Estatuaren betebeharra da beharrezko neurriak hartzea, haurraren osasunerako kaltegarriak diren praktika tradizionalak indargabetzera bideratuta" (19 eta 20. orrialdeak).

Artikulu hori kontuan hartuta, argi dago haur guztiek eskura izan behar dituztela pediatriak, endokrinoak edo beharrezkoa den beste edozein mediku edo espezialista, espetxe barruan zein kanpoan. Gainera, ondo garatzeko, ezinbestekoa da elikadura egokia izatea haurren aldi bakoitzerako. Hau da, haurrek ez lukete, adibidez, heldu baten menu bera izan behar, batez ere bizitzako lehen urteetan. Are gehiago, hori jasotzen du espetxeetako idazkaritza nagusiaren webguneak: "Espetxe-establezimendu guztietan behar bezala prestatutako elikadura ematen zaie presoei, nutrizio-irizpide egokiei erantzuten diena, eta berezitasunak ere kontuan hartzen dituena, adibidez, adinagatik edo osasunagatik" (Aranjuezen preso dauden ama euskaldunak, 2016: 4).

Haurren osasunari eta, beraz, haien garapenari eragiten dion beste puntu garrantzitsu bat espetxeetan dagoen isiltasunik eza da. Etengabeko mugimenduek, metalezko ateak irekitzeak eta ixteak, megafoniak, zenbaketek... haurraren atsedena oztopatzeaz gain, entzumenari ere eragin diezaioke, helduei ere eragin diezaikeen bezala (Valverde, 1997 in Aranjuezen preso dauden ama euskaldunak, 2016).

5. Hezkuntza eskubidea (28. art): "Haur orok du hezkuntzarako eskubidea, eta Estatuaren betebeharra da gutxienez doako eta derrigorrezko lehen hezkuntza ziurtatzea. Eskola-diziplinaren aplikazioak haurraren duintasuna errespetatu beharko du, gizakia den aldetik" (22. orrialdea).
6. Hezkuntzaren helburuak (29. art): "Estatuak aitortu behar du hezkuntza haurraren nortasuna eta gaitasunak garatzera bideratu behar dela, helduaro aktiboa

prestatzeko, oinarrizko giza eskubideen errespetua irakasteko eta berezko balio kultural eta nazionalekiko eta bereak ez diren zibilizazioekiko errespetua garatzeko" (22 eta 23. orrialdeak).

7. Denbora librerako eskubidea (31. art): "Haurrak aisialdirako, jolasteko eta jarduera artistiko eta kulturaletan parte hartzeko eskubidea du" (23 eta 24. orrialdeak).

Eta hau da Barne Ministerioak jolasari buruz dioena: "Adingabeen ongizatea eta haur horiek non moldatzen diren estimulatzeko baldintzak hobetzen saiatuz (...) Administrazioak behar dituzten atsedeen eta jolas orduak bermatzen dizkio adingabeari" (Aranjuezen preso dauden ama euskaldunak, 2016: 4).

Gea (2017) esaten duenaren arabera, kartzelan bizi diren haurren eskubideak ez dira behar bezala bermatzen, nahiz eta Espainiako Estatuak Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioari atxikitako herrialde gisa zaindu beharko lituzkeen.

1.4. HELBURUAK

Gradu Amaierako Lan honen helburu nagusiak bi izango dira. Alde batetik, kartzelan bizi diren haurren errealitatea ezagutzea, kontuan hartuta, gizartearen parte handi batek ez dakiela preso dauden amek eskubidea dutela haien haurrak espetxean haiekin egoteko hiru urte bete arte. Egoera hau ezagutzen dutenen artean, askok ere ez dakite zein baldintzatan bizi diren, eta askotan, horren ondorioz, aurreiritziak izaten dituzte ama hauekiko. Lehen helburu honi esker, aurreiritzi eta estereotipoak baztertu eta errealitatea hobetu ezagutzea da lortu nahi dena.

Bestalde, kontuan izanda hiru urterekin espetxea utzi behar dutela eta askotan ama gabe ateratzen direla amak kondena izaten jarraitzen duelako, umeentzako egokitzapen protokolo proposamen bat egitea da bigarren helburua. Haur hauen kaleratzea eta amarengandik banatzea ahalik eta errazen eta erosoan egitea du xede protokolo honek, kontuan izanda hiru urteko ume irten berri horiek galera bat jasango dutela eta egokitzapena egin beharko dutela espazio eta pertsona berriekin: familian, eskolan eta bere ordura arteko espazio eta zaintzaile ezagun bakarrak kanpotik ezagutzeko eta bizitzeko prozesua ere egin beharko dute, hau da, amarekiko harremana aldatuko da eta harreman mota berrira ohitu beharko da, kanpoko bizimodu eta konpainia berrira egokitzearekin batera.

2. METODOA

2.1 PROZEDURA

Lau hau gauzatu ahal izateko, zenbait pauso eman behar izan ditut. Hasiera batean, kartzela modu ezberdinetan pairatzen zuten umeei buruzko lana egitea neukan buruan, normalean ezjakintasuna nagusitzen delako. Gai honi zuzendariarekin bueltak eman ostean, kartzela barruan zeuden umeen kaleratzea errazteko protokolo bat egitea erabaki genuen, baita haien eskolarako sarrera samurtzeko ere. Oso zaila izaten da konfort gunetik ateratzea, ez bakarrik umeentzat, eta kasu honetan, kartzela da haiek segurutzat duten gunea, bertan jaio direlako eta hori delako amarekin eraiki duten espazio ezaguna eta segurua.

Behin gaia finkatuta, zuzendariak bideratuta, Estibaliz de Miguelekin hitzordua izan genuen, EHUKo irakaslea eta "emakumea eta kartzela" esparruan aditua den soziologoarekin. Honek hainbat aholku, informazio eta iturri emateaz gain, haren prestutasuna agertu zidan, lanean zehar edozein gauzarekin laguntzeko.

Lehen iturriak izanda, bibliografiaren irakurketa izan zen hurrengo pausoa, eta horrekin batera, nire kabuz informazioa bilatzea, filtratzea, eta zer jarri eta zer ez erabakitzea, kontuan izanda gradu amaierako lana dela eta muga eta ezaugarri batzuk dituela.

Hurrengo pausoa, marko teorikoa osatzea izan da. Honek zailtasun ugari ekarri dizkit, baina arloka joan naiz osatzen, liburu, artikulua eta txosten ezberdinak erabiliz. Honekin batera lanaren helburuak finkatu ditut.

Jarraian, metodoa azaldu dut, partaideak zeintzuk izan diren eta haien papera zein izan den azalduz. Erabilitako tresnak ere idatzi ditut, errebisio bibliografikotik hasita. Elkarrizketen garrantzia azaldu eta nire lana ikaskuntza-zerbitzuan kokatzen denez, hau zer den eta nondik datorren azaldu dut.

Lehenengo zati hau eginda, elkarrizketak egin ditut, hasieran preso egondako bi ama elkarrizketatu nituen. Hurrengo elkarrizketak preso dagoen lagun bati eta preso ohia den bati egin nizkien. Elkarrizketekin amaitzeko, ametako baten semearen irakasle batekin lotu nintzen. Umeetako baten "testigantza" ere jaso ahal izan nuen. Bere hirugarren urtebetetzeko marraskia egin zuen, eta amaren bitartez, marraskia azaldu. Amaitzeko, protokolo proposamen bat egin dut beste protokolo batzuk eredu hartuta eta aurretik bildutako informazio guztia erabilia, kartzelatik 3 urte betetzean irten behar diren umeei laguntzeko helburuarekin egin behar duten trantsizio horretan.

Lan hau gauzatu ahal izateko ikerketa lana egin dut. Irakurritakoa aztertu, elkarrizketak prestatu eta espetxe barruan haurrak izan dituzten bi ama elkarrizketatu ditut. Honez gain, ama hauetako baten haurraren kaleko lehen irakasleari ere elkarrizketa egin diot, hezkuntzaren arlotik, eta egokitzapenaren harira, ume hauen egoera ezagutu ahal izateko.

Honi esker, legeak eta teoriak dionaz at, errealitateak ere ikusi ahal izan ditut, preso egon diren emakume hauek eta haien umeek nola bizi izan duten espetxeratzea haien hitz eta irudien bidez ezagutu dut. Zelakoak diren moduluak eta zein egoeratan dauden. Beste umeekin eta eskolarekin harremanik izan duten. Zelakoak diren ama eta umearen banaketak haurra kalera doan bakoitzean eta behin-betiko kaleratzen dutenean. Eta beste hainbat gauza ere.

2.2 PARTAIDEAK

Ikerketa egiteko, hainbat bide hartu behar izan ditut, horien artean, pertsona edo elkarte ezberdinekin hitz egitea.

Hasteko lan honetako zuzendaria den Amaia Alvarez Uriak liburu eta gomendio ezberdinak emateaz gain, EHU irakaslea den Estibaliz de Miguelekin kontaktuan jarri eta hitzordua finkatu zuen. Aurretiaz esan bezala, hau soziologoa eta "emakumea eta kartzela" esparruan aditua da. Aholkulari gisa ibili izan da lan osoan zehar, bere jakintza konpartituz. Hitzaldi ezberdinak gomendatu izan dizkit, baita hainbat liburu utzi ere. Oso garrantzitsua izan da Estibaliz de Miguelen presentzia lan honetan, hasierako abiapuntua finkatzen lagundu izan didalako.

Alvarez Uria eta De Miguelekin hitzartuta egon ostean, hainbat erakunderekin jarri nintzen harremanetan, esaterako Etxerat eta Salhaketa. Etxeratek preso egondako eta kartzela barruan umearekin egondako emakume baten kontaktua eman zidan, eta preso egondako emakume honek hainbat dossier eta dokumentazio pasatzeaz gain, kartzelan haurrarekin egondako beste hainbat emakumerekin hitz egin zuen, haiek elkarrizketatu ahal izateko.

Kartzela barruan haiekin umea izan duten bi amarekin geratu nintzen, haien bizipenak eta errealitateak ezagutzeko. Biak euskal preso politikoak izan dira, eta kartzela ezberdinetan egon dira. Lehenengoaren kasuan, zortzi urte eman ditu espetxean, hauetako hiru bere semearekin Aranjuezen. Bera, bere semea irten eta hilabete gutxitara irten zen, beraz, ez zituzten hilabete asko elkarrengandik banatuta pasa. Preso zegoela izan zuen haurra, eta honek bere bizitzako lehen hiru urteak espetxean eman ditu amarekin. Bigarrena, aldiz, 5 urte egon da espetxean, eta bi urte eta erdi bere alabarekin eman ditu Aranjuezeko eta Picassenteko espetxeetan. Haurrak zazpi hilabete zituelarik sartu zen espetxean, eta hau berarekin sartzearabaki zuten bere bikoteak eta berak, hiru urte baino gehiago zituen beste semea aitarekin etxean geratzen zelarik. Hiru urtetara ateratzen zen haurra behin-betiko, baina, aurrekoan ez bezala, haur honen amak, beste bi urte eman zituen espetxean.

Bi amak elkarrizketatu ostean, hauetako baten umearen irakaslearekin elkartu nintzen. Bere jarreraren eta egokitzapenari buruzko hainbat galdera egin nizkion, eta berak umearen eskolaratzea nolakoa izan zen komentatu zidan. Honez gain, haren iritzia ere eskatu nion.

Umeetako batekin ere egon naiz, bere amaren bitartez, bere hirugarren urtebetetzeko marrazki bat eskatu nion, baita honen azalpena ere. Ikus daiteke haurra ez dela bere barruko bizitzaz asko gogoratzen, baina gogoratzen duena naturaltasun handiz kontatzen du, inolako minik gabe.

Azkenik, gaur egun preso dagoen lagun batekin eta iaz arte preso egon zen beste lagun batekin elkartu (biak 40-45 urteko gizon bizkaitarrak, espetxean 18 eta 20 urte egondakoak) eta kartzelari buruzko haien testigantzak kontatu dizkidate. Barruko bizitza, funtzionatzeko era, kartzela ezberdinak, etab. Hauek barruko funtzionamenduari buruz nituen dudak argitu dizkidate, baita lege edota liburu ezberdinekin laguntza eman ere.

2.3 TRESNAK

2.3.1 ERREBISIO BIBLIOGRAFIKOA

Nire lanerako aukeratutako gaiaren inguruan ez dago askorik idatzita. Ikerketa lana egiterakoan, erraza izan da hainbat informazio aurkitzea, bereziki haur hezkuntzarekin lotuta dauden gaietaz, esaterako haurraren garapena, atxikimendua, egokitzapena, etab. Materiala unibertsitatean hainbat irakaslek emandakoa da, baita nik bilatutakoa ere. Baina, kartzelaren arloan nahiko zaila izan da haurren egoerari buruzko ezer topatzea.

Alde batetik, Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiak egindako dossierra erabili dut bereziki espetxearen deskribapena egiterako orduan, baita legedia ere. Honez gain, Caritasek presoentzako prestatutako eskuliburuak ere asko lagundu dit, espetxeko hainbat gauza ulertu eta azaldu ahal izateko.

Bestetik, emakumeak espetxean pairatzen duten egoerari buruzko hainbat lan erabili izan ditut, aurkitu eta gomendatu dizkidaten guztiak. Honekin jarraituz, euskal preso politikoen aldeko hainbat mugimenduk edota hurrekin espetxean egondako preso ezberdinek egindako dossier ezberdinak erabili ditut.

2.3.2 ELKARRIZKETAK

Lan honetan elkarrizketak erabili dira informazioa batzeko tresna gisa. Elkarrizketaren definizioa bilatuz gero, hainbat aurki ditzakegu, hurrengo esaterako: pertsonen elkarreraginean ahozko komunikazioa helburu duen informazioa biltzeko erabiltzen den

ikerketa metodoa da (Grawitz, 1984; Aktouf, 1992; Mayer eta Ouellet, 1991 IN López Estrada eta Deslauriers, 2011).

Elkarrizketa aurrez aurre trukutzen den hizketa intimoa da, bertan informazioa ematean zentzumenak azaltzen dira eta talde sozial bateko partaide bihurtzen da hiztuna (Tremblay, 1968 IN López Estrada eta Deslauriers, 2011).

Denzinen arabera, elkarrizketa ikerlari kualitatiboaren tresna gogokoena da. Honek beste pertsona batekin komunikatzean datza, galderak egin eta erantzunez. Bai elkarrizketatzaileak bai elkarrizketatuak bestearengan eragina izan dezakete. Egoera artifizial bat sortzen da, non elkarrizketatzaileak bestearen errealitatea entzungo duen, agian berriz sortuko ez den espazio batean (IN Ruiz Olabuenaga, 2012).

Elkarrizketak pertsonen atal mentalera iristeko potentzial handia du, baita pertsonen egunerokotasuna eta dituzten erlazio sozialak ezagutzeko ere. Testuinguru honetan, elkarrizketa ikerketa prozesua egiteko tresna gisa nahikoa da eta kasu askotan honen erabilpena derrigortutakoa da. Zenbait egileren ustez, askotan beharrezkoa izango da zenbait informazio eskuratu ahal izateko (López Estrada eta Deslauriers, 2011).

Laburbilduz, elkarrizketa, pertsona batek ahoz egoera baten bere definizio eta bizipen pertsonala transmititu ahal izateko tresna da (Ruiz Olabuenaga, 2012).

Proiektu hau garatzeko elkarrizketa tresna egokia eta aberasgarria da. Horrela, protagonista ezberdinak elkarrizketatuz, jakin dezakegu zein alde dagoen teoria eta legeetatik errealitatera. Horretaz gain, informazio ugari lortzeko bidea ematen du, esperientzia ezberdinak ezagutzuz.

2.3.3 IKASKUNTZA-ZERBITZUA (I+Z)

Nire proiektuaren metodoaz hitz egiterako orduan, ezinbestekoa da ikaskuntza zerbitzuaren definizioa ematea.

“Ikasketa eta zerbitzua hezkuntza-proposamena da, eta ikasketa zein komunitatearentzako zerbitzua bateratzen ditu ondo egituraturako proiektu bakar batean. Bertan, hain zuzen ere, parte-hartzaileek ikasi egiten dute eta, aldi berean, ingurune benetako premietan lan egiten dute, hobetzeko asmoz” (Puig, Batlle, Bosch eta Palos, 2007).

Zerbikas plataformaren gidan, hainbat azalpen aurkitu dezakegu metodo berritzaile honi buruz. Bertan, ikasketak eta zerbitzuak bata besteari ematen dizkion onurak aipatzen ditu. Rubiok idazten duenaren arabera, ikasketak zerbitzua hobetzen du, ikasitakoa errealitatera eramateko aukera dago, eta horrela kalitatezko zerbitzua ematen da. Honez gain, zerbitzuak ere ikasketa hobetzen du, zentzua ematen baitio ikasketari, motibazioa eta bizi-esperientziak emateaz gain.

Ikaskuntza zerbitzua gauzatu ahal izateko bost oinarriko eskakizun bete behar dira: ikasketa, zerbitzua, proiektua, partaidetza aktiboa eta hausnarketa (Rubio, 2008):

| Ikasketa | Zerbitzua | Proiektua | Partaidetza aktiboa | Hausnarketa |
|--|---|---|--|---|
| Sistematizatua egon behar da eta zerikusia izan behar du eman beharreko zerbitzuarekin. Prozesua baino lehen, bitartean eta ostean protagonistek ikasiko dutena azaldu beharko da. | Benetakoa izan behar da, eta inguru hurbil edo globalaren benetako premiei erantzun behar die, hauek hobetzeko asmoz. | Asmo pedagogiko argia izan behar du eta hezitzaileak hezkuntza-proiektuaren plangintza zein ebaluazioa egin behar ditu. | Protagonismoan oinarritu behar dira, eta, horrela, informazio-proposamenak gaituzte. Protagonistek proiektuko fase guztietan hartu beharko dute parte: premiak antzeman, hobekuntza-proposamenak diseinatu eta bestelakoak eginez. | Parte-hartzaileek uneoro jakin beharko dute zer egiten den eta nolako erabilgarritasun soziala duen. Aukeraturako prozesuari, egindako ikaskuntzei eta zerbitzuaren eraginari buruz hausnartzea ezinbestekoa izango da. |

Ikasketa zerbitzu bat abian jartzeko, hainbat fase bete behar dira. Prestakuntza, betearazpena eta ebaluazioa dira prozesuaren une nagusiak, baina une horiek zazpi etapatan daude banatuta (Puig, Martín eta Batlle, 2007):

1. Zirriborrea egitea:

Une honetan proiektua nondik hasiko den zehaztuko da, zer egin daitekeen, zeinen laguntzarekin, nola jarriko dugun abian proiektua, eta abar. Proiektuan nork hartuko duen parte zehaztu beharko da, eta bakoitzak zein funtzio garatuko duen. Gizarte-aldetik beharrezkoa den zerbitzua zehaztu beharko da.

2. Harremanak ezartzea gizarte erakundeekin:

Metodo honetako proiektu gehienetan, irakaskuntza arloko instituzioak, gizarte-arloko erakunderen batekin elkartu behar izaten du, horrela, erakunde horrek errealitatearekiko lotura erraztu ahal izango dio. Zirriborrea prestatu ostean, proiektua arrazoituko da, eta onartuz gero, akordioa luzatuko da.

3. Plangintza:

Plangintza egiteko, gida bat osatu beharko da, eta horri forma ematen joan. Proiektuaren amaieran izena emango zaio. Kasu honetan, gida zuzendariarekin batera prestatu zen, bere gomendioak jarraituz, helburua finkatuz. Honen ostean alderdi pedagogikoak zehaztu behar dira, baita kudeaketa ere: egutegia, baldintzak, materialak, etab.

4. Prestaketa:

Eta honetan, plangintzan zehaztutakoa egiten hasiko gara. Une honetan motibazioa garrantzitsua da. Lana antolatu beharko da, eta kide bakoitzak hartuko duen konpromisoa jakin beharko dugu. Landu nahi den egoerari eta arazoari buruzko diagnostikoa egin beharko da, zer, zergatik, norentzat, non, noiz eta norekin egingo den finkatuz.

5. Betearazpena:

Eta honetan zerbitzua ematen hasiko gara. Erakunde ezberdinekin jarriko gara harremanetan, eta proiektua erregistratu, komunikatu eta hedatuko da. Ustekabeak gerta daitezke, eta plangintza eta prestaketan finkatutakoa agian ez da zehatz-mehatz aterako, baina akatsak zuzenduz joan beharko gara.

6. Amaiera:

Ikasketa eta zerbitzuari buruzko hausnarketa egin beharko da. Gogoeta eginez etorkizunari begira. Bizi izandako esperientzia ospatuko da, proiektua porrot bat izan baldin ez bada.

7. Ebaluazioa:

Azkenik, ebaluazioa egin beharko da, parte hartu duten hezitzaileen eskutik. Hala ere, beste partaideen ebaluazioa ere garrantzitsua izango da. Eta honetan hezitzaile gisa baloratuko dugu gure burua, gure aberastasunerako kritika konstruktiboa eginez.

3. EMAITZAK

3.1.1. ELKARRIZKETAK

Ama:

Elkarrizketak burutu ostean, ikus dezakegu legeak diona eta benetan kartzela barruan gertatzen dena haur hauekin ez datorrela bat. Kartzelaren harira eta elkarrizketen bidez, preso egondako emakumeen arabera haien barruko bizimodua aztertuko dugu. Ama 1 eta Ama 2 izenekin bereiziko ditugu.

Amen moduloa

Moduluari dagokionez, aurretiaz esan bezala, espetxeek eta han bizitako presoek diotena ez dator bat.

JOSTAILUAK

Ama1en arabera, jostailuak ziren gabezia handiena, ezin zituzten kaletik ekarri, soilik urtebetetzeetan eta gabonetan, eta horrek orduak luzeagoak egiten zituen. Ama2 beste espetxe batean egon zen, eta bertan jolasteko txoko bat zegoen, baina kontaktzen duenaren arabera oso jostailu gutxi zeuden eta apurtuta zeuden, gainera. Beraz, argi ikus dezakegu haurren estimulaziorako eta denbora-pasarako materialei dagokionez, gabezia handia dagoela.

ELIKADURA

Gabeziei errapararatzuz, elikadurari buruz hitz egin beharko genuke, izan ere, Ama 1ek kontaktzen du Aranjuezen arau bat zegoela honen inguruan. 18 hilabete arte haurrak ezin du solidorik jan, eta jatekotan janaria sobratu delako da. Funtzionarioen arabera hau alda daiteke, batzuk 12 hilabeterekin solidoa jateko aukera ematen dutelako, baina, beste batzuk oso zorrotzak dira. Haurrek solidoa eskatzen dutenean amek haien bandejatik ematen diete janaria, baina hauen janariaren kalitatea askoz txarragoa izaten da. Ama 2k kontaktzen duenagatik, nahiz eta pediatrak janari solidoa jartzeko eskatu, funtzionarioak eman nahi ez badio, ez dio emango. Kasu honetan ere janaria kalitate txarrekoa da, esaterako, pureak bakarrik patata eta azenariozkoak. Dirua duten pertsonak, ekonomatoan indioilarra, york pernila etab. eros dezakete, baina ekonomikoki laguntzarik ez duten pertsonak, ez dute aukera hau. Beraz, ikus dezakeguna, elikaduraren aldetik gabezia nabaria dagoela, besteak beste, Aranjuezeko espetxean. Ametako batek esandakoaren arabera, Picassenten janaria askoz garbiagoa da. Lau menu daude umeentzako: 0-6 hilabete, 6-12 hilabete, 12-18 hilabete eta 18 hilabetetik gorakoentzat. Menu hauek onak dira, eta haurren elikatze egokia bermatzen dute. Beraz, ikus dezakegu kartzelaren arabera elikaduraren kalitatea aldatzen dela.

ESPAZIOAK ETA AZPIEGITURA

Espazioak aztertzerakoan, Aranjuezeko amen moduloa kartzelako modulu arrunt bat bezalakoa da. Patioa porlanezkoa da eta haurrentzako ez dauka ezer. Jolasteko txoko txiki bat dago jostailuekin, baina ia denak puskatuta daude. Haurtzaindegi bat dago, eta hori nahiko ondo dago. Haurtzaindegiaren kanpoaldean, parketxo bat dago, igerileku txiki bat duena udaran erabiltzeko, baina honetara ateratzeko gatazka handiak egoten ziren, bost familia

irten behar zirelako gutxienez, eta hori nahiko zaila zen, eta funtzionarioek ez zutelako nahi, bero handia egiten zuen eta.

Picassenten Aranjuezen baino azpiegitura hobea zegoen. Porlanezko patioa egoteaz gain, baratze txiki bat, parketxo bat eta hondarrean ibiltzeko gune txiki bat zegoen. Horrez gain, patioan motorrean ibiltzeko zirkuitoak zeuden margotuta eta baimena lortu zuten gauza gehiago margozteko: laku bat, trenbide bat, errepidea etab.

Diseinuari dagokionez, koloreak bazeuden baina zonalde txikietan eta "Disney" eta halako marrazkiekin. Zeldak, patioak etab. beste modulu normalak bezalakoak ziren.

Komentatutakoaren arabera, ama hauek egondako bi espetxeetan hainbat gauza daude umeentzako pentsatuta, baina moduluak ez daude behar bezala egokituta, arrisku asko daude eta ez dute behar beste espazio haien zat. Gainera, ez dago haurrentzako berdegunerik, porlanezko patioa besterik ez dago. Bestalde, prest dauden espazioak disfrutatzea zaila da, borroka konstantea.

ZELDAK

Zeldei dagokienez, kontatzen digutenaren arabera, Aranjuezen zeldak oso handiak dira, gutxi gorabehera bi-hiru zelda arrunt elkarrekin egongo balira bezala. Hemen ohe handi bat, sehaska izateko aukera eta ohe normal bat daude. Pixkanaka, bakoitzak bere zelda dekoratzen du, seme-alabentzako ahalik eta goxoena izan dadin. Picassenten zeldak oso txikiak ziren eta ez zeuden umeentzako prestatuta, izkinez beteta baitzeuden. Umeak ibiltzen hasten zirenean izkina guztiekin kolpatzen ziren.

HIGIENEA

Higiene aldetik, Aranjuezeko kartzela oso ondo zegoela esaten du ametako batek. Barruan dauden amek garbitzen dute modulua eta garbitasuna badago. Zigarroei dagokienez, ordea, arazoak egon badaude, eta hori presoek talka izaten da normalean. Haurrak ezin ziren segundo bat ere zaindu gabe egon, preso batzuek zigarroen hondakinak lurrera botatzen zituztelako eta, batzuetan, umeek hartu egiten zituzten. Picassenten ordea, nahiz eta modulua garbi egon presoek garbitzen zutelako, labezomorroz beteta zegoen.

HEZKUNTZA

Hurtzaindegi bat dago modulu barruan, eta irakasleak kanpotik sartzen dira. Elkarrizketatutako preso ohien arabera, nahiko ondo zegoen eta irakasleen jarrera oso ona zen. Aipatu bezala, hurtzaindegi bat da, ez haurreskola bat. Nahiz eta umeak egoteko espazioa egon, haur hauen hezkuntza ez da bermatzen, eta umeek espazio txiki bat edukitzeko soilik daude prestatuta.

Ama 1ek kontatzen digu kanpoko eskola batera ateratzeko aukera bazegoela, baina honek haurrak egun osoa kanpoan egotea dakar, goizeko 8.30etatik arratsaldeko 17.30ak arte.

ZARATAK

Zaraten arloa aztertzerakoan, Ama 1ek dio Aranjuezeko kartzela oso gaizki zegoela. Megafonia edozein momentutan erabiltzen zuten eta edozertarako. Berdin zitzaien umeak lo edo esna zeuden. Gai honek tentsioa ekartzen zuen kartzelan, esaterako, umea gaixorik zegoela lokartzen saiatu, eta bat-batean, megafoniatik edozein gauza esan eta umea esnatu... Umeentzako eta amentzako estres iturria zen, eta nahiz eta lehentasuna umea izan, ama ez baldin badago ondo, haurra ere ez da ondo egongo. Ama 2k kartzela honi buruz gauza bera aipatzen du, megafoniaren erabilera gehiegizkoa zela, eta haurraren loa ez zela errespetatzen. Horrez gain, honek komentatzen du funtzionarioek oihu egiten zutela haurren aurrean. Picassenten ordea, ez zegoen megafoniarik eta zaraten kontua asko errespetatzen zen haurren ongizatea bermatzeko.

HARREMANAK

Elkarrizketatu ditudan bi amek antzekoa esaten dute. Haur guztiekin harremana zeukaten, nahiz eta amen batzuekin ondo ez konpondu. Gatazkak baziren, batez ere espazio komunak ez errespetatzeagatik, erretzeagatik, etab. Harreman politak ere sortu zituztela kontatzen digute, ordu pila bat konpartitzen zituztela eta, esandakoaren arabera, bizitza oso intentsoa da kartzela barruan eta umeekin sortzen den lotura ez da kalekoa bezalako. Hemen hogeitalau ordu ematen baitituzte elkarrekin, eta horrek harremana sortzen du, baina ez bakarrik zure haurrarekin, ingurukoekin ere. Familia moduko bat sortzen dela esan daiteke, ondo moldatzen diren amen eta umeen artean. Ametako batek esandakoaren arabera, hau oso polita da, baina kalera begira ondorioak ditu, ez daki guztiz sana den. Bere umeak bizi izandakoaren arabera arabera, esaten du umeentzako gero zaila dela kalean harremanak zelakoak diren ulertzea, kartzela barruan afinitatea zuen haurrekin neba-arrebak bezala bizi zirelako eta kalean umeak joan eta etorri ibiltzen direlako, harreman horiek azalekoagoak baitira.

BALIABIDEAK

Haurren beharrak asetzeko, pardelak eta higienerako beharrezkoak ziren gel eta xaboia ematen zizkieten, eta, gainontzekoak ekonomatoan erosi behar zituzten, esaterako, paper-zati bustiak. Dirurik gabe, ezin zituzten horiek lortu. Kontatzen digute, hasieran

txupeteak eta biberoiak ematen zituztela, baina denborarekin kentzen joan zirela eta gero eta gauza gutxiago ematen zizkietela.

Horrez gain, ez zeukaten baimenik beharrezkoa den hainbat material izateko, biberoi berogailua, adibidez. Honek hainbat arazo ekarri zituen behin baino gehiagotan, adibidez, haurrek ondo egosi gabeko urez egindako biberokia hartzea eta hurrengo egunean gastroenteritisa izatea.

OSASUNA

Pediatra astean birritan joaten zen kartzelara, eta bat egiten bazuen ondo, bestela ospitalera atera behar zuten haurra eta, askotan, ama eta haurra banandu. Gaixotasunaren arabera, kartzelako mediku normalak batzuetan begiratzen zuen umea. Kontatutakoaren arabera, larria ez zenean, askotan, gaixotasuna ezkututzen zuten haurra eta ama ez banatzeko, horrek kalte handiagoa egingo liokeelako haurrari. Ama 1ek kontatzen du gaur egun ospitale hitza entzuten duenean ez diola ondo egiten. Ama 2k, kontatzen digu modulutik pasatzen zen pediatararekin harreman ona zeukatela eta umeekin ondo portatzen zela. Hala ere, esaten digunaren arabera, funtzionarioek esaten zuten medikuaren hitzaren gainetik eurena zegoela, eta horrek askotan ez zuen umearen ongizatea bermatzen.

FUNTZIONARIOEN JARRERAK

Elkarrizketatutako bi amak Euskal Preso Politikoen Kolektiboaren parte ziren. Komentatzen dutenaren arabera, askotan, funtzionarioek euren jarreraren bitartez tentsioa bilatzen zuten haiekin, eta tentsio hori askotan umeengana pasatzen zen. Haiek esandakoaren arabera, funtzionario batzuen euskal presoenganako gorrotoa nabaria zen eta askotan neurtu gabeko jarrerak zituzten bai haiekiko bai umeekiko. Horrez gain, preso sozialak diren beste amenganako jarrera txarrak ere askotan nabariak izaten ziren, nagusitasun-egoeraz abusatzen zuten.

Kanpoko kontaktuak eta beharrak

UMEAREN LEHEN KALERATZEA

Ama 2k lehen hilabetetik atera zuen bere haurra kalera, haurrak zazpi hilabete zituenean. Kasu honetan, haurra ez zen kartzelan jaio, amarekin sartu zen zazpi hilabete zituenean. Bazeukan kalearekin kontaktua eta mantentzea erabaki zuten, izan ere, hilabetean behin kalera ateratzen zen aitarekin astebete pasatzeko, aita ezin baitzen haiengana bisitan joan.

Ama 1ek, ordea, sei hilabeterekin atera zuen lehenengo aldiz, ordu batzuk bakarrik, eta nahiko zaila izan zen. Bularra ematen zionez, oso kezkatuta egon zen, biberokia hartuko zuen

edo ez pentsatuta. Komentatzen du gaur egun ikusita, ikusten duela ez zutela errelatibizatzen, baina horrela bizi izan zuela lehenengo irteera. Haur hau ere ez zen kartzelan jaio, amak sartzea atzeratu ahal izan zuen, eta haurrak 10 egun zituela sartu ziren espetxean elkarrekin.

KALEKO SAREA

Bi amek kontatzen digute haiek zorrea izan dutela kanpoan sare handia zutelako. Halaber, biek aipatzen dute ekonomikoki ahalegin handia egin behar dela eta biek zutela etxe bat alokatuta kartzelatik gertu, merkeagoa ateratzen zelako. Horrela, umeak espazio seguru bat zuen, eta kanpoko familiak ere bai, umea kalera ateratzean kanpoan prest izan behar duen familia edo lagunak bera hartu ahal izateko. Bi kasuetan aukera hori zeukaten. Horrez gain, kartzelara joateko bidaiak ere ordaindu behar dira, ama diren eta haurra barruan duten guztiek dispertsioa pairatzen baitute.

Ama 2k beste haur bat zuen kalean, eta ezin zen berarekin egon hiru urte baino gehiago zituelako. Hau hilabetean bitan joaten zen ama eta arreba ikustera, eta nahiko ondo eramaten zuen. Ama honek kontatzen duenagatik haurrei beti egia esatea klabea izan da eta, horrela, kanpokoak ere ez du enbidiarik izaten amarekin ez egoteagatik. Kontatzen digu noizbait galderak egiten zituela, baina egoera ulertzen zuela, hasieratik kontatu izan ziotelako.

Kartzelatik kalera

HAURRAREN BEHIN-BETIKO IRTEERA

Ama 1ek kontatu digu konfiantzazko psikologoak esandako gomendioa betetzen hasi zela, azken urteak umeak irteera luzeagoak egitea eta Euskal Herrira bidaiak egitea, umeak bizi beharko duen leku horren inguru hurbila ezagutzen joateko. Kontatu du, bere haurrak ikara ziola gauari, kartzela barruan ez zutelako gaua inoiz kanpoan bizitzen, gauean beti zeldetan zeudelako, eta ohitzen hasi behar izan zela. Horrez gain, kontatzen digu kaleko jendea nahi gabe asko hurbiltzen direla umeengan eta, ateratzen hasten direnean, hauek agobiatu egiten dira, baita kalean bere tutorea den pertsona ere, ikusten duelako umea ez dagoela ondo. Komentatzen digu haurra irteerarako prestatu behar dela, bestela ondorio psikologiko handiak izango dituelako. Bere haurrak hamar egun ematen zituen herrian ateratzen zenean, irteerarako prestatzen ari zirenean, azken urtean lau aldiz. Umeak aita zeukan kanpoan, eta hasieran ez zuen ondo eramaten berarekin ateratzea, ez baitzuen atxikimendua guztiz landua, baina handitu ahala oso ondo eramaten zuen, espetxetik kanpo egotea zer zen ulertzen hasi zelako. Haurra kalera joatea eskatzen hasi zen barruan zeuden lagunak kanporatzen joan ahala, eta bi irteeratan haurrak ez zuen sartu nahi, nahiz eta gero sartu. Ama 1ek esaten digu ez duela beste umeengan inoiz hura ikusi, eta uste duela bere

lagunak dagoeneko kanpoan zeudelako izan zela. Ama honek arazoa ikusi bezain pronto laguntza profesionala eskatu zuen, haurraren egokitzapena ahalik eta onena izan zedin.

Psikologoek hainbat gomendio eman zizkieten, adibidez, gertatuko zena antzezten zuen rol joko bat egitea panpinekin: urtebetetze festa egongo zela, gero bera kanporatuko zutela eta amak barruan jarraitu beharko zuela kondena amaitu arte, eta aurrez-aurrekoetan ikusiko zutela elkar. Horrek umeari egoera ulertzen lagundu zion, eta aurrez-aurrekoetan oso ondo zegoen amarekin. Ama atera zenean, ordea, haurrak jarrera aldaketa izan zuen etxean. Lehenengo hiru egunetan amarekin soilik nahi zuen, baina ostean jarrera aldaketa handia izan zuen eta amarekiko eta inguruarekiko agresibitate handia ateratzen hasi zen, homeopatiatz medikatu behar izan zuten arte. Ama haurdun atera zen kartzelatik, eta bere ustez, agian horrek ere haurraren jeloskortasuna areagotu zuen. Amak ez zuen lan egin hasieran eta umea laguntzen pasatu zuen denbora. Psikologoaren arabera, etapa hori bizitzeak ere ondo egin zion, gaur egun umeak lasai asko hitz egiten baitu kartzelaz eta bere sentimenduetaz, minik izan gabe, nahiz eta esan ez duela kartzelara bueltatu nahi. Pentsatzen du eskolan agian ez ziotela dedikatu denbora askorik umearen egoerari, eta haiek agian ez zutela ondo egin, ez zirela bigarren haurraz momentu horretan haurdun geratu behar. Amak dio haurra abandonatua sentitu zela, horregatik gero ez zuela berarekin joan nahi, eta nahiz eta haurrak gaur egun horrela ez gogoratu, orduko bizipena hori izan zen. Ama honek bost hilabete gehiago pasa zituen kartzelan umerik gabe.

Ama 2k ere aurretiaz prestatu zuen irteera. Beste ume euskaldun batekin zeuden, eta ume horrek baino hilabete lehenago bete zituen hiru urteak. Honek ere bidea egin zion bere haurrak kaleratzea hobeto egiteko. Beste umea atera zenean hasi zen lanketa egiten, bere ustez adin horretako haurrek ez dutelako denboraren kontzepzioa oso garatua, eta bestela haurra nahastuko zelako. Hilabete horretan askotan azaldu zion aita eta nebarekin joan behar zela bizitzera Euskal Herrira, bereziki azken astean. Jokoaren bidez ere egin zuen bidea eta horrek asko lagundu zien. Haurra gustura bueltatzen zen ama bisitatzerantz eta askotan berarekin geratu nahi zuela esaten zion. Ama honek bi urte gehiago pasa zituen kartzelan umerik gabe.

LEHENENGO AURREZ AURREKOA HAURRA ATERA OSTEAN

Lehenengo aurrez-aurrekoa bi amek umearekin egon ziren kartzela berean egin zuten. Haien ustez hau oso erabaki ona izan zen, haurrak ez zituelako egun asko pasatu ama ikusi gabe, eta, beraz, ez zuen antsietatea sentitu. Ama 2k dio gaur egun hori berdin-berdin egingo lukeela, nahiz eta gogorra izan, onuragarria izan zelako haurarentzat. Ondo ulertu zuten Euskal Herrira bueltatzea, eta leku ezaguna izateak ere lagundu zuen, haurarentzako dena berria izan ez zedin.

AMAREN HARREMANA ESKOLAREKIN

Bi haurrak eskolan hasi ziren atera bezain pronto. Biak bizi dira eskola txikiak dituzten herri txikietan. Bata atera bezain pronto joan zen eskolara, nahiz eta ikasturtea hasita egon, eta aitak egokitzapena egin zuen berarekin. Bestea, irailean atera zen, beraz, ikasturtea besteekin batera hasi zuen. Lehenak lau egun eman zituen egokitzapenean irakasleak aitari haurra ordu guztiak gera zedin esan zion arte. Amaren ustez goizegi izan zen, baina haurra pozik zihoan eskolara.

Barruan bi urtez geratu zen Ama 2k harremana zuen haurrarekin zegoen irakaslearekin, nahiz eta gutxi izan, esaterako, noizean behin gutunen bat jasotzen zuen. Esaten du bere haurrak eskolan ere oso babestuak egon direla.

GAUR EGUN BERDIN ERREPIKATUKO ZENUKE?

Ama 1ek kontatzen digu ez lukeela errepikatuko. Bere haurrak gaizki pasatu zuen ateratzerakoan eta min hori aurreztu nahiko lioke haurrari, nahiz eta haurra barruan egoteak ere alde on asko izan dituen. Hasieran ez zuen hau esaten, baina honen inguruan terapia egin ostean kapaza da esateko ez lukeela errepikatuko.

Ama 2k, ordea, berdin-berdin egingo luke dena. Bere haurrak ez zuen aurrekoak bizi izan zuen sufrimendua bizi, eta ustez, ondo egin zutenez, berriz errepikatuko lukete.

Irakaslea:

Irakaslearekin ama hauen umeetako baten eskolaratzeaz aritu nintzen, haren ikuspuntua jakin nahian.

Eskolara sartzea

Haurrak egokitzapen txiki bat egin zuen aitarekin, baina irakaslearen arabera segituan eskatu zuen egun osoa hor geratzea. Lagun bat zuen gelan, ume erreferente bat, eta horrek asko lagundu zion.

Eskola txikia da, herri txiki batekoa, eta horrek ere, honen ustez, asko laguntzen du egoera honetan dagoen umea egokitzerakoan.

Erortzen zenean edota disgustua zuenean beti aitaren izena esaten zuen, eta ez zuen bere aurreko bizitzaz ezer aitortzen. Noizean behin, nagusiagoa izan zenean, zerbait aipatu izan zuen, baina normalean ezer ere ez. Berak ez zuenez hitz egiten, irakasleak ere ez zion galdetzen, egoera arrunt batean zegoen haur bat bezala tratatzen zuela kontatzen digu.

Bere amaz ez zuen inoiz hitz egiten, espetxetik atera zen arte. Kanean egonda, bai, amaz hitz egiten zuen eta "ama etorri da" esaten zuen.

Hasieran, umearen jarrera nahiko serioa zen, baina pixkanaka ohitzen hasi zen eta konfiantza hartzen hasi zen. Aldaketa handia izan zuen denbora laburrean, eta nabaritzen zen dagoeneko eskola gune segurua zela berarentzako.

Aipatu bezala, herria oso txikia da, beraz haur honek beste haurrak ezagutzen zituen kaletik, parketik... eta horrek lasaitasun handia ekarri zion eskolara sartzerakoan. Babestua sentitzen zen. Eskola aurretiaz ezagutzea garrantzitsua den galdetu nionean bere, erantzuna argia izan zen, kasu hau kontuan hartuta. Herri txikia izanda, ez da beharrezkoa, baina, hala ere, laguntzen du.

Irakasle honen arabera, oso onuragarria izan zen haurarentzat besteek egokitzapena eginda izatea. Honek besteak eskolan eroso egotea zekarren, eta berari konfiantza transmititzea.

Ama dagoeneko kalean zegoenean, klasean bere egoeraz galdetu zioten, ea bera lehenago kartzelan egon zen. Berak kontatu zien amarekin egon zela espetxean, baina dagoeneko kanpoan zeudela biak, naturaltasun osoz.

Irakasleak uste du onena egoera normalizatzea dela, eta nahiz eta dudak izan, uste duela beste haurrei ez zaiela ume honen egoeraz hitz egin behar, ume txikiak izanda ez dakigulako nondik atera daitezken. Nire ustez hau ez da egokia, haurrak noizbait enteratuko direlako eta, nire iritziz, normalizatzea ez delako ezkutatzea. Egoera bat normalizatzeko asko hitz egin behar da horretaz.

Haur honek arazoak izan zituen zaratarekin. Zarata ozenak zeudenean (bideoetan, musika...) haurra izutu egiten zen. Honekin ikus dezakegu barruan bizitako hainbat soinuk umea markatu zutela.

Umea:

Umeari bere hirugarren urtebetetzea marrazteko eskatu zion bere amak. Ez zenez oso ondo gogoratzen, amak kontatu zion urtebetetze hori elkarrekin bizitzen pasa zuten azkena izan zela. Umeak urtebetetze festa bat marraztu zuen, mahai gainean pastel bat duela eta inguruan pertsona nahikotxo dagoen festa.

Haurrak bere marrazkia deskribatzean esaten du bere urtebetetze festa dela, eta hiru urte betetzen dituela eta pastel bat dagoela. Amak non dauden galdetzean, berak amonaren etxean daudela esaten du, eta marraztu dituen pertsonak zeintzuk diren galdetzean, berak aitatzko, neba, amatxo... esaten du. Bere amak berak hiru urte bete zituenean ea amatxo hor zegoen galdetzen dionean berak: ez, ez, ez, amatxo ez, hau izeba da. Amatxoren gaiarekin jarraituta, amak ea bera non zegoen galdetzen dio umeari, eta umeak kartzelan dagoela erantzuten dio. Honekin jarraituz, amak gogorarazten dio bera ez zela kaleko ospakizun

horretan egon, eta galdetzen dio ea berarekin ez zuen ospatu. Momentu horretan haurrak baietz esan eta kartzelan norekin ospatu zuen azaltzen hasten da.

Izenak botatzen hasten da, gogoratzen dituen guztiak, baina ez ditu denak gogoratzen eta, hala ere, ez du buruan kartzela bere hirugarren urtebetetzea deskribatzerakoan. Amak gidatuta, haurrak kartzelako urtebetetzea deskribatzen du.

Ume eta ama guztiak batzen ziren urtebetetzea ospatzeko eta pastel bat zegoen. Gogoratzen du goxokiak erosten zituztela ekonomatoan eta patio batean aita eta nebarekin egon zela, elkarbizitzako aurrez aurrekoa izan baitzuten egun horretan. Aurrez aurreko hori beste euskal preso baten familiarekin egin zuten, eta haiekin ere urtebetetzea ospatu zuen, baina hau ez zuen ondo gogoratzen, baina bai dio "poliziak" zeudela (espetxeetako funtzionarioak). Normalean, funtzionarioak ez dira elkarbizitzako aurrez aurrekoan egoten, bakarrik sartzean eta irteteen, baina, egun hartan, baimena eskatu zuten argazkiak ateratzeko, beraz, segurtasuneko funtzionarioak sartu ziren argazkiak egitera, eta honek hori gogoratzen zuen.

Funtzionarioetatik hitz egiterakoan, haurrak esaten du batzuk ondo portatzen zirela eta jatorrak zirela, baina batzuetan bakarrik.

Ikus daiteke, zehazki, ume honek ez duela laguntzarik gabe dena gogoratzen, baina kontuan hartu behar da urteak pasa direla. Hala ere, kartzelan bizitako hainbat gauza eta bizipen gogoratzen ditu, esaterako, berarekin egon zirenen izenak, funtzionarioen jarrerak, patioak, eta abar.

4. PROTOKOLO PROPOSAMENA

Espetxean bizi diren haurren kaleratzeak hainbat aldaketa sorraraziko dizkiola aurreikusi daiteke, are gehiago ama espetxe barruan geratzen denean. Horrexegatik, hainbat izango dira kontuan hartu beharreko puntuak bere egokitzapenak ahalik eta min gutxien sor diezaion. Prozesua kaleratzeko unea baino lehenago hasi behar da, haurra kartzelan bizi denean, eta hainbat izango dira kontuan hartzeko alderdiak.

Umearen inguruneak

Espetxean bizi den ume bakoitzaren egoera ezberdina dela kontuan hartuz, etorkizuneko kaleratzea planifikatzerakoan, ingurunea oso kontuan hartu behar izango da. Haurraren ongizatea izan behar da lehenetsua beti. Horretarako gomendioak zerrendatu ditugu jarraian:

- Haurra kaleratu aurretik, kanpoan norekin biziko den erabaki beharko dute haurraren tutoreek. Horretarako, goian esan bezala, haurraren ongizatea lehenetsi

beharko da beti. Kalean aita eta familia izanez gero, normalean haurra haiekin biziko da, baina, aintzat hartu behar da bere ardura izango duen jendea horretarako prest dagoen. Familia izan ezean, edota hauek prest egon ezean, haurraren ongizatea bermatuko duen beste espazio bat bilatu beharko da honek bere biziarekin aurrera egin dezan ahalik eta hoberen, esaterako harrera-familia edo harrera etxe bat.

- Erabaki hau hartuta, umeak biziko den inguru fisiko eta sozial berria ezagutzea onuragarria izango da, horrela, espetxea guztiz uzten duenean, ez baita dena berria izango berarentzat. Hau da, denbora pasatu beharko du haren zaintzaileak izango diren pertsona berriekin, bere espazio fisiko berria izango dena ezagutzuz.
- Gurasoei ez zaizkie guraso-eskubideak kendu behar, ezta adingabeak adopzioan jarri ere, adingabearen interes gorena kontuan hartu gabe. Haurraren interes gorena ebaluatzeko gida bat egin behar da (Robertson, 2011).

Komunikazioa haurrarekin, kaleratzearen prestaketa

Oso garrantzitsua da haurrak ulertzea zein testuingurutan bizi den eta etorkizunean ez duela espazio horretan jarraituko. Horretarako haurrarekin komunikazioa ezinbestekoa da, bestela, etorkizunean ez du bere testuinguru berria ondo ulertuko. Gomendioak puntu honetarako:

- Haurrari errealitatea ez ezkutatzea oso garrantzitsua izango da, konfiantza premiazkoa izango delako ama eta haurraren harremanak sendo jarrai dezan. Horregatik, hiru urte betetzen dituztenean jada ez direla haien amarekin espetxe barruan biziko azaldu beharko zaie. Hala ere, kontuan izan behar da, nahiz eta haurraren garapen sozio-afektiboa 2-3 urte artean nahiko garatua egon, helduengatik hainbat gauza oraindik ez dituztela ulertzen, beraz, komunikazioa haiek ulertzeko ahaleginarekin egin beharko da. Espetxetik ateratzen direnerako, haien garapen sozio-afektiboa garatuago dago, eta pixkanaka hobeto ulertuko dute egoera, betiere ondo azalduz gero.
- Behin umea norekin biziko den erabakita, haurrak ere jakin beharko du. Ezberdina izango da egoera umeak pertsona horiek ezagutzen baditu ala ez, baina, nahiz eta ez ezagutu, informazio hau eman beharko zaio.
- Espetxea uztea eta ama barruan geratzea ulergaitza izan daiteke, horregatik, gomendagarria da komunikazio hau joko eta ipuinen bidez lantzea, gaia jorratuz, eta etorkizun hurbilean biziko duena erakutsiz. Kontuan izan behar da, haurrek adin

horretan denbora oraindik ez dutela kontrolatzen, beraz, pixkanaka hasi behar da eta data gerturatu ahala gero eta gehiago landu.

Profesionalen laguntza

Haurraren banaketa gertatzerakoan, honen sufrimendua handia izan daiteke, horregatik, nahiz eta askotan pentsatu gestionatzeko kapazak garela, hutsune emozionala izan dezakegu. Hau ekidin ahal izateko laguntza profesionala oso gomendagarria da. Gomendioak hauek dira:

- Haurrak eta amak laguntza profesionala izan beharko dute haien emozio eta sentimenduak kudeatzen ikasi edo horretan gidatzeko. Laguntza hau banaketa baino lehen, bitartean eta ostean eman beharko da, haien beharren arabera, bidean lagun izaten.
- Horrez gain, gomendagarria izango da kanpoan haurrarekin biziko den familiak laguntza honekin kontaktu ahal izatea.
- Profesionalen gomendioak jarraitu beharko dira, betiere haurraren ongizatea bermatu ahal izateko.

Kanpoko tutoreak, atxikimendu irudi berria

Haurraren kaleko tutoreak zeintzuk izango diren jakinda, hauek errutinak ezagutzea ezinbestekoa da. Kontuan izan behar da haurraren atxikimendu irudia bere ama dela eta lortu beharrekoa beste atxikimendu berri batzuk sortzea da, ez ordurako dituenak apurtzea.

Gomendioak:

- Garrantzitsua izango da amak eta tutore berriek komunikazio zuzena izatea haurra kalean egon baino lehen, bitartean eta ostean.
- Amak ezagutzen du umea inor baino gehiago, horrexegatik, honek haren kartzelako ohiko errutinen berri, umearen gustuen berri edota umearen inguruko gauza sinpleen berri emango die tutore berriei, esaterako, haren lagunak zeintzuk diren... Ezin dira umearen kartzelako ohiturak eta bizipenak bat-batean apurtu, bere erritmoa beharko du bizitza berrira egokitzeke.
- Haurrak tutoreak egunerokotasunean ezagutu ahal izateko aldi baterako irteerak garrantzitsuak izango dira. Irteera hauek gero eta luzeagoak izatea gomendatzen da.
- Kanpoko tutoreekin aldi-baterako irteeran dagoenean, hauek amarekin egun batzuetan bueltatuko dela azaldu beharko diote, kontuan izanda momentu horretan, oraindik, haurra espetxean bizi dela.

- Espetxea den bere konfiantzazko espazio segurua guztiz utzi gabe, kanpoan beste espazio seguru bat lor dezan saiatu beharko da. Horretarako haurrari konfiantza eman beharko zaio.
- Amak umeari tutoreetaz hitz egitea oso gomendagarria da, ikusaraziz amarentzako ere gune segurua dela. Horrek segurtasuna emango dio umeari ere.
- Behin betiko kalean dagoenean, tutoreek haurrari behar beste azalduko diote amak ez duela alboratu. Banaketa hori amak oraindik espetxean egon behar duelako dela azalduko diote, baina ateratzean, amarekin elkartuko dela, haurrak senti ez dezan abandonatua izan dela.
- Garrantzitsuena haurra bere etxean dagoela sentitzea izango da, eta nahiz eta askotan erraza ez izan, umearen ongizatea izango da lehentasuna.

Egokitzapena

Haurrak, helduak bezala, haien bizitzako aldaketetara egokitu behar dira, eta bere tenpusak dituzte, horregatik, lanketa eginez gero, errazagoa izango da haientzat. Haurra bere espazio fisiko eta sozial berrira egokitzeaz gain, eskolara ere egokitu beharko da. Gomendioak:

- Garrantzitsua izango da haurraren erritmoa errespetatzea, pauso handia izango baita familia eta espazio berrira egingo duen egokitzapena.
- Haurrak gune seguru bezala ikusi beharko du bere espazio berria hara bizitzera joan baino lehen, honek errazagoa egingo du bere ondorengo egokitzapena.
- Amarekin kontaktua ezin da apurtu, ama da konfiantza gehien ematen dion pertsona, eta amak lasaitasuna transmitituz gero, errazagoa izango da dena.
- Gomendagarria da eskolako egokitzapena bere ohiko bizitokia izango den espazio berrira egokituta dagoenean egitea. Haurrak aldaketa asko izango ditu eta antsietatea sortu diezaioke horren aurretik egiteak. Hortaz, espazio berrira egokituta dagoenean, eta seguru sentitzen denean, eskolako egokitzapenarekin hasi ahalko da.

Haurraren eta amaren arteko komunikazioa, umea kalean egonda

Haurrak eta amak ezin dute kontaktua galdu. Ama izan da bere zutabea hiru urte bete dituen arte, eta atxikimendu hori apurtzeak arazoak ekarri ahal dizkio haurrari. Honetarako bisitak ezinbestekoak dira, eta gomendagarriena haurraren interes gorenarekin bat egiten duen modu eta maiztasunarekin egitea izango litzateke, kontuan hartuta espetxean bere ondoan bizi izan den amarekin izandako hurbileko harremana. Haurraren bisita horiek ezin izango liriateke ohiko bisita bezala kontabilizatu, eta beraz, ohiko beste bisitaren bat kendu

horri lekua egiteko. Ama eta haurraren arteko komunikazioak ez lukete espetxeek markatu behar (Robertson, 2011). Estatuak horrela egiten uzten ez duenez, mugen barruan, haurraren beharretara egokitu beharko dira bisitak. Bisitez gain, haien arteko komunikazioa maiztasun handikoa izango da, telefona erabiliz. Gomendioak:

- Garrantzitsua izango da haurrak amarekin kontaktua ez galtzea, eta ahal den heinean, maiztasunez izatea. Haurrak jakin behar du ama hor duela eta nahiz eta era ezberdinean egon, berarekin kontu dezakeela.
- Posible den neurrian, haurra amarengandik hurbil biziko da, haurrak ahalik eta kilometro gutxien egin dezan ama ikusi ahal izateko. Hau askotan, ezinezkoa da, ama presoek sufritzen duten dispertsioaren ondorioz.
- Bisitetan nor joan daitekeen ala ezin daitekeen joan erabakitzea haurraren beharren arabera izan beharko litzateke, ez espetxeak esanda. Familia-egiturak eta harreman ez tradizionalak kontuan hartu behar dira nor kontatzen duen senide gisa sailkatzean, eta familia bateko adingabe guztiei aukera eman behar zaie kartzelan dagoen gurasoa bere heldu zaintzailearekin edo arduradunarekin bisitatzeko, hala nahi badute. Segurtasun-neurriek ez dute eragotzi behar haurrak kartzelan dagoen gurasoarekin harremanak izateko duen eskubidea, tutorea ez delako "familiakoa". (Robertson, 2011).
- Espetxeko giro fisikoak eta langileek hurrekin duten portaerak lagungarria izan beharko du. Espetxea bisitatzeko duten haurren beharrak asetzeko instalazioak eduki behar dira, osasun-zerbitzuetarako sarbidea, jolasteko guneak edota gurasoak ikusi, entzun eta ukitu ahal izateko eserlekuak (Robertson, 2011).
- Bisiten giroa ahalik eta erosoan egiten saiatuko da, haurra gustura sentitu dadin eta bere amaren konpainiaz disfrutatu dezan.
- Haurraren behar eta nahiak kontuan hartuko dira, beti ere haren ongizatea bilatuz.

Ama, haurra eta eskola

Eskolarekin harremana garrantzitsua da. Haurrak, bere espazioa utzi eta leku berri batera joateaz gain, jende berriarekin topatuko da eta. Gomendioak:

- Eskola haurraren egoeraren jakinaren gainean egoteak erraztasunak emango ditu komunikaziorako. Horretaz gain, eskolak eta irakasleak umearen egoera bereziraiko egokitzeapena prestatu ahalko dute.
- Kaleko tutoreek eskolarekin duten harremanaz gain, ahal den neurrian, espetxean dagoen amak ere kontaktua izango du bai eskola, bai irakaslearekin.

- Eskolan haurra era normalizatu batean tratatua izan behar da, bera beste umeen berdina baita.
- Irakasleak amarekin harremana izatea onuragarria izango da. Harreman hau eskola hasi baino lehenago egin badaiteke, amak irakasleaz hitz egin ahalko dio umeari, eta honek konfiantza erakutsiko dio.
- Haurra eskolan egonda irakasleak eta amak harremana izateak naturaltasuna emango dio egoerari, eta haurarentzako erosoagoa izango da ama eta kartzelaz hitz egitea. Horrez gain, amak haren hezkuntzan eta eskolan parte hartuko luke era aktiboan, eta hori beti da ona eta onuragarria umearentzat.

Materialak:

Ez dago material askorik gai hau hurrekin jorratzeko, eta ideala material berriak eta pedagogikoak sortzea izango litzateke. Hala ere, segidan daude aurkitu ditugun material batzuk:

- **Maritxipi eta amatxo:** Ipuina. Sara Majarenasek idatzitakoa, Mikel Orbegozok marraztutakoa eta Joxe Mari Carrereren kolaborazioa duena.
 - Kartzelan jaio eta bizi den haur baten istorioa kontatzen du hiru urterekin kartzelatik kanporatzean. Kartzelaren inguruko beste hainbat gai ere jorratzen ditu: deiak, gutunak...
- **Motxilaren umea:** Filma.
 - Maiderren historia da, alegia bere ama espetxean daukan adingabeko neska batena. Beraien arteko harremana agertzen da eta haurren garapen pertsonala zirkunstantzia honen menpe dagoela ikus daiteke bertan. Gertaera hau askoz larriago bihurtzen da bere ama etxetik ehunka kilometrotara bizi delako, eta ondorioz, gurasoen aldetik afektibitatea jasotzeko eta beraiek hezita izateko eskubidea ukatuta gelditzen da.
- **Ilargiraino:** Komikia. Mikel Orbegozok egina.
 - Komiki honetako hainbat kapitulutan, hurrek espetxeratuta eta dispertsatuta dauden haien gurasoak bisitatzeko egin behar duten "ilargiraino"ko bidaia kontatzen da, baita bizi dituzten hainbat egoera ere.

5. HAUSNARKETA ETA ONDORIOAK

Lan hau egiterakoan, hainbat pauso eman behar izan ditut, batzuk zailak izan diren arren. Hasieratik, jakin izan nuen zein gai jorratu nahi nuen, zergatik, eta nola, baina gai honen enfokea aurkitzea izan zen lehen pausoa. Hainbat ume ezagutu izan ditut espetxearen egoera latzak bizi izan dituztenak, eta hau landu nahi nuela argi nuen.

Planifikazioa egiteko, zuzendariarekin adostu nituen hasierako epeak, kronograma bat eginez. Nahiz eta hasieran erraza iruditu, azkenaldian bizi izan dudana egoera pertsonalagatik ezin izan nuen bete, beraz, GrAL-a atzeratzea erabaki genuen. Egiturari begira, lehen pausoa marko teorikoa, metodoa eta lanaren helburuak osatzea izan zen. Horren ostean, emaitzak ateratzea planifikatu genuen, hau da, elkarrizketen emaitzak eta protokoloaren proposamena. Lanaren ondorioak egitea izan zen azken pausoa, zuzenketen aurretik.

Lana osatzeko lehenengo pausoa, nik nekizkien ideiak kontrastatzea eta informazio gehiago bilatzea izan da. Honetarako, nire zuzendaria izan den Amaia Alvarez Uriak, Esti de Miguel aditua aurkeztu zidan. Honek berak zituen baliabideak eman zizkidan: liburuak, hitzaldiak, artikulak, ideiak... Haiei esker, gai honi buruz argitalpen gutxi egon arren, bibliografia sakonagoa erabili ahal izan dut, eta horretaz gain, beste aditu batzuen hitzak entzun ere. Baliabide hauek guztiak irakurtzea, ikastea, filtratzea ez zen erraza izan, galduta ikusten bainuen nire burua, baina asko elikatu nau jakituriaren bidean. Lehenengo irakurketa sakona egin nuen, baina, bidean, beste hainbat alditan hartu behar izan ditut irakurgaiak eta apunteak.

Honi esker, hainbat gauza lortu izan ditut, esaterako, preso dauden pertsonen egoerak ezagutu eta ulertzea, eta preso egoteaz gain ama direnentzat eta barruan umea izateak dakarrena ulertzea.

Hau, ez da izan erraza, eta honetarako liburu, aditu, preso, preso-ohi edota ume ezberdinekin egon naiz, eta haien testigantza ezberdinak entzun eta irakurri ditut. Marko teorikoa osatzeko preso batekin eta preso ohi batekin hitz egiteko aukera izan dut, kartzelako funtzionamendua eta han pairatzen diren egoerak ulertuz. Pertsona hauek, nire egunerokotasunean presente dagoen jendea da, bereziki preso dagoena, eta horregatik haien testigantzak entzun eta lantzea oso latza izan da. Kartzela gertutik bizi izan dudana pertsona naiz ni, eta erraza egingo zitzaidala pentsatu nuen hasieran, baina ez da horrela izan, gertuko pertsona hauen ahotsetik bizipenak entzun, landu, eta filtratu ahal izatea asko kostatu baitzait.

Beste bi preso ohirekin egoteko aukera izan dut, kartzela barruan haien umeekin bizi izan diren emakumeekin. Hasieran, hainbat emakumerekin lotzeko esperantza nuen, baina ez

da erraza izan, beraz, bi emakume hauekin landu dut bereziki haiei elkarrizketa eginez. Etxerat elkartearen bidez lortu nuen haiekin harremana, eta beraiekin geratu nintzen elkarrizketa egiteko.

Elkarrizketak egiterakoan, nire proiektua aurkeztu nien elkarrizketatuei. Azaldu nien, hasieran GrAL bat izango zela, ikaskuntza-zerbitzu bat, baina, proiektu honekin jarraitzeko intentzioa neukala etorkizunean. Elkarrizketa guztiak aurkezpen eta solasaldi txiki batekin hasi ziren, baina, pertsonaren arabera, solasaldi hori ezberdina izan zen. Preso egondako pertsoneri gai honekin dudan harreman pertsonala eta nire proiektuaren ideia nondik zetorren kontatu nien, eta irakaslearekin, hezkuntza esparruko hainbat gai ukitu nituen, nire proiektuak izango zuen inportantzia hezkuntza esparrura ekarriz.

Haienez, ez da gai erraza, beraz nahiz eta gidoi bat eraman, era naturalean hitz egitea erabaki genuen. Haien testigantzak entzutea ere zaila izan zen, aurrekoetan gertatu bezala, era pertsonalean ere eragiten zidalako. Hala ere, elkarrizketa ondo bideratzeko kapaza izan nintzen, bi emakume hauek ere erraztasun handiak eman zizkidatelako. Elkarrizketa, hasi zen moduan amaitu zen, era naturalean, eta gure artean eroso egoteak, galderak eta erantzunak erraz adierazi ahal izatea ekarri zuen. Anekdotekin amaitu genuen, bakoitzak kartzelarekin dugun edo izan dugun lotura kontatuz, amankomunean ditugun gauzez hitz eginez, edota proiektuaren helburuak azaltzea izan ziren elkarrizketak bukatzeko atera ziren gaiak.

Haurretako baten irakaslearekin elkarrizketa egitean, nire ustetan, nire nerbioek kale egin zidaten, eta ezin izan nuen elkarrizketa naturaltasunez kudeatu. Gidoiaren laguntzaz baliatu nintzen, eta behar nuen informazioa lortu ahal izan nuen. Geralekua, gaur egun begirada atzera botata, ez zen egokia izan. Taberna batean geratu ginen, baina, telebista oso altu zegoenez, grabazioaren kalitatea ez da oso ona. Hurrengo baterako, leku lasaiago batean geratuko nintzateke.

Azkenik, haurretako batek marrazki bat egin zuen, bere hirugarren urtebetetzea azalduz. Hau bideoz grabatu zuen bere amak, berari azaltzen ziolarik. Hau egitean, arazo tekniko bat egon zen eta bideoa ezabatu zen, beraz, amak grabazio baten bidez egin zidan kronika. Honi erreparatuz, hurrengo batean alderdi teknikoa kontuan hartzekoa dela uste dut.

Protokoloa idazterakoan ere, zailtasun ugari izan ditut. Askotan, ez dut nire buruarenganako behar beste konfiantza izan. Uste dut, nire hitzen zilegitasunean gehiago sinestu beharko nukeela, bereziki etorkizuneko hezitzaile izango naizen heinean.

Konturatu naiz, legeak edota estatuak esaten duena ez dela betetzen, haien egoera prekariora eta gogorra dela, eta askotan nahi ez dituzten erabakiak hartzeraz, edota ez hartzeraz, eramaten dituztela. Ez dizkiete erraztasunak ematen, are gehiago, esango nuke zailtasunak jartzen dizkietela egoera gehienetan, eta horrek haurrengan eragina izaten duela, estatuak

haien ongizatea bermatu beharko lukeenean. Ume hauek haien amen eta familien babesaren izaten dute, baina ez dago babes hau espetxearengandik bermatuta.

Konturatu naiz, preso ohi hauen erabakiak beti izan direla haien umeen ongizatea bermatzeko hartuak, nahiz eta askotan, haiek hainbat gauza izan galtzeko erabaki horiekin.

Gai hau lantzeak barrutik aberastu nauela esan dezaket, nire barnea betetzen joan dela, haiekiko empatia landuz; tristura, poza, urduritasuna eta beste hainbat sentimendu gestionatuz. Egia esateko, era pertsonalean asko mugitu nau, eta sentitutako gertutasunagatik, asko kostatu zait lan hau burutu ahal izatea. Sentitutakoagatik eta nire momentuko egoera pertsonal zailagatik, lana atzeratu behar izan dut, baina honek hainbat puntu ezberdinetan sakondu ahal izatea ekarri dit, lana aberatsagoa izateko aukera emanaz. Beraz, ez naiz batere damutzen behar izan dudana denbora hartu izanaz.

Lanean zehar hainbat egoera kritiko izan ditut. Osasun aldetik ez naiz oso fin egon azken urtean, eta horrek lana atzeratu du hainbat aspektutan. Ez naiz gutxirekin konformatzen naizen ikaslea, eta nire buruari eskatzen diodan esijentzia mailak askotan ez dit ondo egin. Lan honetako fase guztietan izan dut nire lanarekin gustura ez egoteko momentua, lan fina ez zela pentsatuz, eta honek maiz atzeratu du erritmoa lan egiteko orduan. Lanean nabil nirekiko konfiantza sustatzeko, nire buru, ideia edota jakintzei zilegitasuna emateko, eta bidea luzea dela konturatu arren, lan honek nire buruarekiko konfiantza maila igotzen lagundu dit. Atzeratu behar izan dudana lana izan da, baina harro sentitzea eragiten didan lana ere bai.

Etorkizunean arazo hauek berriro izatekotan ez dakit nola erantzungo niekeen, baina badakit laguntza eskatzen ausartzeak on egin didala, beraz, berriro ere, nire egoera pertsonala azalduko nuke eta laguntza eskatzeko kapaza izango nintzatekeela uste dut, lotsarik gabe. Lan honek nire bizitza pertsonalean indartsuago egin nauela ikusten dut egunero.

Zaila izan da aspektu askotan, baina ikasi, sentitu eta konpartitu dudana merezi izan du. Uste dut, egindako lanetako pautak batzuk ongi egingo diela egoera zail hauetan bizi diren haurrei, eta hori jakitearekin soilik, merezi izan du.

6. BIBLIOGRAFIA

- Ainsworth, M., eta Bell, S. (1970). Attachment, exploration, and separation: illustrated by the behavior of one-year-olds in a strange situation. *Child Development*, 41(1)
- Ainsworth, M.D. (1979): "Infant-Mother Attachment". *American Psychologist*, 34(10): 932-937
- Aranjuezen preso dauden ama euskaldunak. (2016). *Dossier. Módulo de madres de la prisión de Aranjuez y vulneración de derechos*.
- Bilbatua, M., eta Amenabarro, E. (2019). *Motxiladun haurrak. Hezkuntza inklusiboaren ikuspegitik hezkuntza premien inguruko analizi eta proposamenak*.
- Boix, M.T. y Aguirre, A.M. (2017). La infancia entre Rejas: necesidades y demandas. *Revista Nacional e Internacional de Educación Inclusiva*. 10(1). 31-44 orr.
- Comino, P. (2016). 3. Gaia: Atxikimendua. Euskal Herriko Unibertsitatea
- De Hoyos López, M. C. (2015). ¿Entendemos los adultos el duelo de los niños?. *Acta Pediátrica Española*, 73(2).
- Díaz Barón, M. (1988). Socialización, sociabilización y pedagogía. *Maguaré*, 6-7 zkia.
- Euskal Herriko Bilgune Feminista. (2019). *Hau ez da gure bakea. Euskal Herriko gatazka eta emakume preso politikoaren inguruko irakurketa feministak*. Emagin.
- Etxague, K., Martinez, I., eta Mazkieran, A. (2000). 0-3 urte bitarteko haurraren garapen psikologikoa. *Hik Hasi*, 48, 31-35.
- Etxerat Elkarte (2016). Dispersioaren haurrak. Espetxe Politikaren alderik ilunena. Donostia. Webgune honetatik berreskuratua:
https://www.etxerat.eus/descargas/informes/dossier/Ni%C3%B1os%20y%20dispersi%C3%B3n_eu.pdf
- Fernández Pujana, I. (2014). *Feminismo y maternidad: ¿una relación incómoda? Conciencia y estrategias emocionales de mujeres feministas en sus experiencias de maternidad*. Vitoria-Gasteiz: Emakunde/Instituto Vasco de la Mujer.

- Gea, M. J. (2017). Maternidad en prisión. Situación de los hijos e hijas que acompañan a sus madres compartiendo condena. *Papers*, 102(2), 287-310.
- Gea, M., Domínguez Saánchez-Pinilla, M. eta Sádaba, I., 2014. *Una Condena Compartida. Un Estudio De Caso Sobre El Control Penal*. Madrid: Tierradenadie ediciones.
- Grossmann, K. (2004). Atxikimendua eta haurra taldean zaintzea: elkarrekin aurrera. *Jakingarriak*, 51, 14-27 orr.
- Jauregizar, J., 2013. Atxikimendua Ulertzen Hezkuntzaren Ikuspuntutik. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Jiménez, J., eta Palacios, J. (1998). *Niños y madres en prisión: desarrollo psicosociobiológico de los niños residentes en centros penitenciarios*. Madrid: Ministerio de Trabajo y Asuntos Sociales y Ministerio del Interior
- Lara, N.P. (2014). Evaluación de condiciones de salud, vínculos y prácticas de crianza en niños de 0 a 3 años que conviven con sus madres internas de la Reclusión de Mujeres El Buen Pastor de Bogotá Colombia. *Universidad Nacional de Colombia*. Webgune honetatik berreskuratua:
<http://www.bdigital.unal.edu.co/47079/1/05599534.2015.pdf>
- Linguído, M. C., eta Zorraíndo, M. R. (1981). Proceso de socialización en la etapa preescolar. *Revista de psicología*, 8.
- Lizaso, I. eta Apodaka, M. (2008). Giza garapen psikologikoaren ereduak. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea. Webgune honetatik berreskuratua:
https://ikasmaterialak.ehu.eus/psikologia/giza-garapen-psikologikoa/giza_garapen_psikologikoaren_ereduak.pdf
- Lopez, C. (2009). El periodo de adaptación. in M. P. Lebrero, *Especialización del profesorado de educación infantil*(58-80 orr.). Madril: UNED.
- López Estrada, R. eta Deslauriers, J. (2011). La entrevista cualitativa como técnica para la investigación en Trabajo Social. *Margen: revista de trabajo social y ciencias sociales*, 61. Webgune honetatik berreskuratua:
<http://www.margen.org/suscri/margen61/lopez.pdf>

- Marín, A. L. (1986). El proceso de socialización: un enfoque sociológico. *Revista española de pedagogía*, 357-370.
- Muñiz, M., 2007. *Cuando L@S Niñ@S No Vienen De París*. Valls, Tarragona: Noufront.
- Nicolás, G., Bodelón, E., Bergalli, R. eta Rivera, I., 2009. *Género y Dominación*. Rubí, Barcelona: Anthropos Editorial.
- Pacheco, B. eta Ventura, T., 2009. Trastorno de ansiedad por separación. *Revista chilena de pediatría*, 80(2).
- Palacios, J., eta Panigua, G. (1994). *Colaboración de los padres*. Pamplona: Gobierno de Navarra.
- Pardo, M., 2015. *Bizitza Bizitzen Hasi*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza
- Puig, J. M.; Martín X.; Batlle, R. (2007). *Gida 1: Nola jarri abian ikasketa eta zerbitzu solidarioko proiektu bat*. Bilbo Zerbikas Fundazioa.
- Puig, J. M., Batlle, R., Bosch, C. eta Palos, J. (2007). *Aprendizaje servicio. Educar para la ciudadanía*. Bartzelona: Octaedro.
- Polo, G. eta Alvarez Vasilef, J., 2018. La infancia en prisión: Factores que cuestionan su permanencia. *Lumen*, 18.
- Ruiz Olabuenaga, J. (2012). *Metodología de la investigación cualitativa*. Bilbao: Universidad de Deusto.
- Ruiz Torrado, M. (2016). *Kartzela genero-erakunde bezala*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Robertson, O. (2011). Los convictos colaterales: hijos de padres encarcelados. *Quarker United Nations Office*. Webgune honetatik berreskuratua:
- Rubio, L. (2008). *Zerbikas Gida 0: Ikasketa eta zerbitzu solidarioen sakelako gida*. Bilbao. Zerbikas Fundazioa.
- Santamaría C. Afrontamiento de pérdida: duelo/divorcio. En AEPap ed. Curso de Actualización Pediatría 2013. Madrid: Exlibris Ediciones; 2013. 433-439 orr. Webgune

honetatik berreskuratua: http://cursosaepap.exlibrisediciones.com/files/49-195-fichero/10_curso_Afrontamiento%20de%20perdida_santamaria_repiso.pdf

Sare Elkartea (2017). Motxiladun umeak. Espetxe politika honen ondorio ikusezina. Sare Elkartea. Gasteiz. Webgune honetatik berreskuratua: <http://sare.eus/wp-content/uploads/2018/04/Motxiladun-umeak-espetxe-politika-honen-ondorio-ikustezina-erderaz.pdf>

Sare Elkartea. (2018). Euskal emakume presoak. Webgune honetatik berreskuratua: http://sare.eus/wp-content/uploads/2016/06/2018_Emakumea-eta-Kartzela_Eus.pdf

Secretaría General de Instituciones Penitenciarias. (2010). *La prisión paso a paso*. Ministerio del Interior. Secretaría General Técnica. Webgune honetatik berreskuratua: http://www.institucionpenitenciaria.es/web/export/sites/default/datos/descargables/publicaciones/Paso_a_Paso_en_castellano.pdf

Secretaría General de Instituciones Penitenciarias. (2011). *Unidades externas de madres*. Ministerio del Interior. Secretaría General Técnica. Webgune honetatik berreskuratua: http://www.institucionpenitenciaria.es/web/export/sites/default/datos/descargables/publicaciones/Unidades_Externas_de_Madres_accesible.pdf

Simkin, H. eta Becerra, G. (2013). El proceso de socialización. Apuntes para su exploración en el campo psicosocial. *Ciencia, docencia y tecnología*, 24 (47), 119-142.

UNICEF (1989) Haurren Nazioarteko Eskubideen Konbentzioa. Nazio Batuen Asanblada Ginebra. Webgune honetatik berreskuratua: <https://www.un.org/es/events/childrenday/pdf/derechos.pdf>

Vara, L. (2001). Amatasuna eta espetxeak: hainbat euskal emakumeren esperientziak (Master Amaierako Lana). Euskal Herriko Unibertsitatea, Donostia.

Yagüe, C. (2007). Madres en prisión: historia de las cárceles de mujeres a través de su vertiente maternal. Granada: Comares.

Legeriaren inguruko dokumentazioa

Ley organica 1/1979, de 26 de septiembre, General penitenciaria

Real Decreto 1201/1981, de 8 de mayo, por el que se aprueba el Reglamento Penitenciario.

Webgune honetatik berreskuratua:<https://www.boe.es/buscar/act.php?id=BOE-A-1981-14095&tn=1&p=19951124>

Reglamento Penitenciario (RD190/1996 de 9 de febrero). Webgune honetatik berreskuratua:

<http://www.institucionpenitenciaria.es/web/portal/documentos/normativa/ReglamentoPenitenciario/rd190-1996.t3.html#a94>

7. ERANSKINAK

• ELKARRIZKETA 1: AMA (AMA 1)

Ainhoa:

(Lanaren azalpena...) Moduloa, zein gebezi ikusten zenituen eta moduloa azaltzea; azpiegitura aldetik, higienearen eta elikaduraren harira, hezkuntzaren arlotik, zaratak, harremanak, koloreak...

Ama1:

Niretzako gabezien artean da ziurtatzea inguru naturalarekin kontaktu bat edukitzea... azkenean, asteburuetan ateratzen ez bazenituen umeak adibidez, ia ia denbora guztia moduluan pasatzen zuten, ezinezkoa zelako askotan, edo gehienetan jardinerara ateratzea. Ta zer da modulu batean egotea ume batentzako? Ba niretzako... egun oso luzea izatea da, ez dagoelako eurek estimulatzeke gauza nahikorik eta baliabide naturalik... ba harri ziztrin bat... edo palo bat... hori ez dizu eskaintzen. Zorte bazenuen eta kanpotik babesba bazenuen, ba hori bermatzen zenuen, irteerekin, baina bestela horren falta nabaria. Gero jolasen kontua aipatu dugu... guk zortea izan genuen guri utzi zigutelako, baina jolasak ez eskuratzea, edo kanpotik sartzen ez uztea, oso grabea dela uste dut, ze azkenan barruan, txaboloan, ordu batzuk ematen genituen, adibidez, ordu bietan ixten baziguten, bostak arte, ba batzutan kointziditzen zuen umeak lo egiten zuela, eta beste batzuetan ez. Orduan, ordu horiek, leku hain txiki batean, eta ez badiozu nahi telebista ipini, dela tresna bat, bakoitzak erosi behar zuena... eta nik ez dut uste adin hauetan egokia denik, telebistan edukitzea umea ez dakit zenbat denbora. Ba jolasak, niri bereziki txabolo orduetarako, iruditzen zaizkit ezin bestekoak, etxe batean baino askoz gehiago, ze etxean nekatzen denean atera dezakezu, baina guri gertatzen zitzaigun txaboloko atea jotzea umeak eta esatea: kalera, kalera. Eta zuk esaten zenion: ez maitia, hemen egon behar dugu. Nahiz eta oso konziente diren, hasieratik beti guk egia kontatu diegu eta, ba nik uste dut horretan, zorionez edo zoritxarrez, azkarrago heldutu dira, errealtate hori bizi izan zutelako eta hain txikitatik hainbeste gauza ikusi behar izan dituztelako. Eta gero, adibidez, guretzako oso garrantzitsua zen ere janariaren kalitatea, eta ez bakarrik kalitatea, baizik eta nola ematen zuten. Hor arau batzuk zeuden, orain ez daukat gainean, baina bueno, imajinatu 18 hilabete arte ezin zuten umeek solido egoeran jan, bueno, sobratzen baldin bazen bai. Segun ze funtzionarioekin, 12 hilabeterekin ematen zizuten, baina beste batzuekin ez, eta klaro, ume batzuk 8 edo 6 hilabeterekin solido eskatzen zuten eta zer gertatzen zen? Ba, gure bandejatik eman behar geniela, baina klaro, gure bandejak oraindik kalitate txarragoak ziren, eta gainera ez ziren etortzen beraien ordutegian, baizik eta beste batean. Orduan, pixka bat desordena, ez? Errutina hain garrantzitsuak direnean adin hauetan, ba hor nik uste egoerak baldintzatzen zuten pixka bat "sobre la marcha" egitera. Janari ordua beti zen arazo bat, ze klaro, sobratzen bazen janaria ere, haurdun zeudenak edo laktanzian zeuden emakumeek zeukaten lehentasuna. Hori ondo zegoen, baina, lehenengo umeak izan behar ziren ez? Hori zen guk eskatzen genuena. Eta batzuetan, lan egiten zutenak "Ofisean", direla banatzen zutenak janaria, ba ez zituzten gauzak ondo kudeatzen, ta orduan, beti arazoak. Gero ere, funtzionarioak batzuetan hortik hartzen zuten janaria, hori ez dute kontatuko, baina horrela zen. Beti arazo bat zen, eta hor bai eskatzen genuela aldaketa bat, hori, kalitatea.

Ainhoa:

Higiene aldetik?

Ama1:

Higiene aldetik, nahiko ondo zegoela esango nuke nik. Amek garbitzen zuten moduluak, eta nahiko garbitasuna bazegoen hor. Arazoa zen zigarroekin, hori zen presoen aldeko borroka bat. Egunero horrekin mobida egoten zen, ze klaro, ezin zenituen, edo behintzat guk ezin genituen umeak utzi begiratu gabe tranquil patioan, ze edozein momentutan har zezaketen zigarro bat eta ahoan sartu. Ez dakizu norena, ezta zer zeukan bez, ze klaro, espetxean bereziki, gaixotasun asko daude. Funtzionarioak batzuk nahiko zorrotzak ziren eta horiek

zeudenean ez zen geratzen, bestela parteak jartzen zituzten a tutiplen eta akojonatuta zituzten, baina beste txanda batzuekin pues bai.

Ainhoa:
Espetxeko zaraten aldekin?

Ama1:
Espetxeko zaraten aldetik ere, ba oso gaizki. Alde batetik, megafoniaren kontua. Megafonia erabiltzen zutela edozein momentutan, berdin zuen umea lo egon, zer esateko... Hor egon zen garai batean, segun nor zegoen, ba lortzen zen gauza bat edo beste bat, eta gu egon garenean justu eskubidea zeukaten erabiltzeko nahi zuten momentu guztietan, errespetatu gabe ezer. Eta orduan, hori batzutan bazen pixka bat... tentsioa sortzen zuen edozer. Imajinatu umea gaixorik eta ez dakit zenbat denbora lo egiten saiatzen, osea lokartzen, eta momentu batean hor, megafoniatik edozer gauza esan eta esnatu. Edo holakoak, estres uneak sortzen zituen, eta nik uste amentzako ere, ze klaro, guk esaten genien, sistema itxi batean bizi gara, umeak dira lehentasuna, baina amak ere ondo egon behar du, eta ama ez badago ondo, ba umeak ere ez dira ondo egongo. Ta azkenean arazo bat, eta konpon ezina uste dut, ze oraindik ere antzeko jarraitzen dute.

Ainhoa:
Zelakoak ziren beste ume eta amekin harremanak

Ama1:
Guk egia esan, umeekin harremana bagenuen guztiekin, denak zaintzen genituen ondo nahiz eta amekin ondo edo gaizki moldatu, baina ama askorekin arazoak zeuden. Ba adibidez, baziren ama batzuk, ba, haien umei deitzen genien "los niños del viento" gaztelaraz, ez zeudelako momentu batean ere ez, ta orduan ume batzuk edozein unetan eta lekutan, ba igual kaka edo txiza egiten zuten eta ez zegoen inor. Ta guri bai egokitu zitzaigun pixka bat, ez dakit nola esan, ba pilak... ba amengana zuzendu eta batzuetan rolloak izaten genituen, ze klaro, ez dugu beste guztiok pairatu behar zu arduragabea izatea, ez? Edozein leku zikin egotea edozein momentutan. Gero, harreman sano eta politak ere sortzen ziren. Azkenean ordu pilo bat dira umeekin, guretzako oso intentsoa da hor bizi, ume gabe edo umeekin, baina umeekin sortzen den "vinculoa" ez da kalekoaren modukoa. 24 ordu zaude hor, kenduta gure kasuan astean hiru egunez eramaten genituela haur-eskolara, eta orduan sortzen da, ez bakarrik harremana zure umearekin, baizik eta inguratzen dituen guzti horiekin, sortzen da familia bat. Familia bat ondo moldatzen zarena amekin eta denekin. Hori polita, baina ez dakit esango nukeen erabat sana den, ze gero ondorioak ditu nire ustez kalera begira. Adibidez nire haurra atera zenean, ba nola ulertzen zituen harremanak... ez zituen beste umeek bezala ulertzen harremanak kalean. Adibidez, etorri zen eta elkartu zen ume batekin eta pilo bat egoten zen berarekin, umeak bi aste pasata ia ez zion kasurik egiten eta berari hori ulertzea asko kostatu zitzaion eta egokitzea, ulertzea ume horrekin izan duen harremana ez dela izan berarekin kartzelan egon zirenekin bezalakoa, ze espetxean neba-arreba batzuk bezala bizi ginen eta kalekoa beste rollo bat zen. Hor gun bere momentuan psikologoaren laguntza eskatu genuen, pixka bat egoera kudeatzeko.

Ainhoa:
Espazioen diseinu eta koloreen inguruan?

Ama1:
Ba kolorean nik uste dut bazeudela. Niri adibidez, orain ikusten ditut moduluko argazkiak eta ikusten dut Disney a tope... ba bueno, momentuan umeak erakartzeko balio zuen, baina egokia... irudi errealak ez ziren, kolorea bazegoen irudi horietan baina beste dena modulu arrun baten modukoa zen, eta txaboloak ere ez dauka kolorerik. Edo zuk ematen diozu zure kolorea... Ze ikusi dugun argazkia agian moduluko hoberena zen, ze ez badaukazu familia bat, ez duzu asistentzia bat, ez duzu edredoi bat ganorazkoa... kartzelak ematen dizun kolore batekoa. Orduan klaro, justu gure kasua da bereziena, hoberen geundelako zentsu horretan, kanpokoek sartzen zigutelako.

Ainhoa:
Haurrentzako beharrezko materiala ematen zizueten?

Ama1:
Dodotisak eta halakoak bai ematen zituzten. Hor bai gertatu zen ba urte batetik aurrera eman zela murrizketa bat. Gauza gutxiago ematen hasi ziren, ba adibidez, hasieran biberioiak, txupeteak eta halako gauza guztiak ematen zituzten, gero ia mozten hasi ziren eta dirua zeukanak bere kabuz erosi behar zuen. Ematen zutena hilabeteko dodotisen bat eta gero jaboia eta gela... toallitak ekonomatoan eta ez bazeukaten dirurik ez dakit zelan egiten zuten egia esan. Gero adibidez, biberioiak garbitzeko ez zegoen ezer, ez geneukan baimenik "calientaleches" edo "calientabiberones" bat izateko, eta hori beste espetxe batzuetan ematen zen. Zer esan nahi du horrek? Ba batzuetan ura ekartzen zutenean, ekartzen zutenean kolektiboa gauetan, nik justu ez dakit oso ondo ze bularra eman nuen eta ez dut ondo gogoratzen, baina hori, batzuetan ura ez zetorren ondo egosita eta gero umeek izatea gastroenteritisa bat-batean. Eman beharrea "calientalechesa" edo eskubidea erosteko, horrekin ziurtatzen duzula ondo egongo dela, ondo berotuta eta ura ondo... pues bueno, hori holan zen.

Ainhoa:
Osasunaren esparruan?

Ama1:
Bi egunetan etortzen zen pediatria modulura, eta gaixotzen bazen justu hor hoberena zen ze justu berak tratatzen zuen, bestela normalean ospitalera izaten zen, edo beste batzuetan depende zer zen begiratzen zuten mediku normalek, ba enfermeriara atera eta begiratu. Ospitalera ateratzearen arazoa zen sarritan, nik ez nuen bizi izan, banatu egiten zuten ama umearengandik, eta orduan... Guk adibidez uste bagenuen ez zela oso larria estaldu egiten genuen ba ez enteratzeko eta ez ateratzeko ume ospitalera, bestela banaketa egon daiteke, eta umea gaixo badago eta gainera banatzen baduzu, pues es peor el remedio que la enfermedad eta orduan egiten genuena zen hori. Egia esan pediatria jator-jatorra zen, nik uste dut egiten zuela ahal zuena, baina pediatria bat egun gehiagotan beharrezkoa izango litzateke eta ospitalekoa ba hori, pasada bat.

Ainhoa:
Eta ospitalera eramateko umeak, nola eramaten zituzten?

Ama1:
Normalean anbulantzian. Jaioberria bazen eta bularra ematen bazenion, normalean ez zintuzten banatzen, bakarri bularrak elikatzen bazen bereziki, baina gero ia... Eta egia da guretzako egia da nik orain entzuten dudala ospitalea orain eta sentsazioak ez dira onak, ze bizi izan nituen hainbat amen negarrak eta tristurak eta egonezinak modulu barruan haien umea ospitalean zegoenean.

Ainhoa:
Zer esango zenuke dela positiboena?

Ama1:
Ba gauza positiboen artean, niretzako positiboa bada amak egoteko aukera duela umearekin, nahiz eta kartzelatua izan, eta aitak ez dauka, ez bada oso baldintza berezietan dagoela, gutxiengo bat. Barikuetan bazegoen intermodularra eta beste moduluetatik etortzen ziren normalean gizonak eta hor barruan egiten zituzten. Orduan, alde onak? Ba ama izategatik hurrekin egoteko aukera dugula, eta hori ba gauza handia da, bizipen horiek bestela galtzen dituzu eta "vinculo" handiena adin horietan da eta hori inportantea da. Inportantea da hor egotea. Gero egia da harremanak ere egiten dituzu eta batzuk onak dira eta hori hor dago, baino txarrak ere asko dira, eta gero kanpotik ikusten dituzu, eta hain intentsoak dira... osea ez da osasuntsua. Nahiz eta ondo eraman ere, momentu askotan talkak dituzu hainbeste egotegatik, ze gainera umeak dituzunean ez da beste modulu

batean zaudenean moduan. Umeak daudenean erdian derrigortuta zaude umearen beharrak asetzera, orduan denbora guztian zaude umearen beharrak asetzen eta zureak ez dituzu inoiz asetzen eta dituzu hor sentimendu eta bizipen pilo bat ez dituzunak askatzen, azkenen motxila horrekin geratzen zara. Hortik ateratzen zara baina ia zure motxila bizipen onekin baina askorekin beteta dago.

Ainhoa:

Zuretzako rato bat ere behar duzu askotan kalean, ezin imajinatu barruan ez?

Ama1:

Nik gogoratzen dut batzutan geratzen zela ama gaixotzea, osea zu zeu gaixotzea, eta hori zen desastre. Han egon behar zinen derrigorrean umearekin eta han askotan hartzen genuen gastroenteritisa, zen ohikoa, urtean agian hartzen zenuen zazpi aldiz, eta oso txarto. Behin gogoratzen naiz eskatu niela umea uzteko ateratzen por urgencia edo...eta utzi zidaten ordu batzuk aurrerago ateratzea, eske ezin nuen gehiago, banengoen botaka egite, gaixo... eta klaro, jaitsi behar zinen txabolotik... Ni sartu nintzen unean errespetu modulua zen, eta ez zirenez betetzen arauak kendu zuten errespetu modulua, eta oso zorrotz jarri ziren, beraz, jaitsi behar zen bai ala bai, nahiz eta umea lo egon, esnatu behar zenuen. Horrela errazagoa gaixotzea, ze ez daukazu deskantsu unerik, ze imajinatu, lauretan lokartu bazaizu eta bostetan jaitsi behar bazara, ba deskantsatu duzu ordu erdi, umea jarriko da osti txarran esnatu duzulako eta zen dena zailagoa...

Niretzako gauza txar bat zen, ba normalean modulu guztietan funtzionarioak rotatu egiten direla eta hori sanoa da ze azkenean mugitu egiten dira eta dira hainbeste fijazio sortzen preso-funtzionarioen artean, baina zer gertatzen da amen moduluan? Ba beti zirela berdinak eta ez zirela mugitzen. Eta Aranjuezen, lau txandetatik bi bereziki txarrak ziren euskal preso politikoekin bereziki, eta askotan gure planak ziren egunaren arabera. Guk txandak kontrolatuta genituen eta segun zein zegoen eguna ezberdin antolatzen genuen. Tentsioa zen eta nahiz eta tentsio hori fondoan egon nik uste umeek ere nabaritzen dutela. Nik uste hor ez dutela ondo egiten. Berez urte osoan zehar ezin duzu edozein jarri, ezin dituzu jarri kriston gorrotoa diotenak euskal presoek, ze gainera bost egon ginen.

Ainhoa:

Noiz atera zenuen zure umea lehenengo aldiz kalera? Zenbat urterekin?

Ama1:

Nik hasieran atera nuen orduka. Hasieran, sartu nintzenean, hasieratik atera ahal zenuen umea, gero, gutxira, aldatu egin zen eta gutxienez sei hilabete izan behar zituen ateratzeko, eta nik uste atera nuenean sei hilabete edo izango zituela, ordu batzuk izan ziren baina jo, hori zer zen guretzako ere, lehenengo aldia eta banaketa hori... guk denek titia ematen genien, eta hori, eta ez jakitea ea biberioia hartuko zuten... Orain pentsatzen duzu eta ez genuen errelatibizatzen ezer, baina kontua hori zen, hori bizi genuen... Lehenengo aldi hori, telita izan zen.

Ainhoa:

Zelako sarea izan duzu kanpoan umea atera ahal izateko? Ekonomikoki zer suposatzen du?

Ama1:

Ekonomikoki kriston dirutza, hori seguru, eta lehen kontatu dizudana, pisu bat alokatuta genuen, ze hasierako urtean adibidez, ez zen hainbeste ateratzen, baina ia urte batekin umeak beste gauza batzuk behar ditu, beste estimulu batzuk eta orduan ba hor pisua hartzea erabaki genuen, bueno bereziki kanpokoek, eta orduan infraestruturara bat duzu gero jendea ateratzeko. Gure askoa izan zen hasieran astebururo ateratzea eta ia-ia gehienetan nik uste atera zela. Hasieran izaten zen bakarrik egunez, ordu horiek. Gero hamabi orduko irteerak... egokitu ahala, ikusten bagenuen gehiago gehitzea, ba gehiago gehitzen genuen. Eta gero ia amaierako irteera nahikotxo egun eta erdikoak izaten ziren, asteburuan, ateratzen zen goizeko hamabietan larunbatean eta bueltatzen ziren bostetan bisita ordutan igandetan.

Ainhoa:

Eta pisua zer zenuten alokatuta, zuek bakarrik ala beste familia batzuekin?

Ama1:

Ez, familiaka ziren, ze danak elkartzen ziren egun berdinetan, eta oso apartamentu txikiak ziren, oso hotzak, eta zeuden pegatuta bata bestearengandik. Eta gero hor bai inportantea da, konfiantzazko psikologoaren gomendioaz, aurreko beste kasu batzuk ikusita, azken urtean irteera luzeagoak egitea eta Euskal Herrira, umeak biziko den lekuarekiko hurbiltasun bat, eta irteera hori denbora eskainiz, ez pare bat eguneko kontua, baizik eta bere inguru hurbila ia ezagutzeko, adibidez, umea etorri zen lehen aldia ikara zion gauari. Imajinatu, herriko jaiak eta bera ba... modulu batean inoiz ez zaude kalean iluntzen duenean, ilundu baino lehen espetxean gora zoaz. Hasieran horri egokitzea izan zen etorri zenean. Beste ohitura bat, beste bizi bat... ze espetxearen herrian ateratzen genituenean, gure errutina jarraitzen zuten, bestela bueltatzen zirenean lau ordu behar zenituen buelta emateko. Gogoratzen dut askotan kostatzen zela, ze zen, espetxetik atera eta bat-batean estimulazio pilo bat, eta Euskal Herrira etortzen hasi zirenean, ba ondo baina haien denborekin. Jende gehiago ezagutzen zuten, eta jendea ere, nahi gabe asko hurbiltzen dira haiengana eta agobiatzen ziren. Nahigabe da baina horrek aita urduritu, eta umea be bai. Ikusten baduzu umea ez dagoela ondo eta gainera galderak egiten, ba askotan ez dakizu gestionatzen. Nik uste dut garrantzitsua dela epe luze horiek errespetatzea, ze klaro, beste ama batzuk baimenetan ateratzen dira, baina gu ez, eta hor dago egokitzen prozesu bat, naturalagoa, baina gure kasuan ez, hor dago hiru urte eta bat-batean ez, eta klaro, prestatu behar duzu, bestela ondorioak ditu, psikologikoak, bueno, bestela ere, baina ahalik eta gutxien izateko.

Ainhoa:

Zenbat denbora pasatzen zuen umeak herrian etortzen zen bakoitzen?

Ama1:

Ba hamar egun ematen zituen hemen. Nik uste dut egin zituela hamar eguneko hiru irteera, edo lau askoz jota, azken urtean denak. Atera zen lehenengo aldiz bi urte zituenean, gabonetan, eta besteak hortik aurrera.

Ainhoa:

Barruan jaio zen zure haurra?

Ama1:

Ba justu nirea ez, hamar egun zituenean sartu nintzen berarekin, zortea izan nuen horretan nik, atzera ahal izan nuen sarrera.

Ainhoa:

Nola izan da bere aitarekiko atxikimendua? Eta nola ikusten zuen adibidez aitarekin ateratzea?

Ama1:

Ba ondo, bueno, hasieran ez. Hasieran kostatzen zitzaion gehiago, baina gero ia handitu ahala ondo, oso ondo, haiek ere bazekitelako hori kanpoa zela. Ni gainera, azken urtean, nire haurrak hiru urte baino lehenago kalea eskatu zuen. Bere barruko lagun hoberena desagertu zen... ze ni barruan geratu nintzen bakarrik. Kide pilo bat egotetik, geratu ginen bakarrik, azken fasean. Guk erabaki genuen hiru urte arte mantentzea, eta gertatu zitzaidan irteera luze hauetako batean sartu nahi ez izatea, bi irteeretan gertatu zitzaidan, eta pixka bat engainatu eta aurrera egin genuen, baina bueno, nik beste kasurik ez dut ezagutu... Oso ume gutxi zeuden bere adinekoak momentu horretan gainera, bi neska. Bi eskola daude, bata komentatu duguna moduluko hori, baina gero dago kanpoko eskola, eta kanpoko eskolara ia gehienek eramaten zuten umea, eta hori da ordutegi guztiz ezberdina, 8.30etatik arratsaldeko 17.00ak arte edo...

Ainhoa:

Eskola normal bat zen? Herriko eskola edo?

Ama1:

Bai, herriko eskola publikoa da. Autobus batean eramaten zituzten eta gero ekartzen zituzten. Eta orduan, ba amaieran geratu zen beste bi umerekin bere adin antzekoak eta kanpoko eskolara joaten ziren... bueno bat nik uste amaieran barrukoan geratzen zela, baina bueno... egongo baziren gure ume guztiak elkarrekin, denak eskola berdinerara joaten ziren, urte berdinak... eta bat-batean ez zen inor geratu, eta seguru naiz horrek egin zuela umearen jarrera hori, baina bueno, mantendu genuen. Eta gero, guk bai egin genuena, eta horri esker nahiko ondo dago gaur egun umea, da laguntza profesionala eskatzea hasieratik. Gero gu Euskal Herritik urrun espetxeratuta egoteak zailtzen du banaketa prozesu hau, ze hemen egongo bagina, ba ezberdina izango zen. Ezberdina da hurbiltasun bat badago, ez dute horrelako bidaia egin behar, urduritasuna bidaiaiatik, kanpoak lo egin behar izateagatik... eta guzti horrek zailtzen du.

Ainhoa:

Osea kartzela bititzeaz gain gero dispertsioa bizitzen dute.

Ama1:

Gogorra guztiontzako. Nik adibidez nire lehenengo aurrez-aurrekoa Aranjueen egin nuen. Kideekin ez zuten nahi izaten, beti gehienak egiten dute kanpoan, baina nik esan nuen, hemen egon naiteke astebete edo hilabete, orduan nik eskatu nuen, eta bi astea haurra etorri zen.

Ainhoa:

Eta nola bizi izan zuen gero berriro espetxetik ateratzea?

Ama1:

Ba ondo ulertu zuen, eta azkenean guretzako leu ezagun batean izan zen, osea ez dakit, pixka bat ere lagundu zuela, ze askotan berriaren urduritasunak ez du laguntzen. Momentuan uste dut ere funtzionarioak zuzenak izan zirela, haientzako ere hor bizitako ume bat zelako, osea dena izan zen korrektua. Denborak errespetatu ziren, dena... bai, gogorra, baina lehen bis bat gogorra izan behar du edozein lekutan. Nik uste horretan asmatu nuela, ze beste kide bat egon zen hile eta hamar egun umea ikusi gabe, lehenengo biserarte eta umea egon zen Euskal Herrian super gaizki pasatzen, ze klaro ama ez ikusteak antsietatea sortzen zion, eta horregatik guk hartu genuen erabaki hori. Ez dakit, niri galdetzen badidate, horrela egingo nuke berriro. Nik uste dut gogorra dela jakitea zaudela eta atera beharko duzula, azkenean berdin da non egiten duzun, hori da gogorra, atera behar izatea.

Ainhoa: Z

enbat denbora gehiago egon zinen zu bakarrik espetxean?

Ama1:

Ba ni zortzi hilabete gehiago bakarrik izan ziren. Beitu zelako pototxoa bizi izan nuen eta zortzi hilabete izan ziren.

Ainhoa:

Bera hasi zen eskolan atera bezain pronto?

Ama1:

Bai, aitak egin zion egokitzapena eta ez dakit egokitzapenean zenbat ordu zihoan, baina irakasleak esan zuen nahiko segituan, igual okertzen naiz, baina, agian laugarren egunean, egun osoan joateko.

Ainhoa:

Uff nik ez dakit horrela egingo nukeen.

Ama1:

Nik ere ez, nik bi urtetan egiten den bezala, gutxienez hiru astetakoa, gutxienez. Bera atera zen irailaren 28an, ba egon zen lau egun bi edo hiru ordu joaten, eta irakasleak esan zuen super ondo zegoela umea eta ordu guztiak joateko. Eta klaro berak ere ez zekien, bakarrik bizitzetik bat-batean ba berantzako ez zen erraza izan. Aldaketa eman aurretik bizitzen duzuna ere hor dago, ematen du ez duzula ezer bizitzen, baina hori ere super gogorra da, eta berak gestionatu zuen ahal izan zuen bezala. Orain ikusten dugu eta igual ez genuke horrela egingo, baina momentuan horrela ikusi genuen. Umeak esaten zuen momentu guztietan: zenbat jende, zenbat jende. Espetxean zegoen haurreskola horretan gehienez bederatzi edo hamar ziren, eta bat-batean ez bakarrik bere gelakoak, eskolako guztiak... Hor denborak behar dira, argi dago.

Ainhoa:

Denbora, baliabideak...

Ama1:

Bai, eta ez badituzu... Adibidez haurraren aitak murrizketa hartu zuen, heren batean zegoen, hasieran egokitzen egiteko eta gero bidaiak, eta ohitzeko.

Ainhoa:

Bat-batean aita berriro izateko ez? Osea aita bazara, baina bat-batean beste era batean...

Ama1:

Klaro, klaro... oso ezberdina, ez dauka zer ikusirik. Eta zortea izan genuen lagundu zigulako familiak, ze bestela heren batean... egingo badituzu bidaiak, alokairua ordaindu... pues tu me dirás...

Ainhoa:

Bai, gastu asko dira familian. Alokairua, bidaiak, zuri sartu beharreko dirua, umea mantentzeko dirua...

Ama1:

Eskolako jantokia... gero ni etorri nintzenez, nire gastuak ere...azkenean dena izan zen...

Ainhoa:

Nire galderak amaitu ditut, zuk zerbait esatekorik?

Ama1:

Ba eskolaren papera aldatu behar dela fijo.

Ainhoa:

Zuk izan zenuen harremana eskolarekin barruan egonda?

Ama1:

Ez, ezer.

Ainhoa:

Inposible ez?

Ama1:

Bueno, imposible, eske ez ziren eskeini... ezebez. Nik gogoratzen dudana gauza bakarra da atera nintzen egunean arinago etorri nintzela, eta nik esan nuen zuzenean umearengana joan nahi nuela, siestan zegoen, utzi ziguten esnatzen... eta ni han nengoela pentsatu nuen: joe, hauek momentu intimo hori errespetatu ahal zuten, baina gela barrura sartu zen aita umea besoetan hartzeko, ez ikaratzeko nirekin bat-batean, eta nire ondoan zuzendaria eta ikasketa burua. Ni negarrez, eta gero pentsatu nuen: hori da errespetatzea? Osea oso ondo elkartasuna adieraztea, etorri, hurbildu, ongi etorria eman nahi baduzu, baina gero joan, ez

dakit. Zuk badakizu hurrengo egunean, edo ez dakit noiz joango naizela umea eramatera, egin hor, ez egun horretan.

Ainhoa:

Garrantzitsua da espazio eta tenpusak errespetatzea. Asko daukagu ikasteko nire ustez.

• ELKARRIZKETA 2: AMA (AMA2)

Ama2:

Nik bi modulo ezagutu ditut, Aranjuez eta Picassentekoa. Guztiz ezberdinak dira, aspektu guztietan, batek ona zuena, besteak txarra, eta alderantziz, hau da, adibidez, ni aurkeztu nintzen umearekin. Sententzia firmea neukan eta umea txiki txikia zen, beraz ez nuen atxiloketaren esperoan ibili nahi, beraz, erabaki nuen Aranjuezero aurkeztea umearekin. Zituen zazpi hilabete. Orduan, Aranjuez aukeratu nuen, zelako etxetik gertuen nuena, zelako, edo Aranjuez, edo Picassent. Aranjuezen hiru hilabete egon nintzen, eta gero Picassentera eraman ninduten. Aranjuez da Soto del Real eta holako espetxe makro horietakoak, "de alta seguridad" deitzen zaie. Eta Picassent aldiz handia da ere, baina zaharragoa da eta beste sistema bat du. Eta orduan, ni Aranjuezen... ikusten nituen alde positiboak, azpiegiturak, zeldak handiak ziren, espazio dezente zegoen. Ba, gutxi gora behera, ia hiru zelda batean izango balira bezala. Bazen hori, espazio aldetik oso oso ondo zegoen. Bazeneukan ohe handi bat, umearekin nahi zenuen lo egin, bazegoen posibilitatea xehazka egoteko ere, eta gero, ohe bat ere, normala, simple bat. Orduan, alde horretatik oso ondo. Moduloa behean, exkax iruditzen zitzaidan, bazen modulo normal bat. Patio bat zementuzkoa, ez zegoen ezer umeentzat. Eta gero geneukan txoko bat, jolas txoko bat edo, oso oso txikia, oso jostailu gutxiarekin, erdiak puskatuak, gaizki zainduak. Eta gero, adibidez, bazegoen armairu bat, txoko horretan, beste gela bat bezala, beti giltzarekin itxita, eta hor bazeuden jostailu pilo bat, eta hezitzailearekin hitz egiten genuen, eta hortik ahal genituen gauzak atera... eta oso oso zaila.

Egon nintzen hiru hilabete, udako hilabeteak ziren... funtzionarioak ere oporretan. Hor gauzak lortzeko eta egiteko ez zegoen aukera handirik, baina etortzen zenean hezkitzailea, kideak hezitzailearekin hitz egiten: "oie, jostailu horiek hortik atera beharko dira" eta hezitzailea momentu guztietan largak ematen: "hori egin behar da, baina arduradun bat bilatu behar da horretarako...", total, moduluan umeentzako gauza gutxi. Eta aldiz, haurtzaindegia zegoen, modulutik atera eta hor bertan, eta oso ondo zegoen. Nik ez nuen ezagutu, baina kideek oso ondo hitz egin didate. Nik instalazioak ikusi nituen eta oso ondo zeuden, ba kanpoko haurtzaindegi bat bezala. Eta gero irakasleak kanpotik etortzen ziren, eta oso goxoak omen ziren, beraz oso ondo. Eta gero, haurtzaindegi horretan, kanpoko gunea edo, zen parketxo bat. Eta hor zegoen pizsina txiki bat, eta udaran ateratzen ginen, eta normalean eskubidea geneukan arratsaldero ateratzeko, baina kriston borroka zen, funtzionarioek atera nahi ez zutelako, eta orduan, edozein aitzakia baliatzen zuten ez ateratzeko. Eta kriston beroa egiten zuen han, adibidez, klaro, ze zu ateratzen bazara, baldin bazaude en un patio de cemento, guretzako zaila bada, imajinatu umeentzako: kriston beroa, ez zegoen ezer... Nik daukadan oroitzapena da hori, kriston borroka parketxo horretara joateko, ze haizetxoa ibiltzen zen, belar pixkat bazegoen, nahiz eta lehortua egon... Baina hori, minimo bost familia egon behar ziren, bost ume, bost ama... Ez genituen lortzen normalean, eta ez dakit zenbat ama ginen, berrogei bat egongo ginen? Edo euri pixkat egiten bazuen: "no, el tiempo..." osea, lau tantatxo... Ta bueno, zen agobio. Nik daukadan sentsazioa Aranjuezetik da hori, agobio. Ze ume txiki batekin, kriston beroa egiten zuen, ze uda zen, ezin atera, eta patioan geratzen ginenean kriston bajoia, ze kriston beroa egiten zuen. Hartzen genituen kuboak, urez betetzen genituen eta umeak sartzen genituen kuboetan. Gero hori ere hasi ziren debekatzen...

Orduan, hori, instalazio aldetik ondo zeldak handiak zirelako, patioa edo moduloa gaizki, ez zegoen ezer, eta gero haurtzaindegia eta hori oso ondo, baina zailtasunak disfrutatzen zeko haurtzaindegiko zelai hortaz.

Janaria, osea, oso oso eskasa, guretzat oso txarra zen, baina umeentzako bereziki txarra, askoz txarrago. Ni umearekin zazpi hilabete zituela sartu nintzen, eta ematen zidatena zen pure de patata y zanahoria, ez zegoen besterik umearentzat. Gero leche en polvo eta hori

ere ematen zizuten, baina besterik ez. Nik pediarrarekin hitz egin nuen eta klaro, nire alabak lau hilabeterekin iada hortzak zituen, beraz, zazpi hilabeterekin ia ez dakit zenbat zituen, ta hasi zen jaten eta mastikatzen, txikia zen oraindik, baina egiten zuen, hortzak eta bazituen, eta nik esan nion pediarrari, ez zitzaidan normala iruditzen patata eta azenariozko pure batzuk ematea, gainera kongelatutako barazki hauek izango ziren, edo batek daki. Oso txarrak, umeek ez zituzten nahi. Ni gogoratzen naiz gure janaritik ematen geniola umeei, eskasa zelako, ekonomatetik pavo pixkat hartu... baina, guk dirua dugulako, baina beste preso batzuk ez zituzten guk genituen baliabideak. Eta gogoratzen dut pediarrak esan zidala: "hitz egingo dut sukaldeko arduradunarekin eta ba hori, ba pixkat aberatsagoak izateko pureak..." ze patata eta azenario pure horiek 18 hilabete arte ziren, eta gero 18 hilabetetik aurrera, hasten ziren konplementatzen, 18 hilabete solidorik jan gabe, ez da posible. Eta orduan pediarrak: "hitz egingo dut eta gaur hitz egin ostean ekartzen badizute berdina, funtzionarioari esan". Eta ekarri zioten bazkari berdina, eta ni joan nintzen funtzionarioarengana, garitara, ta esan nion: "aizu, pediarrarekin hitz egin dut goizean, eta ez diote aldatu menua, eta hitz egin dugu hori eskasa dela menua, eta ekartzen dutena... eta ea sukaldekoek baduten beste zeozer". Eta orduan, geratu zitzaidan grabatua, ze esan zidan: "ah, pediarrak esan dizu aldatuko dutela menua haurrentzat? Ba jakin dezazun, pediarraren gaitetik gu gaudela, eta guk ez dugula agindu hori betearaziko", eta itxi zidan leihatila muturren aurrean. Geratu nintzen pentsatzen, baino nola da posible funtzionaria bat medikuaren gaitetik pasatzea umeen elikadurako erabaki bat hartzeko. Geratu nintzen flipatuta. Eta hori zen nire kezka handienetariko bat. Nola udara zen, eta familia nahikotxo etortzen zen, ba ateratzen genuen, eta alde horretatik, janariaren kontuagatik ba bueno. Gero aldatu ninduten Picassentera, eta hor adibidez, osea, elikaduraren aldetik oso ondo zegoen, osea, oso oso ondo. Horregatik esan dizut hasieran, baten puntu negatiboak positiboak ziren bestean. Picassenten adibidez, bai zaintza, bai mediku, bai elikadura adetik oso oso ona, baina, oso oso ona. Ikusten zen kartzelako zuzendaritza horren gainean zegoela eta adibidez, gurekin, segurtasunekoak etortzen ziren, gurekin hitz egitera, ea zerbait eskas baldin bazegoen, konpontzeko edo aldatzeko, eta hor ikusten zen adibidez, kideek kriston lanketa egin zutela, behintzat kartzelak zaintzen zuela umeen ongizatea. Ze ikusten zen janaria, zegoen menu bat Otik 6 hilabetera, beste menu bat 6tik 12ra, gero beste menu bat 12tik 18ra eta beste bat 18tik gora, eta zenituen pure kolore ezberdinekoak, solido garbiak, gureak baino askoz ere garbiagoa zen, osea ikusten zen oso ondo zegoela, bere gabeziak izango zituen, baina vamos, ni ziur naiz etxe batzuetan bertan baino txarrago jaten dela, benetan, ez gure etxean (barreak), baina, askotan bai. Orduan, alde horretatik kriston lasaitasuna hartu nuen, ze niretzako hori zen benetan garrantzitsuena, bai mediku aldetik, bai asistentzia hori, eta asistentzia oso ona zen. Osea medikua oso jatorra zen gainera, guri konfiantza ematen zigun. Aparte "medico de cabecera" bezala etortzen zen, osea guretzako balio zuena, umeentzat ere, eta gero pediarrak etortzen zen, astean behin, bi astetik behin, eta bueno, oso oso ondo zegoen. Eta gero Picassenten adibidez, modulua oso ondo zegoen, instalazioak oso zaharrak ziren, eta adibidez, zegoen labezomorroz betea, eta hori higiene aldetik... labezomorroz betea zegoen. Baina gero parketxo bat zegoen, baratzetxo bat zegoen, zegoen hondarrezko gune bat ere... gero, zegoen zementuzko patioa ere, baina bazituen margotuta moto zirkuetoak... oso oso desgastatua zegoen, baina guk lortu genuen, segurtasunezkoekin hitz egiten, galdetu genien ea posible genuen patioa guk margotu, hola umeentzako, guk kideok, euskal preso politikook. Baimena eman ziguten, eta kristona izan zen, trenbide bat, karretera, lakutxo bat... holan margotuta. Umeak gozatzen zuten motoekin eta... Ze gabonetan ONG ezberdinak etortzen ziren, egiten zuten festa eta opariak egiten zituzten, eta garai batean ekarri zituzten moto pilo bat eta hor, karrerak egiteko, osea oso oso ondo. Pirritx eta Porrotx margotu genituen... osea egin genuen nahi izan genuena, orduan alde horretatik oso oso ondo, osea ,patioko giroa...

Gero, alde txarra ziren zeldak, oso txikiak. Ez zeuden prestatuta umeentzat, ze izkinez beteta zeuden. Ni joan nintzen Picassentera umeak urte bat bete behar zuenean, eta hasten zen ibiltzeko lehen pausuak ematen, eta orduan jotzen zen, ze izkin pila bat zeuden, osea, oso oso gaizki prestatuak zelda. Baina, gero hori, medikua, janaria, patioak... labezomorroak kenduta... (barreak). Baina, gero udan piszinak jartzen zituzten, guk, preso politikook hartu genuen ardura piszina hori garbitzeko, ze egunero garbitu behar zen... orduan guk hartu genuen ardura. Normalean ez ditugu ardurak hartzen, baina umeengatik hartu genituen, ze bestela... nik ez nuke sartuko ur horretan. Gero egon ziren arazotxo batzuk... Nire bukaeran,

umea ateratzeaz nengoela. Ze funtzionario aldaketa egon zen, eta orduan hor sartu ziren batzuk nahiko gogorrek zirenak, batezere gurekin, baina bueno, orokorrean oso ondo. Gero, umea atetzeko eta sartzeko, Aranjuez adibidez oso zorrotza zen, eta ni ez naiz oso ondo gogoratzen, ze ez nintzen asko egon, baina uste dut umea atera zitezela astean bi aldiz bakarrik eta gainera oso ordu zehatzetan, 12.00etan eta 17.00etan, sartu edo irten. Eta umeak ateratzen zuten poltsa bat eta sartzen zuten beste poltsa bat haien gauzekin: pardelak... eta... biberoiak, edo dena delakoa. Eta hor kriston kontrol zorrotzak zauden. Picassenten aldiz, ez. Picassenten umea ahal zen atera egunero, eguna pasatzera eta gero buelta gaua zurekin pasatzera. Osea ez zegoen hor inongo mugarik.

Ainhoa:

Eta ordutegiaren aldetik?

Ama2:

Ere ez, nahi zenuenean, goizeko 9.00etatik, bis eta bisiten azken ordurarte, baina inongo mugarik gabe. Adibidez, batzutan merienda sartzen zuten nire gurasoek umeentzako, sartzen zuten janaria. Nahiko irekiak ziren, umeak zeuden, eta alde horretatik, nik uste Picassenten umeaz, bueno orain ez dakit, baina ni egon nintzen garaian, lehenago Picassenten, entzun nuena oso txarra zen, iritzi txarrak, eta heldu nintzenean sorpresa hartu nuen, ze alde horretatik, ikusten nuen umearen eskubideak Aranjuezen baino asko gehio errespetatzen zituztela, eta ongizatea. Osea umea ez dago preso, orduan ez duzu zertan ordutegirik jarri umea sartu eta ateratzeko, umea atera edo sartu daiteke nahi duenean. Eta Picassenten hori errespetatzen zuten.

Ainhoa:

Orduan Aranjuezen zen pixkat: umea preso dago, eta Picassenten kontuan hartzen zuten umea ez zegoela preso.

Ama2:

Ni Aranjuezen adibidez, egon nintzen hiru hilabete, eta askotan joaten nintzen funtzionarioarengana kexatzera gauza batengatik edo beste batengatik, eske zen, pasada bat. Megafonia ere, megafonia tope zegoen. Umearen loa ez zen errespetatzen adibidez, Picassenten ez, Picassenten ez zegoen megafoniarik adibidez, baina Picassenten aldiz, behartzen zintuzten jeistea modulora, osea ezin zinen geratu txaboloan, eta Aranjuezen bai. Gero aldatu zuten eh, gero Aranjuezen hori ere aldatu zuten, baina ni egon nintzenean egon zintezkeen. Ateak irekita zeuden eta orduan, goizean jeisten zinene edo ez, gosaria hartzera... egon zintezkeen egun osoa txaboloan, umea gaixorik bazegoen... eta adibidez, Picassenten ez, Picassenten jeitsi bai zinen, bai goizean, bai arratsaldean. Eta ni gogoratzen naiz, nire umeak pilo bat egiten zuen lo, eta siesta botatzen zuen, eta orduan irekitzen zutenean 17.00tan oraindik lotan zegoen, eta hartu behar nune, jeitsi besoetan... eta bueno, ez dakit, diferenteak ziren bi moduloak, eta batek zuena besteak ez zuen. Baina, orokorrean, ni askoz lasaiago egon nintzen Picassenten, nahiz eta labezomorroak, nahiz eta behartuak egon jeistera... ez dakit, gaixo bazeuden Picassenten, edo gaixo bazegoen umea, baja ematen zizuten, baina ixten zizuten, bazeuden gauza batzuk, agian segurtasunekoekin hitz eginda konpondu zitezkeela, eta saiatu ginen, baino ez genuen lortu hori. Baina gero, familia etortzen zenean ere, familiak ere esaten zuen, funtzionario aldetik... Adibidez, nik umea ateratzeko lortu nuen, banituen izandatura lagunak ere, familia ez etortzeko beti, ateratzeko umea. Guk zortea izan dugu, ze umea oso erraza izan da alde horretatik, bai ateratzeko, bai sartzeko... Ez du sufritu, edo ez du erakutsi ere sufrimendu hori nigandik separatzeko... Gero guk ohitu dugu ere, ze adibidez, guk egiten genuena zen, nola anaia herrian (iparralden) zeukan eta aitak ezin zuen muga pasa lehen urtean, ezin zuen kartzelara etorri guregana. Orduan, guk ere, erabaki genuen hilabete behin aste bat herrian pasatzea, orduan, hilabetero aste bat ni gabe egoten zen, eta herrian egoten zen bere anaiarekin eta aitarekin. Orduan, nire ustez ere, umea gogorra zen zentsu horretan. Etortzen zen, pozik zegoen, atera behar zenean, lagunekin edo familiarekin pozik zegoen, eta Picassentek ere erraztasunak eman zizkigun. Lagunak etortzen ziren, gero bisitak ere, adibidez, bis geletan egiten genituen, bisitak ere, kristalik gabe.

Ainhoa:

Orduan ez zuen lokutorioa bizi ez?

Ama2:

Ez, gero hiru urte bete zituenean ere ez nituen bisitak egin berarekin ere, bakarrik bisak, berak ez du kristalik bizi, eta beste umeak ere ez. Adibidez, Aranjuezen bai, baina txikia zen, eta behartuak geuden kristaleko bisitak egitea, eta Picassenten ez. Lagunekin eta dana ere... lagunekin egiten nuen, umea ateratzeko baimena zutenekin, eta banituen lau-bost lagun baimenduak, beraz oso ondo.

Ainhoa:

Eta baimendua ez zegoen lagun batekin bisita zenuenean?

Ama2:

Ba, uzten nuen umea moduloan, kideekin. Nik daukadan sentsazioa Picassenten lasaitasuna da. Gero kartzelan zaude, eta gure mobidak bagenituen ere. Adibidez, Picassenten hartzaindegia zulo bat zen, zen beste modulo batean, Bazen modulo bat, preso arruntak zeuden, emakumeak zeuden. Bazen modulo bat, erditik zatituta, modulo normal bat, eta hartzaindegia. Hor zeuden lan egiten zuten preso emakumeak, osea hirugarren gradua hortxe zutenak, baina presoak ziren, eta orduan gu geuden: eramaten dugu hartzaindegira beste modulo batera, beste preso batzuk daude, patioa presoena ere bazen... Osea bazen zulo bat, osea instalazioak gaizki, hezitzaileak bueno, ere ez ziren oso... alde horretatik bueno, hartzaindegiarekin genuen arazoa. Gainera, behartzen gintuzten hartzaindegira eramaten, ez dakit, urte batetik aurrera, behartuta geunden, eta adibidez hor, gu, garai horretan geuden kideak ez geneukan arazorik, ze bakarrik goizetan zen, eta horrela guk aprobetxatzen genuen ikasteko, nik frantsesa ikasten nuen, beste kide batek ingelesa, eta bueno, horrela egoten ginen gure gauzak egiten. Ba adibidez, nik badakit, aurretik zeuden beste kide batzuk ez zutela umea hartzaindegira eraman nahi eta hor kriston borroka izan zuten zuzendaritzarekin, eta hor gaizki pasa zuten. Eta hori, gure kasuan ez zen arazo handia, baina arazoak egon ziren... Gogoan dut esan dizudana, Picassent lasaitasuna zela guretzat, eta familiarentzako, ze Aranjuez zen estres bat...funtzionarioak oso gogorak ziren, ordutegiak oso zorrotzak... familiarentzako ere, osea, azkenean 12.00tan edo 17.00, arratsalde pasa bat azkenan, 17.00tan, eta gainera derrigortuak zeuden ere gaua pasatzera ere, ze hurrengo eguneko 12.00ak arte ezin zuten sartu, hor zen... kaka bat zen. Eta Picassenten askoz ere lasaiago, egun osoa pasatzen zuen umeak, familia lasai, hondartzara joan nahi bazuten, bazkaltzen zuten, lasai egoten ziren eta gero etortzen ziren gauean eta listo. Hartzaindegiarekin genuen arazoa, baina besterik ez. Baliabideak, dodotisa eta ematen zizkiguten hilabetean behin, uste dut.

Ainhoa:

Eta agortzen bazitzaizkizun?

Ama2:

A ver, zaindu behar zen, ez zizkizuten ematen holan, besterik gabe, baina normalean sobratzen zitzaizkidan. Demandaderoz ere bageneukan aukera, baina guk beti genituen soberan. Gero txanpuak eta holan, hori zen hiru hilabetetik behin, baina, nik beti soberan, ze nola honek gainera aste bat kanpoan ematen zuen... Esnea eta, hautsak eta astero ematen zizkiguten, papillak eta... alde horretatik oso ondo. Adibidez, erosi behar zena ziren toallitak, ekonomatoan. Gero txupeteak eta, guk erosten genituen, eta normalean nire gurasoak sartzen zizkiguten, eta arazoak ere. Gurasoek ere normalean jostailutxo txikiak sartzen zizkiguten.

Ainhoa:

Orduan jostailuak sartzeko ere aukera bazegoen.

Ama2:

Txikia eh, holan txikiak, sonajero edo holakoak. Gero geneukan gabonetan eta urtebetetzean aukera jostailu bat erosteko, demandaderoz.

Ainhoa:
Zuek nahi zenutena?

Ama2:
Hor bazegoen pedagoga bat, eta berarekin hitz egin behar genuen eta berak baimendu behar zuen. Nik lortu nuen Olentzero izatea, ta nik lortu izan ditut 2 opari, osea lau. Normalean zen bat edo bi, baina bueno, berarekin ez zegoen arazo handirik. Berak ekartzen zizkigun katalogoak, Toys'r'us, eta aukeratzean egiten genuen zerrenda bat eta esaten zigun berak, ba hau gehiegi da, kendu gauza batzuk, edo dana dalakoa. Normalean arazorik ez. Eta gero aparte, Picassenten oso ondo zegoena zen, Gurutze Gorria sartzen eta eta gero nola zen, Horizontes Abiertos, Aranjuezen ere bazegoen, eta kriston mobida egon zen ONG horrekin, baina Picassenten oso jatorrak ziren. Eta horiek egiten zutena zen, Gurutze Gorria larunbatero etortzen zen umeak egun pasa ateratzeko, normalean ateratzen ziren 10.00etan eta gero 17.00etan ekartzen zituzten, eta udan adibidez, piszinara eramaten zituzten, eta neguan parkera, eta oso ondo.

Ainhoa:
Eta hor bazeneukan zuk aukera aukeratzeko ea atera nahi zenuen?

Ama2:
Bai, eta nik normalean gutxitan ateratzen nuen familia askotan zetorrelako. Beste kide batzuk gehio ateratzen zuten ez zutelako zorte hori, eta arruntek ia, ni te cuento. Arruntak baliatzen zuten batez ere, ze ez zeukaten familia etortzen zena umea ateratzera, orduan, umea ateratzea, osea txorrada bat da, baina kotxeak ikusteko, kalea ikusteko... Eta igandetan, bat bai, bat ez, etortzen ziren Horizontes Abiertosekoak, eta orduan, asteburu batzuetan aukera zuten larunbata eta igandea ateratzeko. Eta gero, Horizontes Abiertosekoek ere, hiru hilabete behin, ospatzen zituzten haurren urtebetetzeak, eta hiru hilabetero, ba hori, ekartzen zuten pastela, egiten zuten festa, eta ateratzen zituzten argazkiak, eta orduan argazkiak pues hiru hilabete horietan umeenak bakarrik ez, amenak ere, orduan argazki pila bat ditugu, orduan a lo tonto, hiru hilabetero ama guztiak jartzen ginen, ze zen, bat umeena, eta beste bat de grupo, orduan argazki pila bat ditugu Picassentekoak, hori oso ondo zegoen, zen festatxo bat hiru hilabete behin. Gero ostegunetan ere, etortzen ziren pailazo batzuk, gitarrekin... Aranjuezen nik hori ez nuen ikusi, eta Picassenten bazuten ardura hori, umeak zeuden, umeak ondo egotea... Nire ustez, Aranjuezen, zuzendaritzaren aldetik, ez zuten inongo esfortzurik egiten, eta haiek nahi zutena hortik zen umeak ateratzea hortik, baina legez, behartuta daude amak nahi baldin badu umea hiru urte arte... ze legea legea da, baina, nire ustez, Aranjuezen egiten zuten ahal zuten guztiak umeak ez egoteko. Ze gu kexatzen ginen bakoitzean, nik hiru hilabete, entzun dut, esaten zidaten: "no, si crees que la niña está mal, ya sabes que hacer, no estás obligada a tenerla aquí. Es tu decisión tenerla aquí". Hori esan zidaten pila bat aldiz.

Ainhoa:
Errudun sentiarazi nahian?

Ama2:
Totalmente. Como si, la decisión es tuya, y si la niña está mal aquí, que por eso te estás quejando...

Ainhoa:
Tu eres la mala madre.

Ama2:
Hori da. Hori sentiarazten dizute Aranjuezen pilo bat. Nire ustez jende askok atera zuten horregatik. Ze azkenean, umea elikadura mailan... te hace pensar... Eta niri aldatu nindutelako baina... bestela agian pentsatuko nuen. Ze ni adibidez, titia kendua nion. Ze lau hilabete zituen, nik lan egin behar nuen eta orduan etxean nengoela, kartzelan egon baino lehen, etxera heltzean ematen nion, baina oso gutxi hartzen zuen, eta esnea joan zitzaidan.

Gainera bi umeek oso ondo egin dute gauetan, eta ez ziren apenas esnatzen, orduan klaro, ez zuten asko hartzen, eta gaueko horrekin bakarrik, ba klaro, joan zitzaidan. Eta kartzelan zazpi hilabeterekin sartu zenean, ba goizetan biberioia hartzen zuen eta gero purea, jamon york... hasia zen iada jaten. Heldu nintzen Aranjuezera eta pentsa. Kideak zeuden titiarekin, baina nik... Nire ardura hori zen, janaria, ze nik titia ez neukan eta janaria kaka bat zen. Eta adibidez, Picassentera joatean iada... lasaitasuna. Menu ezberdinak ziren, beti sobratzen zen, eta orduan hartzen zuten nahi zutena, eta guk ere hartzen genuen nahi genuena. Ikusten zen ona zela, eta Aranjuezen ikusten zen gabezi hori, eta txarra zela... Nik benetan, horrekin... Etortzen zara kaletik, pediarrarekin, ematen dizula en plan, orain hartu behar du hau, orain hau... eta zoaz hara eta... gainera esaten dizute medikuaren gainetik daudela.

Ta moduluen aldetik hori... baina zaraten aldetik, Aranjuezen zen.. pff... baina deskarau, funtzionariak oihera eta dana egiten zuten, eta Picassenten hori errespetatzen zuten pilo pilo bat. Jarrera ere, gu joaten ginen Picassenten eta eskatu zerbait umeentzat, eta haiek beti bai bai bai, badakizu, nire ustez, zuzendaritzak hitz egiten zuten funtzionariarekin, edo perfil espezifiko bateko funtzionariak sartzen zituen amen moduloan, ze badakizu, funtzionario talde aldaketa dago urtero. Aranjuezen aldiz, inpresentable batzuk. Baina, guk esaten genien, ez dela guretzat, dela umeentzat, ez gaudela eskatzen guretzako gauzak, eta aldiz, Picassenten, nire ustez haiek bazekiten ez bazituzten betetzen formalismo horiek umeekin, nola zekiten guk zuzendaritza edo segurtasunarekin hitz egingo genuela, beraiek ere zaintzen zuten haien burua. Nire ustez zuzendaritzak bazituen aurre erabakiak umeen ongizatea bermatzeko, eta alde horretatik lasaitasun bat bagenuen, Aranjuezen ez geneukaa. Aranjuezen ikusten genituen gauzak egiten zituztela, para putear. Baina denekin eh, ez zituzten umeak nahi, zen karga bat. Ez zituzten nahi hor umeak, eta nire ustez, ahal zuten guztia egiten zuten, ahalik eta zailen egiteko biritza hor.

Ainhoa:

Beste gai batera pasatuz, jarri dut: kanpoko kontaktuak, beharrak eta hori, pixkat komentatu dugula iada. Ea noiz atera zen kalera lehenengoz umea...

Ama2:

Ba lehen hilabetea. Eske nirea pixkat berezia da, ze ez zen jaio kartzelan. Bera sartu zen, zazpi hilabete zituela, nirekin. Eta orduan, kalearekin, txikia zelarik, kontaktu hori bazeukan, eta mantendu genuen, ze hilabetean behin ateratzen zen aste bat aitarekin egoteko, ze aita ezin zen etorri gugana.

Ainhoa:

Kondena osoan zehar izan zen horrela?

Ama2:

Ez. Iheslariak bueltatu zirenean, justu urte bat eta gero. Eta orduan, justu izan zen uret bat espetxean egon berarekin, hilabetean behin ateratzen zen aste bat, eta gero ia aita etortzen zen. Urte bateko kontua izan zen.

Ainhoa:

Gero, gidoian kanpoan baliabideak zenituen jarri dut. Ez dakit preso politikoeekin zentsu askorik duen, baina bueno...

Ama2:

Bai, kristonak. Nire gurasoak nahi zuten gehiagotan joan eta ez genien uzten, ze, ez, ba lan karga hori kentzeko. Ze bueno, nire gurasoak gazteak dira, baina, hala ere, familiari pixkat arintzeko hori, eta hori, baimenak eskatuak nituen, esan dizudan bezala, lagunek ere ateratzeko; gainera, eske, arazorik gabe joaten zen. Bi urte zituela oso konziente zen ni ezin nintzela atera, eta behin esan zidan: "beno amatxo, ni banoa kalera a papa, eta zu ez... (burla keinua)" eta nik: "eeh" con todo el descaro esan zidan. Orduan, arazorik gabe, eta gero etortzen zen pozik... eta gainera zen kriston festa berarentzat, ze berak bazekien, nabaritzen zuen. Joan behar zuenean, klaro, nik, ekonomatoan... bestela ez genuen ezer erosten, txutxeak eta hori, baina klaro, joaten zenean erosten genuen, ba patata poltsa bat edo erosten nion... eta orduan berak bazekien joango zela kanpora, eta etortzen zenean ere,

bazekien ere, klaro ni... mimosa-mimosa geunden biak, eta orduan ba ekonomatoan... eske zen, kriston festa berarentzat, eta orduan, ba oso ondo bizi izan du beti. Gero ikusi ditut, beste kide batzuk, edo beste ama batzuk ere, ez dela hain erraza izan, ze ez zituzten hainbeste atera, eta ez zuten hainbeste ohitura, eta orduan, zaila...

Ainhoa:

Bai, zu saiatu zarela egokitzapena egiten sartu zinenetik, ez?

Ama2:

Pentsa, nik ikusten nituen kideak: hemendik bi hilabetera lehen gaua pasako dute kalean... honek zazpi gau ematen zituen, de seguido, hona etortzen zen.

Ainhoa:

Berarentzako erraza zen zuek ohitu duzuelako orduan?

Ama2:

Nire ustez bai, ohitu dugu, eta orduan bera ba, holan, holan izan da beti, beti ezagutu du hori...

Ainhoa:

Eta ekonomikoki? Asko da?

Ama2:

Asko bai. Hori nire gurasoek ezango zizuten nik baino hobeto, baina, guk, klaro... kontua da, umeekin zaudenean, eske klaro... guk ikusi genuen beharra etxe bat hartzeko kartzela zegoen lekuan, zeren, adibidez, bisak egiteko eta dena, denbora bat pasatu behar dute kanpoan, eta azkenean, neguan, edo bazkaldu behar dutela, edo gau bat pasatu behar dutela ze umearentzako kriston bidaiia zen zazpi ordu... gau bat pasatu behar zuten gutxienez asteburuan, eta orduan kriston gastua zen, eta aurkitu zuten pisu bat, alkilerra ez dakit, 300 eta piko edo 400 euro zirela hilabeteetan... askoz merkeagoa ateratzen zen pisua ez hartzea baino, ze bestela hotelean pasatu behar zuten gaua... Eta horrela plana egiten zuten, familia guztia etortzen zen, edo lagunak ere etortzen ziren, eta orduan ia, ba etxea daukazu, berdin da zenbat jende sartzen duzun, etxea daukazu, eta janaria prestatzen zuten bertan... baina, dirua zen alkilerra. Eta gero bidaiak, eta...bai, ekonomikoki, gastua... handia, bai. Eta bueno, guk igual, txarrean ahal genuen pisu gabe egon, eta, ze umea ohitua zegoen bidaietara, baina beste umeak, hasten zirela gauak kanpoan pasatzen... eta ezin duzu hartu eta eraman Euskal Herrira... eta orduan, ba beste familiek ere bazituzten pisuak, umeen ordutegi horiengatik: siesta botatzeko, leku eroso bat izateko, jostailuak, etxe bat izateko... Ez dakit, behar hori bagenuen, eta familia gehienek bazuten ere, kideen aldetik eh, gero arruntek ez. Kideen aldetik, familien egoera ekonomikoa ona zen, orduan alde horretatik, nire ustez denek bagenuen pisu bat, eta bestela familien artean bat konpartitzen genuen, hola egiten genuen, baina, klaro, denek ezin dute hori egin... Guk badugulako, eta nire kasuan, gurasoek haien gain hartu zutelako, ahal zutelako, baina, ez dakit... Nire bikoteak bakarrik ezingo luke, familiaren laguntza barik, ez dakit nola egingo genukeen... izango zen, pixkat zaila. Baina hori, etxe bat izateak, asko laguntzen gintuen, ze, adibidez, guk egiten genuen hilabeteetan behin aste bat atera, baina gero bisa genuen asteburua, egiten zuten asteburu pasa. Eta kide gehienek hori egiten dute. Adibidez, guk ostiralean dugu bisita, eta igandean bisa, eta orduan, ostiraletik igandera pasatzen zuten hor, Valentzia inguru horretan, ba umeekin familiak asteburua, eta orduan ba pisu horrek kriston babes ematen dizu, ze daukazu etxe bat eta zaude lasai umearekin. Gaixo badago, edo lo egin behar badu, ba daukazu leku lasai bat. Orduan guk, beharrezkoa ikusten genuen, baina ekonomikoki, ba...

Ainhoa:

Beste ume bat izanda, nola eramaten zuen bere neba joatean? Bazihoan? Haiekiko atxikimendua nolakoa zen?

Ama2:

Ba oso ondo. Bai, neba etortzen zen hilabeteen bitan, etortzen zen umea jasotzen zutenean, bidaia egiten zuen berarekin, hemen aste bat pasatzen zuenean, eta buelta kointziditzen genuen bisekin. Orduan, bueltan ere etortzen, bisa egiten genuen, eta orduan umea nirekin geratzen zen.

Ainhoa:
Konbiventziakoa ere egiten zenuten?

Ama2:
Bai, bai. Konbiventziakoa ere egiten genuen. Eta familiarra. Normalean konbiventziakoa bikotearekin egiten nuen, eta familiarra gurasoekin edo ahizparekin...

Ainhoa:
Eta zure bikotea oraindik joan ezin zenean, norekin egiten zenuen konbiventziakoa?

Ama2:
Konbiventziakoa egiten nuen nire aitarekin. Egin ahal nuen, baina nik bakarrik umeekin ezin nuen, egon behar zen beste familiar bat, eta ez baldin bazen bikotea... Picassenten lortu genuen, baina ez dakit beste espetxeetan ahal den. Hori da espetxearen arabera. Eta klaro, nik ez nuen ikusten, baina argazkietan eta... gero familiak kontaktzen zidana... haien arteko harremana oso oso ona... lotura handia zuen. Eta horrek umeari asko lagundu dio, ze hiru urte eta gero, lortura hori izateak, hemengo bititza normaltasuna ematen zion...

Ainhoa:
Eta beste haurrak, nola eramaten zuen? Inbidiak edo?

Ama2:
Mmmm, inbidiak... oso oso ondo eraman du. Egia da guk hasieratik beti egia esan diogula, eta dena hitz egin dugu. Orduan, ba, nire ustez ere horrek lagundu dio.

Ainhoa:
Zure ustez garrantzitsua da horretaz hitz egitea?

Ama2:
Nire ustez bai. Esan behar zaio dena. Eta gero, kideen artean beti komentatzen dugu; arruntek ez dute egia esaten, esaten dute: hemen bagaude lanean, edo... Eta guk ikusten genuen guk dena esaten geniola eta haientzat, umeentzat errazagoa zen. Hauek oso era naturalean eraman dute, orduan, esan dizut, ez du inoiz handiak haserrerik hartu... hasieran txikia zen, hiru urte zituen, eta ez zuen ulertzen ni zergatik nengoen hor, zergatik ez geunden etxean, eta zergatik txikia nirekin zegoen eta bera ez. Hori bai izan zela zaila adibidez, hasiera hori, ez zuen ulertzen.

Ainhoa:
Zenuten atxikimendu hori bapatean apurtu zenutela, ez? Bueno... apurtu...

Ama2:
Bai, bai. Eta ez zuen ulertzen. Esaten zuen: "zergatik ni ez nago zurekin"... Hiru urteko muga hori... Eta bueno, poliki-poliki...

Ainhoa:
Eta hiru beharrean beran izango balitu bi urte? Eraman ahal izango zenituzke biak barrura?

Ama2:
Bai. Ahal nituen biak izan, hiru urte arte, nahi dituzunak... Ikusi izan dira bikiak, edo adin ezberdinekoak... Gero, umeen aitak kriston lana egin zuen. Denbora pila bat berarekin hitz egiten... lehenengo bisetan galdera pilo bat egiten zituen, eta gero ia, ez zituen egiten. Onartu zuen egoera, nahiz eta hori, beti bazeukan zerbait, baina bueno, normala. Guk esan genion, zazpi

urte betetzen zituenean ni egongo nintzela kalean, haiekin. Eta orduan berak, hori zeukan, zazpi urte arte hau da dagoena, eta egia esan oso ondo.

Ainhoa:

Eta txikiak zelan bizi izan zuen behin betiko atera osteko lehen bisa? Zelan egin zenuen prestaketa zuk? Esan zenion ez zela berriz sartuko, ulertu zuen?

Ama2:

Bai. Berarekin hitz egiten. Esan nion handiari esan nion berdina, kontua da beste kide eta haur batekin geundela, eta beste umeak abuztuak betetzen zituela hiru urteak, eta nireak irailan, eta orduan, beti zeuden elkarrekin, beste umea atera zen, eta ez zen itzuli, kanpoan ikusten zuen baina kartzelan ez zuen ikusten. Orduan hor hasi nintzen, beitu, zure laguna atera da, hiru urte bete dituelako, orain dago familiarekin eta zuk laster beteko dituzu hiru urteak eta tokatuko zaizu aitatxo eta nebarekin egotea, eta egongo zara haiekin bost urte betetzen dituzun arte, eta horiek betetzean ni irtengo naiz. Orduan lehenengo zu atera behar zara, eta gero, ni aterako naiz. Eta onartzen nuen. Galdetzen zuen: "orduan orain egongo naiz neba eta aitatxorekin eta gero zu...", eta nik "bai, orain arte egon zara amatxorekin eta orain tokatzen zaizu pixkat haiekin egotea, zeren nahi dute zurekin egon ere". Eta orduan onartu zuen. Bere azken bisa izan zen bis bat bere aitarekin, eta bera ohitua zegoen bis bat baldin bazuen gero ateratzera, eta orduan hor arazorik ez, baina lehenengo bisa atera ostean, nire gurasoekin izan zen, eta nire ama oso arduratua zegoen, eta esan zion "orain joango gara bisera, jolastera amatxorekin, baino gero bueltatzen zara gurekin berriro eh, ze amatxo ia aldatu zute lekuz eta umeak ezin dira sartu leku horretara", ze moduloz aldatu niduten bi hilabete, eta gero Valladolid-era, eta errazagoa izan zen, ze hor ez dago umerik, baina klaro, Picassent zen pixkat, beste umeekin... Eta hori, nola zen, nire amak esan zion eta berak erantzun zion: "bai amona, badakit, amatxo aterako da nik bost urte ditudanean. Ordurarte jolastu bakarrik eta gero zuekin berriz", baina horrela erantzun zuen eh, nire ama geratu zen flipatuta. Nik hainbeste errepikatu bost urte arte barruan egongo nintzela...

Ainhoa:

Hasi zinen esaten orduan beste umea atera zenean? Edo lehenagotik?

Ama2:

Ez, bestea atera zenean. Azken hilabete horretan. Ze lehenago, nola denbora kontzeptu hori oraindik ez duten oso barneratua umeek, ba lehenago esatea ez nion zentsu handirik ikusten, baina, bai esatea. Hilabete horretan askotan esan nion, baina bereziki azkeneko astean. Azkeneko astean esan nion: "aste honetan, ostiralean betetzen dituzu hiru urte. Eta badakizu hiru urtekin iada handia zara eta joan behar zara aitatxo eta nebarekin", bueno, handia zara... ez dakit nola esaten nion, baina onartzen zuen...

Ainhoa:

Urtebetetzen egunean bertan ateratzen dituzte? Ez hurrengo egunean?

Ama2:

Ez, egunean bertan. Egunean bertan da, bai. Eta orduan nik, justu ostirala zen, eta ostirala bisita eguna da, eta nik goizean bertan atera nuen. Eta gero aldatu ninduten moduloz, eta astelehenean geneukan konbibentziakoa. Asteburua pasatu zuten, bera konbibentziakoa sartu zen, baina gero eraman zuten ia. Baina, hori, oso oso ondo. Gero egia da, Valladoliden gutxiago, baina Picassenten egon nintzen bi hilabete horietan beti esaten zidan: "baino amatxo, nahi dut zurekin sartu, nahi dut zurekin egon hor barruan". Eta hor adibidez kendu zitzaizkidan mamuak, beti izan dut argi ondo egiten nuela umea sartzen kartzelan nirekin, eta hori argi izan dut, baina beti gelditzen zaizu zalantza bat, edo ez dakit... egun txarrak dituzunean esaten duzu: "eta zer egiten du hemen umeak, kartzelan. Kartzelan ni egon behar naiz, baina ez umea...", holako gauzak etortzen zaizkizu batzutan, eta hor joan zitzaizkidan, pentsatu nuen "joe, hemen egon nahi du, ondo egon da". Azkenean, txikiaren mundua zu zara, eta zurekin egon da 24 orduz, gainera, guk esaten dugu, kartzelan gaude, baina, pribilegioa daukagu haiekin gaudela jolasteko. Ez dugula lanik egin behar, ez bazkaria

egin behar, gaude 24 orduak haiekin, eta orduan haiekin zeuden ondo, gustora, beraien mundutxoan, beren amarekin. Ikusten dituzte funtzionariak, ikusten dituzte barroteak, bai, baina amarekin daude, eta nik hor... berak beharra zuen nirekin egoteko. Beno, gero onartzen zuen, baina, Valladoliden, adibidez, askoz hobeto, ze errazagoa zen berarentzat ulertzea: "aldatu naute lekuz, hemen ez dago umerik...", eta gero haiek haien urtebetetzeko muga zeukaten, bost eta zazpi, hori argi zeukaten, bazekiten noiz aterako nintzen, ez badute argi noiz aterako diren, galtzen dira, eta orduan guk jarri genien hori, eta oso ondo eraman dute.

Ainhoa:

Zu egon zinen bi urte gehiago barruan. Kontaktua izan zenuen eskolarekin?

Ama2:

Bai. Ez asko, batez ere aita kanpoan zeukatelako eta berak egiten zuelako lotura hori gehien bat. Baina bai jaso izan ditut, gutxi, baina, gutun bat irakaslearenak, eta kriston pila emozionatzen nintzen, batez ere nagusiarengatik, ze ni txikiagatik ez nengoen hain arduratua, nahiz eta hau izan nirekin sartu zena, baina berarekin lotura hori izan nuen, eta nagusia hiru urterekin utzi nuen eta lau urte eta erdi egon da ni gabe, orduan, banuen kezka hori. Irakasleak esaten zidan gezurra iruditzen zitzaioela zein egoera geneukan etxean ikusita zein zorionsua zen umea, osea, oso mutil naturala eta alaia. Naturaltasunez hartzen zuen gaia, guztiz, ikastola oso txikia da ere, guk sortu genuen, orduan denek zekiten... Alde horretatik, nire haurrak oso babestuak egon dira. Eskolan ongietorria egin zidaten, opariak eman zizkidaten, ume guztien argazkiak bidaltzen zizkidaten... Ikastola txikia zen, garaian 20 bat, orain 39 inguru, ikastola osoan. Hasieran lau hasi ziren, eta irakasle bat zegoen, gero bi, eta hitz egiten zuten... bere irakasleak senarra izan zuen kartzelan, eta lau ume izan ditu, beraz, oso ondo jakin zuen nola landu gaia, oso ondo.

Ainhoa:

Nola bizi izan ditu atera osteko bisitak?

(Haurrak gurekin daude)

Ama2:

Nola izan zen amatxo bisitatzea kartzelan?

Ume txikia:

Ondo!

Ume handia:

Bueno...nik askoz gehiago egin dut! Eske txikia egoten zen hiru aste zurekin eta bat gurekin.

Ama2:

Berdin du, edo aitarekin edo aitona-amonekin edo izeba-osabekin, bidaia ondo....

Ume txikia:

Bisita egiten genuenean nahiago nuen aitaxorekin. Ze aitaxorekin joaten ginenean, amonaren etxera ere joaten ginen...

Ama2:

Bai, bai. (Barreak). Eske bazituzten haien erritualak, eta orduan...

Ume txikia:

Eta amonarekin joaten ginenean aitaxo zegoen itxoiten taberna batean...

Ama2:

Atera nintzenean esan nuen, orain arte oso ondo joan da dena, ea orain irtetea ateratzen diren gauzak... normala izaten delako, eta ikusi izan dut, beste umeengan. Amarekin...

Eta gero nire irteerako momentua... oso emozionantea... Ze nik bikoteari esan nion, igual ez ekarri umea ni ateratzen naizenean, ze...beste bidai bat egitea... etortzen zarete nire bila, joaten gara ikastolara umeen bila edo dena delakoa... Eta berak esan zidan: "Ez, haiek nahi dute ikusi nola zu ateratzen zaren espetxetik, eta gainera behar dute. Behar dute ikusi nola ateratzen zaren eta bueltako bidaia zurekin egin...", punto final bat bezala emateko, ze bestela izango zen tipo: ui etorri da orain, baina gero bueltatuko da, edo zer? Ez dakit, nire sententzia izan da dena enkajatu dela oso ondo. Bi umeak, oso modu naturalean egin dugu, eta oso ondo bideratu dugu, eta oso ondo eraman dute. Beraz, alde horretatik erraza izan da. A ver... "erraza izan da", ez, oso zaila izan da, baina familiaren laguntzarekin, eta lagunak, eta... erraza egin digutela. Gainera atera nintzenean, egun hori eta aste hori, oso berezia ikastolan, bazeuden emozionatuak ikastolakoak, hauek ere...

Ainhoa:

Orain sartuko bazina, berriro egingo zenuke horrela? Egoera berdinean egongo bazina. Zerbait aldatuko zenuke bera kaleratzerakoan?

Ama2:

Bai, egingo nuke berdin-berdin. Ez nuke ezer aldatuko. Berdin-berdin: hitz egin, hitz egin, hitz egin asko, nahiz eta txikia izan. Nahiz eta pentsatu ez dutela ulertuko, ulertzen dute, eta nire ustez, behar dute jakin. Eta gainera, behar dituzte tresnak ulertzeko, eman behar dizkiozu, esaterako, denborak, ez dituzte kontrolatzen, eta hori, urtebetetzeko kontuarekin eta, nik ikusten nituen lasai, eta gainera errepikatzen zuten. Ikusi zein lasaitasuna izan duen txikiak, egun batean irakasleak galdetu ziela ea zer zen gehien gustatzen zitzaien gauza, ni barruan egonda, eta haiek kanpoan, txikiak erantzun zuten: "niri txokolatea eta printzesak" eta handiaren txanda heldu zenean esan zuten: "niri amatxo ikustera joatea", orduan txikiak esan zuten: "eeh itxoin, itxoin, niri hori ere, eta gero txokolatea eta printzesak". (Barreak). Handiarentzako hasiera zaila izan zen, eta txikiak, ordea, pixkanaka egin du prozesu hori. Askok landu dugu, bai nik, bai aitak, eta egia esan behar zaie, haiek jakiten dutelako bestela, eta buelta asko ematen zizkion handiak adibidez. Baina, beti gertatzen zenez guk kontatzen geniena, egia osoa esaten zenien, orduan ez zuten hutsunerik eta konfiantza zuten, eta nire ustez hori garrantzitsua da. Nire ustez ondo egin dugu eta berdin egingo nuke.

ELKARRIZKETA 3: IRAKASLEA (IRAKASLEA)

Ainhoa:

Umeak galderak egiten zituen eskolara sartzean? Arraro ikusten zuen espazio hori?

Irakaslea:

Keba. Sartu zenean ematen zuen beti egon zela eskolan. Nik uste ere bai ezagutzen zituen ume asko, aitak herrira ekartzen zuelako berarekin zegoenean, orduan berak ya bazeukan erreferente bat. Lehenengo egunetik sartu zen lasai eta ume horrekin egoten zen batez ere, bi ume ziren eta nirekin hasieratik oso harreman ona eduki zuten eta hurbila eta horrela. Hasi ziren 2h bakarrik eta horrela ekartzen, adaptazio antzera. Eta egia da umeak berahala eskatu zuela egun guztia geratzea

Ainhoa:

Berak eskatu zuen?

Irakaslea:

Bai bai, baita aitarekin etortzen zen eta aita bila etortzean berak esaten zuen "apur bat gehiago aita, gehiago geratuko naiz" eta horrela joan zen gelditzen gero eta gehiago.

Ainhoa:

Orduan berak adaptazioa egin zuen pixka bat beranduago baino...

Irakaslea:

Bai baina denbora gutxian egin zuen. Ez naiz oroitzen etorri zen urrian edo azaroan 3 urte bete zituenean, kurtoa ya hasita zegoen gainera, apur bat zailagoa izaten da sartzea

Ainhoa:
Eskola txikia da edo...?

Irakaslea:
Eskola oso txikia da. Gela nahiko potentea zen 3 urteko gela zelako eta 20 ume zeuden, potentea zen.

Ainhoa:
Eske eskola txikiaz hitz egiten dugunean pentsatzen dugu 4-5 ikasle egonen direla.

Irakaslea:
Eske hori nik izan ditudanak izan dira beti talde bakarra, 20koak eta talde bakarra eta horrela. Beste guztiak daude igual bi talde, bikoiztuta. Lau urtekoak 2 talde zeuden... baina gu bakarrik geunden eta bai, oso ondo moldatu zen.

Ainhoa:
Hasieran negar egiten zuen? hitz egiten zuen?

Irakaslea:
Ez, negar eta horrela ez. Agian pixka bat burugogorra zen. Nik nabaritu nion igual besteak hurbiltzen zirenean eta segun nor hurbiltzen zen ez zitzaion gustatzen, kontaktu fisiko hori.. ez zen normala bezala...

Ainhoa:
Eta erortzen zenean, edo disgustoa zuenean edo negar egitean.. ama edo aita eskatzen zuen?

Irakaslea:
Aita aitaren izenagatik deitzen zuen. Aitaren izena esaten zuen eta horrela, baina ondo. Egia da ez zuela bere aurreko bizitzaz ezer hitz egin denbora luzaroan, ez zuen ezer esaten non egon zen ez ezer ez. Nik ere ez nion galdetzen, ez ezer, bera normaltasunez sartu zen ta nik ere beste ume bat bezala, ikusi nuen normala zela dena ta ez nion galdetu behar "aizu zu non egon zara orain arte..." orduan hori oso ondo.

Ainhoa:
Eta gero haztean hasi zen bere egoerataz hitz egiten?

Irakaslea:
Behin edo horrela bakarrik, marrazkiak egiten edo zegoen hasi zen esaten "ni lehen beste eskola batean nengoen, baina ez zen hau bezalako eskola, diferentea zen" eta aipatu zuen ere andereñoaren izena eta egoten ginen eztaikit norekin eta elkartzen ginen beste batzuekin, txikiak ziren, ni nagusia nintzen, baina ez zuen hitz egiten.

Ainhoa:
Amataz hitz egiten zuen?

Irakaslea:
Ez, ez zuen hitz egiten. Amataz ez zuen hitz egiten ezer. Ez ez.
Ama atera zen nirekin zegoenean, baina justo ama agertu zen siesta egiten zuten ordu batean eskolan eta ni justo arratsaldeetan ez nintzen inoiz egoten (...) justo hilabete horretan arrastietan beste irakasle batekin egoten ziren ama bueltatu zen

Ainhoa:
Eta oster, ya amataz hitz egiten zuen?

Irakaslea:

Bai, ya amarekin etortzen zen eta "ama etorri da" esaten zuen. Gainera txikia da eta umeek esate zioten "aiba zure ama etorri da". Eta herri txikia denez ba kaletik ere entzuten zuen "zure ama etorri da". Beti umea oso lasaia izan da orduan, denbora pasa ahala zabaldu zen pila bat. Bi lagun, eta nahiko serio eta gauzak konpartitzeko eta bai eduki zuela arazoa . Bereak ziren gauzak eta nik daukat...

Ta nik pentsatzen ohituta ume eta desberdina da adin berdineko umeak edo txikiagoekin bazaude orduan nik pentsatzen nuen horregatik igual...

Ainhoa:

Eta adibidez, bere umorea normalean ona zen?

Irakaslea:

Hasieran nahiko serioa zen edo apur bat itxoiten zerbait txarra etorriko da. Aurreratu egiten zen, uste zuen baten batek joko zuela ... baina konturatu zen ongi etorria zela eta ez zegoela arazorik eta bueno egia da denbora gutxian aldatu zela pilo bat eta irakasleen artean komentatzen genuen, zure ikasle horrek nolako aldaketa eduki duen. Eta oroitzen dut egin genuela inhauterietan dragoiekin antzerkitxo bat eta bera izan zela protagonista eta denak harrituta, zeraman oso denbora gutxi eskolan eta zelan adaptatu den.

Ainhoa:

Agian mesfidantzatik konfiantzara pasa zen

Irakaslea:

Bai bai, konfiantzara. Umea azkarra zen eta obserbatzailea... eta orain eskolara doanean ere komentatzen dute joe ze ondo. Garapen ona izan zuen.

Ainhoa:

Eta esfinterraren kontrola eta hori hasieran?

Irakaslea:

Ez zuen eduki arazorik horretan

Ainhoa:

Zuk uste duzu aurreko urtean umea eskolara joan balitz errazagoa izango zela?

Irakaslea:

Bi urteko gelara joan bazen? Nik adibidez ez ditut nireak eraman...

Ainhoa:

Baina ez 2 urteko gela 2 urteko gela delako, baizik eta eskola ezagutzea

Irakaslea:

Oso erraz egin zen. Herria oso txikia da eta berak jada ezagutzen zituen beste ume batzuk eta beste guraso batzuk. Gela handia zen baina hiru urteko haurrek oraindik bata bestearen ondoan jolasten dute, orduan jolasten zuen besteekin eta segun baina nik uste ikusten zela babestua, leku ezagunean. Nik uste aitarekin patio ondotik ibilia zela eta herritik ere bai. Agian kurtso hasiera izan balitz gogorragoa izanen zen, kurtso hasieran 3 urtekoak negarrez... baina berak ikusi zuen ikasleak lasai zeudela eta hori ere lagungarria izan zela.

Ainhoa:

Hori ere baloratzekoa izan daiteke, ikustea besteek jada konfiantza dutela.

Irakaslea:

Klaro, sartzen bada eta denak negarrez daude, pentsatuko du nora nator? Lasai nengoen ni eta bat batean orain junglara nator. Nora ekarri naute ni, hemen denak negarrez daude? Nik uste ongi etorri zitzaiola hori.

Ainhoa:

Beste umeek bazekiten nondik zetorren?

Irakaslea:

Hilabeteak pasa ziren eta neskato batek esan zion "ah zu lehen kartzelan egon zara" eta berak erantzun zuen baietz, kartzelan egona zela amatxorekin eta bera ere horretan sartu zela; baina jada kanpoan zegoenean. Orduan desberdina zen. Kurtsoa hasi eta hilabete gutxira atera zelako ama.

Ainhoa:

Orduan beste haurrek nahiz eta jakin errespetatzen zuten.

Irakaslea:

Bai errespetatzen zuten... hori ez zioten inoiz ezer esaten, bakarrik behin ikasle batek galdetu zion eta berak azaldu zuen.

Ainhoa:

Zuk uste duzu pertsonalki beste umeek jakin behar dutela nondik datorren, azaldu behar zaiela lehenago?

Irakaslea:

Horrekin zalantzak izaten ditut askotan . Nik izan ditut ere bai ikasleak amarik ez dutenak, bat duela asko eta beste bat duela gutxi eta askotan uste dut ez dela hainbeste azalpen eman behar umeekin, normalizatu behar da eta sortzen denean , sortzen da. Duela urte batzuk sortu zen eztabaida bat, orain bostgarren mailan daudenekin, bi emakume ezin direla ezkondu, eta azaldu nien baietz, bi ama egon ahal dira, neukan beste bat zirela ama bat eta bi aita, justo eduki ditut horrelako kasu batzuk baina ez dut inoiz lehenago azaldu, momentua eman denean heltzen da. Beti daude ume batzuk gaiztoak direnak edo bihurri zentzu gaizto horretan...

Ainhoa:

Orduan uste duzu onena normalizatzea dela? eta sortzen denean hitz egitea?

Irakaslea:

Niri horrela funtzionatu dit eta justu niri tokatu izan zaizkit horrelako kasuak eta arazo barik.

Ainhoa:

Hor debatea dago, aurretik landu edo ez, baina uste dut zure antzera ematen dudala, azkenean irakasle bakoitzak bere modua dauka, baina nik uste dut egoera hauek ez direla normalak , ez dira ohikoak, eta bat batean agertzen denean, depende nork jasotzen duen informazio hori erabili ahal da onerako eta txarrerako eta babesteko baldin bada bale, baina...

Irakaslea:

Eta ume txikiak dira eta ez dakizu hiru urteko bat nondik atera ahal den , eta esan ahal dio edozein gauza ez dutelako kontrolatzen

Ainhoa:

Eta agian baldin badaki min egiten diola, beste momentu batean erabiliko du.

Irakaslea:

Nik ez dut egin, gehiagorekin komentatu dut zer egin, baina niri funtzionatu dit.

Ainhoa:

Eta zuk egoera honetan egon den haur bat izanda, hurrengo irakasle bati ze gomendio emango zenioke

Irakaslea:

Ez dakit, nik uste dut ume bakoitza mundu bat dela. Ikasle hau gartzelatik zetorren, beste bat banaketa batetik, beste batzuk tratu txarretatik.. nik uste dut momentu horretan zorte ona eduki dudala feelinga izan dudalako. Adibidez kartzelako andereñoarekin ez zuen hain feelinga ona. Orduan nik uste dut garrantzitsua dela hori, umea onartzea eta saiatzen enpatia izaten. Eske ikasle honen kasuan, ez zirudien kartzelan egon zenik.

Ainhoa:

Atera zela eta beste bizitza bat...

Irakaslea:

Bai bai, gurasoek ere lan handia eginen zuten aurretik, eta lan hori egin zegoen.

Ainhoa:

Eta orain etorriko balitz beste ume bat berdina egingo zenuke?

Irakaslea:

Nik bai, berdin egingo nuke, ez badute gurasoek zeozer esaten. Bera ongi moldatzen zen, baina ume bakoitza desberdina da, orduan beste ume batekin, laguntza behar dut ez duelako funtzionatzen edo ez dakit nola bideratu, baina kasu honetan berak zioen 2h ekartzen zutenean geratu nahi zuela edo jantokian geratu nahi zuela umeak

Ainhoa:

Eta 2 orduen aukera ematea ere garrantzitsua da ezta? posible baldin bada.

Irakaslea:

Bai, ahal bada aukera hori oso inportantea da, bere egokitzapena egitea, bere adaptazioa. Agian 2 ordu primeran dagoelako, baina egun osoa egonda esango du "zer da hau?".

Ainhoa:

Azkenean bat batean amarekin duen atxikimendua apurtu duzulako, eta bat batean aitarekin edo herriarekin...

Irakaslea:

Nik gainera badakit aitak komentatzen zuela ama bueltatzean lo eta dena berarekin egiten zuela, ama zegoen disgustoarekin denbora guztian aitarekin egon nahi zuelako. Hori ere amarentzat izan behar dela gogorra.

Ainhoa:

Berez ume hori "abandonatuta" sentitzen da, egoten zelako 24 ordu, egun osoa. Gurasoekin hitz egin nuenean komentatu genuen, komentatzeko zeozer okurritzen bazaizu, haiei egin nizkien galderak izan ziren ea nolakoa zen azpiegitura, higiena, hezkuntza, zaratak... eta adibidez zaratena izan zen puntu bat oso potentea ze zaratekin izutzen ziren...

Irakaslea:

Zaratena eduki zuen, orain oroitzen dut. Bideoak eta jartzean edozein soinu beldur pixkat ematen dutenak, otsoa adibidez, txarto pasatzen zuen.

Ainhoa:

Eta azpiegiturak, gelan zeuden gauzak... berak flipatu egiten zuen edo normaltzat?

Irakaslea:

Ez zuen ezer esan, iritsi zenean azaldu genizkion txokoak, eman egingo ditugu margoak... baina ez zuen ezer esan.

Ainhoa:

Eta hizkuntzaz zerbait esan zuen? erderaz egiten zutela aurrekoan?

Irakaslea:

Ez zuen ezer komentatu horretaz, klasean ere badago batzutan erderaz egiten dutenak. ez zuen komentatu ezer horretaz ez
Eta gero, normalean aita edo ama zihoazen bere bila?

Irakaslea:

Bai bai, igual batzuetan aitite etortzen zen ere bai

Ainhoa:

Eta zelan hartzen zuen aititerekin joatea?

Irakaslea:

Ba aitari bere izenaz deitzen zion eta aititeri ere bai. Eta norbaitek esatean "zure aitite etorri da" ez, eta haren izena esaten zuen. Baina pozik joaten zen.

Ainhoa:

Zurekin hitz egitearen arrazoia zen jakin nahi nuelako nola izan zen egokitzapena eta ateratzen dudana da, lehenago ez dudana ikusi eta zurekin hitz egiten bai irailean sartzea besteekin agian ez litzatekela ona izango

Irakaslea:

Pentsatu behar da nolakoa den gela momentu horretan eta bat batean etortzea ambiente "lasai" batetik eta bat batean hemen sartzea negarrekin beste 20 umerekin...orduan bera sartzea gela ia lasai zegoenez, ba ez da izan hain txarra eta ezagutzen zituen bi mutilak ere lasai zeuden berarekin, nik uste dut ona izan zela.

Ainhoa:

Orduategiak nola eramaten zituen ? goizean nekatuta iristen zen?

Irakaslea:

Ez, orduategia hemen ona da, 9:30 tan sartzen dira orduan, klaro 9:30-13:00 etara eta 14:30-16:00etara.

Ainhoa:

Eske, adibidez han 8tan kanpoan daude

Irakaslea:

Ez baina hemen 9:30tan sartzen da eta eskola ondoan bizi denez oinez etortzen zen eta hori ere aldaketa handia da. Orduategia ona zen eta berak normalean etxean bazkaltzen zuen, ama etxean egoten zelako.

Ainhoa:

Hori ere galdetu nahi nizun, ea zelan jaten zuen

Irakaslea:

Nik uste ongi jaten duela, noizbait jantokian ere gelditu zen, eta orain ere uste dut ez dela beti gelditzen, ama etxean dagoenean edo... segun zein den lanaren momentua, biak lanean badaude eta ezin badute, ba geratuko da jantokian, baina ondo, pozik geratzen zen. Orokorrean denak jantokian gelditzen dira.

Ainhoa:

Bai eske, eskola txikia izatea...

Irakaslea:

Pentsatu orain ikasle asko daudela, eta 200 ikaslara ez dira heltzen

Ainhoa:

Eske justu ikertu ditudan umeak eskola txikikoak dira guztiak eta uste dut hori oso ona dela beraientzat ere bai, baina gero kasuak kasu

Irakaslea:

Bai, orokorrean gehienentzat izaten da hobeto

Ainhoa:

Nik nire eskolarekin konparatuta... nik uste eskola txikietan irakasleak inplikatzeko direla gehiago..

Irakaslea:

Bai, azkenean beste era batera ezagutzen dituzu umeak eta beste modu batean funtzionatzen duzu, azkenean familia handi bat bagina bezala.